


**AKUILU TALDEAK:**  
Euskararen aldeko eragiletza hizkuntza  
asertibitatearen bidetik



**HIZNET graduondokoa: Sakontze egitasmoa**

**Egilea:** Juanjo Ruiz Navarro

**Tutorea:** Ferran Suay i Lerma

2009ko ekainaren 30a

*“Izan zaitetz munduan ikusi nahi duzun  
aldaketa”*

Ghandi

*“Ez dut maite gaur egun hizkuntzaren  
inguruan dugun diskurtso nagusia.  
Gugandik aparte dagoen zerbait dela dirudi.  
Euskarari oldarteak, eskubideak  
azpimarratzen ditugu. Baina euskara  
salbatuta dago. Gramatika eta hiztegi  
batean, hizkuntza salbatuta dago. Arazoa gu  
gara, jendea”*

Juan Jarlo Etxegoien “Xamar”

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	5
<b>2. HELBURUAK</b> .....	7
2.1. Euskaltzaleen hizkuntzarekiko kontzientzia sendotzea .....	7
2.2. Euskaltzaleen hizkuntzarekiko koherentzia lantzea .....	10
<b>3. KOKAPEN TEORIKOA: HIZKUNTZA ASERTIBITATEA</b> .....	15
3.1. Asertibitatea .....	15
3.1.1. Kontzeptuaren jatorria eta definizioa .....	15
3.1.2. Estilo ez-asertiboa, erasokorra eta asertiboaren ezaugarriak .....	19
3.1.3. Giza eskubide asertiboak .....	24
3.1.4. Asertiboa izateko teknikak .....	26
3.2. Hizkuntza asertibitatea .....	39
3.2.1. Hizkuntza asertibitatearen definizioa .....	39
3.2.2. Portaera mota ezberdinen ezaugarriak .....	42
3.2.3. Hizkuntza asertibitatea eta giza eskubide asertiboak .....	48
3.2.4. Hizkuntza asertibitatea aplikatzeko teknikak .....	49
<b>4. FAGOR ARRASATEKO EUSKARA PLANA</b> .....	62
4.1. Fagor Taldea eta euskara .....	63
4.2. Hego haizea Fagor Arrasaten (1999-2002) .....	70
4.3. Ipar haizea Fagor Arrasaten (2002-2004) .....	73
4.4. Badator traganarrua! (2005etik aurrera) .....	75
<b>5. AURREKARIAK</b> .....	78
5.1. Akuilu taldeen proba pilotuak (Markina, Arrasate) .....	78
5.1. Taller D'Espai Lingüístic Personal (TELP) .....	81

<b>6. AKUILU TALDEEN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>84</b>
6.1. Akuilu taldeen saioak .....	84
<b>7. DISKUSIO ETA ONDORIOAK .....</b>	<b>93</b>
7.1. Diskusioa .....	93
7.2. Ondorioak .....	97
<b>8. BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>98</b>

## 1. SARRERA

Azken urteetan, ezagutza arlo berri bat gehitu da hizkuntza gutxituen berreskurapen eta normalizazioaren ahaleginetan; psikologiaren arloa hain zuzen ere. Orain arte hizkuntza gutxituen normalizazioa beste arlo batzuen ekarpenekin (soziolinguistika, arlo legal-juridikoa,...) landu izan da. Ezagutza arlo horiek egin dituzten ekarpenak ez dira nolanhikoak izan eta hizkuntza gutxitu batzuen berreskurapenean eman diren aurrerapausoak, neurri handi batean, arlo horietan egindako ikerketa eta hausnarketek ahalbideratu dituzte.

Esan bezala azken urteetan psikologiaren arloa gehitu da hizkuntza gutxituen normalizazioaren ahaleginetan. Horrek ez du esan nahi lehenago arlo honetatik ekarpenik egin ez denik, baina aitortu behar dugu beste arlo batzuetan zentratzen zirela begiradak. Begibistakoa da gaur egun mundu zientifikoaren joera nagusia ezagutza arlo desberdinen arteko uztarketa dela. Diziplinartekotasuna da erabiltzen den hitza. Gero eta gehiago, zientziaren munduak ezagutza arlo desberdinetatik edaten du dituen kezak aztertu eta erantzunak bilatzeko. Era horretan aztertu nahi den objektua ikuspegi ezberdinetatik ikustea ahalbidetzen da eta, era berean, irtenbideak bilatzerakoan maila ezberdinetatik bilatu ahal izaten dira.

Beraz ez da harritzeko aipatu dugun joera hau hizkuntza gutxituen normalizazioan ere ikustea. Esan dezakegu berezkoa duela neurri handi batean, soziolinguistikak berak hainbat iturritik edan izan baitu hasiera hasieratik.

Psikologiak hizkuntzaren normalizazioan egiten duen ekarpena azpimarratzen dugunean, ez diogu beste ezagutza arloek egindako ekarpenei garrantzirik kendu nahi. Esan dugun moduan, beste ezagutzen ekarpenak ugariak eta ezinbestekoak izan direla uste dugu. Psikologiak egiten duen ekarpena beste ekarpen horiei gehitu egiten zaiela uste dugu, beste ezagutza arloek, beraien izaeragatik, aztertu ez dituzten arloak gehitzen dizkiogu hizkuntza gutxituen normalizazioari. Hori horrela, sinergiak biltzen asmatzea da kontua. Iparra hizkuntza gutxituen normalizazioa dugunoi norabide berean arraun egitea dagokigu, itsasoak nahikoa olatu eta korronte izaten baititu eta bakoitzak alde desberdinerantz arraun eginda, txalupak ondoratzeko arrisku handiagoa izango du eta.

Beraz, hemen aurkeztuko dugun lanaren lan eremua psikologiarena izan da. Psikologia zientifikoak egindako ekarpenetatik edan dugu eta hizkuntza gutxituen normalizazioari ezagutza arlo honek egin diezaiokeen ekarpen bat aurkezten dugu hemen, asertibitatearena hain zuzen ere. Asertibitatea hizkuntza normalkuntzaren alde erabili daitekeela erakutsi nahi izan dugu lan honetan,

eta emaitza interesgarriak lor daitezkeela asertibitatea hizkuntza gutxitu baten normalizazioaren alde erabiltzen dugunean.

Lan honetan beraz, Fagor Arrasate Kooperatiban gauzatutako interbentzio baten berri emango dugu. Interbentzioa hizkuntza asertibitatea lantzeko saioetan gauzatu zen eta hurrengo orrialdeetan azalduko duguna interbentzioa bera eta berau sostengatu duen marko teorikoa izango da. Lanak hainbat atal ditu. Lehenengo interbentzioak izan dituen helburuak plazaratuko ditugu. Ondoren lanaren zati nagusia den asertibitatea eta hizkuntzari aplikatutako asertibitatearen marko teorikoa azalduko dugu. Gero Fagor Taldean eta Fagor Arrasaten bereziki euskararen normalizazio ahaleginen berri emango dugu, hemen azaltzen dugun interbentzioa marko sozio historikoan kokatuz. Ondoren interbentzioaren aurrekariak ikusiko ditugu, interbentzioaren iturriak nondik norakoak izan diren azalduz. interbentzioan gauzatutako saioen deskribapena dator gero. Azkeneko atala diskusio eta ondorioei eskaini diogu, bertan proiektu honetan plazaratutako hainbat puntuei buruzko hausnarketarako ideia batzuk azalduko ditugu.

Azkenik eskerrak eman nahi genituzke lan hau egiten lagundu diguten guztioi. Lehenik eta behin lana zuzendu duen Ferran Suayri, bere ekarpenek lana hobetzen lagundu baitute. Bestetik Akuilu taldeen proiektua garatzen lagundu didaten Emuneko lankideei. Eta azkenak aipatzen ditudan arren, garrantzia gutxiago izan ez duten Fagor Arrasateko langileei, Akuilu taldeetan parte hartzeagatik, beraiek gabe proiektu hau ez bailuke aurrera egiteko modurik izango.

## 2. HELBURUAK

Orrialde hauetan aurkeztuko dugun interbentzioa 2008. urtean garatu zen Fagor Arrasate Koop. E.n. Interbentzioaren nondik norakoak aurrerago azalduko ditugu xehetasun osoz, baina lehenik eta behin Akuilu taldeen helburu orokorrak zeintzuk diren eta zertan oinarritzen diren azalduko dugu atal honetan. Bi dira Akuilu taldeen interbentzioa gidatu dituzten helburu orokorrak:

- Euskaltzaleen hizkuntzarekiko kontzientzia sendotzea.
- Euskaltzaleen hizkuntzarekiko koherentzia lantzea

Aurrera egin baino lehenago, egokia iruditzen zaigu bi helburu hauetan agertzen diren kontzeptuen definizioa ematea. Hizkuntza kontzientziari buruz hitz egiten dugunean, pertsona batek bere egiten duen hizkuntzak duen egoeraz jakitun izatea eta normalizatzeko ahalegina egiteko nahiaz ari gara.

Bestalde hizkuntzarekiko koherentziaz ulertzen duguna zera da: pertsona batek bere egiten duen hizkuntza normalizatzeko ahalegina egiteko nahia portaera efektibo bilakatzea. Honekin pertsonak bere egiten duen hizkuntza normalizatua egongo balitz moduan bizitzeko portaeraz ari gara.

Kontzeptuen definizio hauek ikusi eta gero, ikus ditzagun helburu hauen nondik norakoak banan-banan.

### 2.1. EUSKALTZALEEN HIZKUNTZAREKIKO KONTZIENTZIA

#### SENDOTZEA

---

*“Zerk eragiten du gizon batek aharrausi egitean beste batek ere egitea?”*

Robert Burton, *Malenkoniaren anatomia*

Akuilu taldeetan parte hartu zuten pertsonak ez ziren ausaz aukeratu egitasmoan parte hartzeko. Akuilu taldeetan garatuko ziren gaiak lantzeko hizkuntzarekiko kontzientzia nahiko sendoa zuten euskaltzaleak behar genituen. Beraz, lehenengo helburu honetan kontuan hartu beharrekoa da Akuilu taldeak ez zirela hizkuntzarekiko sentsibilizazioa *sortzeari* begira jarritako egitasmo bat, hau da, ez genuen hizkuntzarekiko kontzientziarik ez zuten euskaldunengan kontzientzia sortu nahi, baizik eta jadanik kontzientzia maila bat zuten pertsonekin lan egin nahi genuen. Horregatik ezaugarri

hori betetzen zuten partaideak aukeratu genituen eta beraiekin lan egin genuen Akuilu taldeetan, kontzientzia hori portaera efektiboa bihurtzeko

Jadanik hizkuntzarekiko kontzientzia zuten pertsonekin lan egin behar bagenuen ere, ez genuen baztertu Akuilu taldeetan euskaltzale horien kontzientzia maila hori handitu eta sendotzea. Izan ere, jakin bagenekien hizkuntzarekiko kontzientzia maila ezberdina izan zitekeela Akuilu taldeetarako aukeratu genituen pertsonengan. Batzuen oso sendoa izan bazitekeen ere, beste batzuen, aldiz, maila apalagokoa izan zitekeen. Hizkuntzarekiko kontzientzia sendotzeko, Akuilu taldeetako saioen hasieran partaide bakoitzak bere inguruan jasotako euskararekin lotutako bizipenen berri ematera zuen. Era honetan, partaideek euskarak bizi dituen egoera ezberdinak ezagutu eta horiek beraiengan sortzen zituzten sentimenduak adierazteko aukera zuten. Bestalde euskarak duen lege babesaren inguruko nozio orokor batzuk ere eman genizkien, horien inguruan beraien hausnarketa bultzatuz.

Esan dugun moduan, gai hauen inguruan Akuilu taldeko partaideen hausnarketa eta eztabaida bultzatu nahi genuen, beraien iritziak, sentimenduak, eta abar adierazi zituzten. Era honetan, partaideen inplikazioa bilatzen genuen, taldea pertsonengan aldaketa sortzeko izan dezakeen indarrak baliatuz. Honela, iritzi eta sentimendu ezberdinak partekatuz, hizkuntzarekiko kontzientzia maila apalagoa eduki zezaketen partaideengan eragin nahi genuen. Taldean hizkuntza kontzientzia handiko hainbat partaide zeudenez, beraien eraginez maila apalagoko hizkuntzarekiko kontzientzia zutenek bere kontzientzia maila haztera bultzatzeko baldintzak jartzen genituen. Azken batean taldean lantzen zen gaiarekiko inplikazioak eta taldeak banakoengan izan dezakeen eraginaz baliatu nahi genuelako.

Taldeak banakakoarengan izan ditzakeen eraginaren inguruko oinarri teorikoa psikologia sozialean aski ezagunak diren hainbat esperimentu eta teorietan du abiapuntua. Hauen artean kokatzen da Kurt Lewin psikologo poloniarren lana. Berak zabalduetako bidea eragin handia izan zuen taldeen portaeraren inguruko ikerketan (Lewin, 1973: 518-535; Blanco, Caballero eta De la Corte, 2005: 62). II. Mundu Gerraren eraginez elikadura ohitura aldaketa batzuen beharra zegoen Amerikako Estatu Batuetako biztanlerian eta behi giltzurrunak, arandoiak eta bihotzak jateko ohiturak indartu beharra zegoen. Elikagai hauek, ohituraz ez ziren oso ohikoak Amerikako Estatu Batuetako elikaduran. Aldaketa sozial hori lotzeko metodorik eraginkorrena bilatzeko Lewinek etxeoandre batzuk sei taldeetan banatu zituen. Hiru taldeei dietan hainbat elikagai sartzeko egokitasunaren inguruko hitzaldi batzuk eman zitzaizkien, elikagaiak zituzten bitaminak eta prezio merkea azpimarratuz eta elikagaiak prestatzeko modu ezberdinen berri emanez. Beste hiru taldeekin eztabaida saio batzuk antolatu zituzten eta bertan etxeoandreek gaiari buruz hitz egin eta eztabaidatu zuten, beraien kezkak plazaratuz eta iritzi ezberdinak partekatuz. Eztabaidaren bukaeran etxeoandre hauei eskatzen zitzaien esateko ea eztabaidan agertutako elikagaietako bat probatuko zuten eta elikagai horiek prestatzeko errezeta batzuk ematen zitzaizkien. Esperimentu honen



emaitzak eztabaida taldearen eraginkortasuna nabarmentzen du; hitzaldiak entzun zituzten etxekoandreen artean bakarrik %3k probatu zuen aukeratutako elikagaietako bat. Aldiz, eztabaida taldeetan parte hartu zuten etxekoandreen artean, portzentajea dezente hazi zen, %32 hain zuzen ere. Honenbestez, Blancok, Caballerok eta De la Cortek esaten duten moduan:

*“pertsonek inplikazioa taldean hartzen diren erabakietan erabaki horiekin bat datorren portaera indibiduala errazten du eta desberdintasun indibidualak berdinu egiten ditu.”*

(Blanco, Caballero eta De la Corte, 2005: 64)

Aipamen horietan oinarrituz, esan dezakegu Akuilu taldeetan eztabaida bultzatzeak hizkuntzarekiko kontzientzia maila apalagoa duten taldeko partaideengan kontzientzia handitzea ekar dezakeela.


Taldearen eraginari buruz ikertu duen beste autore ezagun bi ekarri nahiko genituzke orrialde hauetara, Akuilu taldeetan hizkuntzarekiko kontzientzia handitzearen helburuarekin zerikusi handia baitute beraien esperimenduek.

Alde batetik taldearen presioa eta konformitateari buruzko lanak aipatu behar ditugu. Solomon Asch-ek (1907-1996) egindako esperimendu batzuen arabera (Asch, 1955: 31-35; Myers, 2008: 212-213), banakakoek, taldean daudenean, taldearen presiora makurtu eta konformitatez jokatzeko joera dute. Asch-ek antolatutako esperimenduetan, zazpi boluntario elkarrekin gela batean esertzen ziren. Bertan pertzepzioari buruzko esperimendu bat egin behar zutela esaten zitzaaien eta ondoren karta batean marra bat erakusten zitzaaien. Ondoren beste karta batean hiru marra erakusten zitzaizkien. Bigarren marra hauetatik lehenengo kartan ikusitako marraren luzera berbera zein marrak zeukan erantzun behar zuten boluntarioek. Baina zazpi boluntarioetatik sei esperimendatzailearen esanetara zeuden. Lehenengo esperimendatzailearen esanetara zeuden boluntario hauei galdetzen zitzaaien eta erantzuna ematerakoan, okerreko erantzuna ematen zuten. Zazpigarren boluntarioak, subjektu esperimentalak eta esperimenduetan benetako protagonista hain zuzen ere, erabaki bat hartu behar zuten: bere begiek esaten ziotenari men egin eta erantzun zuzena eman ala taldearen presioaren aurrean konformitate portaera erakutsi okerreko erantzuna eman. Zer egin? Datuen arabera erantzunen %37 konformitatezkoak izan ziren. Ondorioz, taldeak banakakoengan eragina izan dezakeela dirudi.



euskararen egoeraren eta beharren kontzientzia bazuen, bere portaera kontzientziarekin bat etortzea zen bilatzen genuena, hau da, kompetentzia eta kontzientzia horrekin koherentea den portaera.

E. Apaolazak dioena jarraituz, portaera koherente hori “*euskara normala balitz bezala bizitzeko erabakia*” (Apaolaza, 2007: 24) da. Konpetentzia, kontzientzia eta koherentziaren arteko harremana hiruki baten moduan irudikatu dezakegu (ikus 2. irudia). Koherentzia goiko erpinean kokatuta dago konpetentzia eta kontzientziaren arteko zubia dela esan baitezakegu. Era berean, kontuan izan beharra daukagu hiru elementuek elkarri elikatzen diotela, horregatik irudian bi norabideko geziak ikus ditzakegu.



2. irudia: Konpetentzia, kontzientzia eta koherentziaren irukia.

Akuilu taldeen interbentzioan hiru elementuak iruditzen zitzaizkigun garrantzitsuak arrakasta lortzeko. Dena den, koherentziak, pertsonen portaeran egikaritzen den heinean, batez ere maila indibidualean eragingo zuela espero genuen. Hala ere beste maila batzuetan ere eragina izatea espero genuen. Hona hemen mailaz maila espero genuen eragina :

1) Maila indibidualean norberak dituen portaera ez koherenteak agerian geratu ondoren, berauek gainditzeko pausoa ematean gauzatuko zena.

2) Pertsonen arteko mailan, norberak egindako hizkuntza erabileraren bidez bere ingurukoengan neurri bateko eragina izango zuen; norberak aukeratutako hizkuntzan (kasu honetan euskara) besteek ere hitz egingo baitzuten neurri handi batean. Bestalde beste eragin bat ere izango zuen akuilu taldeetako partaideen portaerak, askotan ezkutatuta egon den euskararen errealitatea behin eta berriz azaleratuko baitzen euskaraz hitz egiterakoan. Azkenik, beste euskaldun batzuentzat erreferente eta eredu bilakatuko ziren akuilu taldeetako partaideak.

3) Erakunde mailako eraginari dagokionez, erakundeak langileei euskaraz aritzeko ematen dizkien aukerak aprobetxatuko zituztelako, erakundeak egindako hizkuntza politika bizirik mantenduz. Era berean, erakundeak hizkuntza politika sendoago bat sortzeko beharrezkoak izan daitezkeen ohitura aldaketak bultzatuko zituzten eragile hauek.

Akuilu taldeetan parte hartu zuten pertsonen hizkuntzarekiko koherentzia bilatzeak Jose Maria Sánchez Carrión “Txepetx”ek (1987: 375-397) planteatutako hizkuntza baten normalizazio bidearekin lotuta dago. Lan honen asmoa ez da Txepetxen teoriaren nondik norakoak xehetasunez aurkeztea, horretarako irakurleak nahikoa bibliografia aurkitu baitezake (beste batzuen artean: Sanchez Carrión, 1987; Zalbide eta Herize, 2007). Horregatik hizkuntzarekiko koherentziarekin gure ustez lotura dituzten puntu batzuen aipamena egingo dugu modu laburrean bada ere.

Txepetxek, bere hizkuntzei buruzko teoria sozialean, hizkuntza baten normalizaziora edota galbidera daramatzaten mugarrak aurkezten ditu. 3. irudian ikus daitekeenez, erdian haustura puntua agertzen zaigu:



3. irudia Normalizazio ala galerarako ibilbideen mugarrak Txepetxen arabera (1987).

Haustura puntu hau ematen den unean, hizkuntzak bere lurraldean ezagutu duen atzerakada eta menpekotasun harremana irauli egingo da, hizkuntza komunitateak bere baitako giza baliabideak (hiztun taldeena eta hiztunena) bere hizkuntzaren normalizazioaren mesedetan edo zerbitzura jarriko dituelarik. Era horretan hizkuntza komunitatearen trinkotzea emango da, euskaldunak taldeetan bilduko dira, trinkotu egingo dira, hiztun komunitatea berregituratzeko eta lideratzeko. Hori lortzean, komunitateak naturalki dagozkion eskubideak aldarrikatuko ditu, zeinetan lehenengo eta nagusia hizkuntzaren erabilera osoa eta etenik gabekoa da (Sánchez Carrión, 1987: 376).

Hizkuntza baten normalizazioan hain garrantzitsua den haustura puntua den mugari honen protagonistak aitzindarien belaunaldia izango da eta hauen ezaugarri nagusia honakoa da:

*“Aitzindarien belaunaldi baten ezaugarri nagusia beti ondorengoan belaunaldirako lan egiten duela da. Bere interesak sakrifikatzen ditu eta ekintzak duen kostua eta zailtasunak beregain hartzen ditu, hizkuntzaren denbora berriko hurrengo belaunaldiari herentzia linguistiko egonkor eta osoa bermatzera begira.”* (Sánchez Carrión, 1987: 375).

Txepetxen arabera, haustura puntuak, hiru mailatan du eragina: hizkuntza bere osotasunean, talde soziolinguistikoetan eta maila indibidualean. Hirurak beharrezko dira Txepetxentzat, baina guk maila indibidualean zentratuko dugu ikuspuntua, neurri handi batean hori izan baita Akuilu taldeen interbentzioaren eragin esparru nagusia, beste mailetan eragina izatea baztertzeko ez badugu ere, Txepetxen esanetan prozesua bi norabidekoa baita, hizkuntzatik hiztunetara eta hiztunetatik hizkuntzara baitoa talde sozialen bidez.

Akuilu taldeetako partaideen hizkuntzarekiko koherentzia sendotzean Txepetxek aipatzen duen maila indibidual horretan eragin nahi izan dugu batez ere. Hizkuntzarekiko portaera koherente batek euskaldun oso izateko bidean jartzen zituen eta era berean hizkuntza komunitatea normalizazio bidean aitzindariak izango ziren, euskara erabiliz, lan esparruko hizkuntza komunitatea normalizaziorako bidean lider funtzioa betez eta dagozkion hizkuntza eskubideak aldarrikatuz beraien portaerarekin. Horretarako, eta lehen aipatu dugun hizkuntzarekiko portaera koherentearen definiziora bueltatuz, hiztun hauen zeregina izango da hizkuntza normalizatuta egongo balitz moduan jokatzeko.

Baina noski, akuilu taldeko partaideei koherenteak izateko aurrerapausoa eman zezaten animatzerakoan, pertsonarteko hainbat egoeratan zailtasunak egon zitezkeela antzematen genuen. Gure ustetan, zailtasun horiei aurre egiteko eta gainditzeko estrategiak eta baliabideak ematea beharrezkoa zen. Horri dela eta, Akuilu taldeetan asertibitatea eta hizkuntza asertibitateak ematen dituen baliabideak protagonismo nagusia izan zuten. Horretaz luzeago jardungo dugu lan honen hurrengo atalean.

## 3. KOKAPEN TEORIKOA: HIZKUNTZA ASERTIBITATEA

Aurreko atalean azaldu ditugun helburuak betetzeko, Akuilu taldeetan parte hartu duten pertsonen estrategia konpartitu bat eman nahi genien. Interbentzioaren ondorioz partaideek hizkuntzarekiko koherentzia handiagoz jokatu zuten, baina garrantzi berezia eman nahi izan genion helburua lortzeko moduari buruz. Azken batean partaideek egoera batzutan euskara gehiago erabiltzean, tentsioa eta pertsonarteko gatazkak sor zitezkeen. Horregatik guztiagatik interbentzioaren muina partaideei hizkuntza koherentzia handiagoz jokatzeko *modu* bat ematea izan da. Sor zitezkeen tentsio eta gatazkei aurre egiteko modu egoki bat. Era honetan Akuilu taldeetako partaideei estrategia konpartitu bat eman zaie hizkuntza koherentziaz jokatzeko eraginkorrak izateko. Estrategia konpartitu hori trebetasun sozialen barruan kokatzen den asertibitatea izan da. Kasu honetan, hizkuntzari aplikatutako asertibitatea hain zuzen ere. Atal honetan beraz, lehenengo asertibitateari buruz hitz egingo dugu eta ondoren hizkuntza asertibitateari buruz eta nola aplikatu berau hizkuntza minorizatu baten normalizaziorako eragiletzara.

### 3.1. ASERTIBITATEA

*“Pentsamendu eta iritzien komunikazio askea  
gizakiaren eskubide preziatuenetakoa da”*

François de La Rochefoucauld

#### 3.1.1. Kontzeptuaren definizioa eta jatorria

Asertibitatea, kontzeptu gisa, nahiko berria da eta trebetasun sozialen kontzeptuarekin lotura estua du. Bi kontzeptu hauek psikologia sozialaren arloan sortu ziren XX. Mendearen erdialdean, baina benetan ezagunak 1990. hamarkadan egin ziren. Bi kontzeptuak jokabide-terapiaren menpean sortu ziren eta ikuspuntu prebentiboa izan zuten hasieran. Asertibitatea, kontzeptuaren hastapenetan, pertsonen arteko harremanetan jarrera eta espresio batzuek izan zitzaizketen efektu eta ondorio negatiboak saihestera bideratuta zegoen. Trebetasun sozialen eremu zabalaren alderdi txiki bat bezala ikusten zen eta trebetasun sozialak portaera sozialetan gabeziak zituzten pertsonen zuzenduta zeuden (Bach eta Forés, 2008: 249-250).

Trebetasun sozialen eta asertibitatearen kontzeptuak eboluzionatu egin dute eta gaur egun beraien eremua hasieran baino handiagoa da. Trebetasun sozialak biztanle guztientzako zabaldu dira, ez bakarrik moldegabezi soziala edo portaera arriskutsuak dituztenentzat, gaur egun pertsona arteko adimena eta adimen soziala besteekin harreman armoniatsu eta positiboak lortzeko konpetentzia gako bezala ikusten baitira. Era honetan asertibitatea komunikazio eraginkor eta, era berean, afektiborantz bideratzen da.





253). Ikus daitekeenez kontzeptuak oraindik ez zuen ondorengo urteetan hartuko zuen zentzu murriztailea. 1978 urteetan beste bi autorek, Alberti eta Emmons honela definitu zuten:

*"pertsonak beraien interesen alde jokatzeko, antsietaterik gabe defendatzeko, sentimendu zintzoak erosotasunez adierazteko edo beraien eskubide pertsonalak egikaritzeko gaitu egiten dituen portaera baina besteen eskubideak urratu gabe."* (Bach eta Forés, 2008: 253-254)

Bi autore hauek asertibitatearen kontzeptua eskubide pertsonalekin lotu zuten. Hurrengo urteetan egingo ziren definizioetan eskubideen gaia behin eta berriz agertuko zen.

Lazarus-ek, 1971an, asertibitatea askatasun emozionalarekin lotu zuen, asertibitatea zera zela esanez:

*"eskubide pertsonalak defendatu eta pentsamendu, emozio eta usteak modu zuzen, zintzo eta egokian adieraztea, beste pertsona baten eskubideak urratu gabe."* (Bach eta Forés, 2008: 254)

Hainbat autorek asertibitatearen definizioa ematerakoan auto-estimuekin ere lotu dute. Honela egin zuten Seligman eta Kelley-k (1979), asertibitatea era honetan definituz:

*"auto-estimua eta auto-konfiantza garatzera bideratutako trebetasuna. Pertsona asertibo bat modu ireki eta zintzo batean komunikatzen da, bere buruarengan sinisten du eta kritika bati eraso egin gabe erantzuteko gai da auto-estimua duelako."* (Bach eta Forés, 2008: 254)

Walter Riso-k (1988), jarritako helburua lortzearekin ere lotzen du asertibitatea eta lehen aipatu ditugun portaeraren hiru mailak (pentsamenduak, kanpo portaera eta emozioak) kontuan hartzen ditu bere definizioan:

Walter Riso (1988): *"Pertsonari oposizioa (ezetz esatea, desadostasunak adieraztea, kritikak egin eta jasotzea, eskubideak defendatzea eta sentimendu negatiboak oro har adieraztea) eta afektua (laudorioak eman eta jasotzea, sentimendu positiboak oro har adieraztea) modu egoki batean adieraztea (distorsio kognitiborik edo antsietaterik gabe eta hitzezko eta ez hitzezko osagaiak ahal den modu efektiboenean konbinatuz) ahalbidetzen dion portaera, bere interes eta helburuekin bat etorriz, besteen eskubidea errespetatuz eta jarritako xedea lortzen saiatuz.* (Restrepo Sanchez, 2000)



### 3.1.2. Estilo ez-asetiboa, erasokorra eta asetiboaren ezaugarriak

#### a) Pertsona ez-asetiboa

Pertsona ez-asetiboak ez ditu bere eskubide eta interes pertsonalak defendatzen. Beste pertsonak errespetatzen ditu baina ez bere burua.

Terapia kognitiboaren hiru maileri erreparatuz, honako ezaugarriak ditu mota honetako pertsonak:

#### **Kanpo portaera:**

- Ahotsaren bolumena baxua / hitz-jario eskasa / blokeoak/ totelaldiak / zalantzak / isiluneak / hizkuneak (zeraa...ez?)
- Begiz-begiko harremanari ihes egin / begirada baxua / aurpegi tenkatua / hortzak estututa edo ezpain dardaratsuak / esku urduriak / azazkalak jateko ohitura / gorputz-jarrera tenkatua, deserosoa
- Zalantzak zer egin edo zer esan erabakitzerakoan
- Kexa ugari hirugarren pertsoneri ("*X-ek ez nau ulertzen*", "*Eta berekoi bat da eta nitaz aprobetxatzen da*"...)

#### **Pentsamendu ereduak:**

- Uste dute horrela jokatzuz besteak ez dituztela molestatuko edo minduko. Pertsona "sakrifikatuak" dira.
- "*Nik sentitu, pentsatu edo desio dudanak ez du garrantziarik. Zuk sentitzen, pentsatzen edo desio duzunak du garrantzia*"
- "*Behar-beharrezkoa da jende guztiaren maitasuna eta estimua izatea*"
- Ez-ulertua, manipulatu, kontuan ez hartua izatearen sentsazio etengabea

#### **Sentimenduak/emozioak:**

- Ezintasuna / energia mental handia, kanpo energia urria / erruduntasun sentimenduak askotan / autoestimua baxua / maltzurkeri emozionala (erasokor edo etsaigo sentitu daitezke, etab. baina ez dute adierazten eta, batzuetan, ez dute aitortzen beraien buruaren aurrean ere ez) / antsietatea / frustrazioa.

Portaera mota hauen inguruan dituzten pertsonengan eta giroan eragiten dute. Epe luzera, pertsona ez-asertiboek portaerak dituen ondorioak izaten dira autoestimua galera, beste pertsonen estimua galera (batzuetan) eta besteen errespetu falta.

Pertsona ez-asertiboak besteak errudun edo maila gorago batean daudela sentiarazten ditu; beste pertsona nolakoa den arabera, pertsona ez-asertiboarekin beti zorretan dagoen sententzia izango du (“hain ona da...”), edo bera baino maila gorago batean dagoela pentsatuko du eta bere “borondate ona” baliatzeko gaitasuna duela.

Pertsona ez-asertiboek batzuetan arazo somatikoak izaten dituzte, beraien iritzi eta nahiak ez adierazteagatik sufritzen duten tentsioa adierazteko modu bat izaten da. Beste batzuetan, pertsona hauek neurri gabeko modu erasokor batean eztanda egiten dute. Eztanda hauek kontrolik gabekoak izaten dira, trebetasun sozialen bidez adierazi ez den tentsioaren metaketa baten ondorio izaten baitira.

## b) Pertsona erasokorra

Bere eskubide eta interes pertsonalak gehiegi defendatzen ditu, beste pertsonenak kontuan hartu gabe. Batzuetan, ez ditu benetan kontuan izaten, bestetan, aldiz, egoera batzuei aurre egiteko trebetasunen gabezia izaten du.

### **Kanpo portaera:**

- Ahotsaren bolumena altua / batzuetan: hitz-jario eskasa modu azkarregian hitz egiteagatik / modu erabatekoan hitz egiten du / etenaldiak / irain eta mehatxuen erabilera
- Desafiozko begiz-begiko harremana / aurpegi tenkatua / esku tenkatuak / bestearen espazioa inbaditzen duen gorputz-jarrera
- Kontraerasora jotzeko joera

### **Pentsamendu ereduak:**

- *“Orain nik bakarrik dut garrantzia. Zuk pentsatu edo sentitzen duzunak ez du interesik niretzat”*
- Uste du modu horretan jokatzeko ez badu zaurkorregia dela
- Dena irabazi-galdu terminoetan kokatzen du
- Honako uste hauek eman daitezke: *“zigorra merezi duen jende gaiztoa dago” edota “Ikaragarria da gauzak nik nahi bezala ez irtetea”*

### **Sentimenduak/emozioak:**

- Antsietate hazkorra
- Bakardadea / ez ulertua izatearen sentsazioa / erruduntasuna / frustrazioa
- Autoestimua baxua (bestela ez litzateke horrenbeste defendituko)
- Kontrol ezaren sentsazioa
- Geroz eta etengabekoagoa den haserrea eta geroz eta pertsona eta egoera gehiagotara hedatzen dena
- Zintzotasun emozionala: sentitzen duena adierazten du eta *“ez du inor engainatzen”*.

Pertsona ez-asertiboaren kasuan bezala, pertsona erasokorren portaerak ondorio batzuk ditu: normalean beste pertsonak baztertu egiten dute edota berarengandik ihesi ibiltzen dira. Bestalde “gurpil zoroaren” portaera izaten dute, besteak geroz eta kontrakoago izatera bultzatzen baititu eta horrela bere oldarkortasuna handitu egiten da.

Portaera mota hau erakusten duten pertsona guztiak ez dira benetan erasokorrak barnean: portaera erasokorra eta desafiozkoa askotan defentsa bat da besteen erasoaren aurrean zaurkorregi sentitzeagatik edota tentsiozko egoerei aurre egiteko trebetasun faltagatik. Beste batzuetan portaera hau bai izaten da pentsamendu eredu zurrun edo iritzi oso erradikalen (mundua on eta txarretan banatu) ondorio.

Ohikoa izaten da ere estilo pasibo-erasokorra: pertsona isila eta ez-asertiboa bere kanpo portaeran, baina bere pentsamendu eta usteetan erresumin dosi handiak dituen. Pentsamendu hauek adierazteko modu asertibo ala erasokor bat menperatzen ez duenez, pertsona pasibo-erasokorrek zeharkako metodoak erabiltzen ditu: ironiak, sarkasmoak, zeharkakoak, etab. Hau da, beste pertsona gaizki sentitu dadin saiatzeko da, baina bera horren errudun agertu gabe. Hau guztia egoerei beste modu batean aurre egiteko trebetasun faltaren ondorio da.

Modu asertiboan jokatzeko ez dakiten pertsonen portaera, pentsamendu eta sentimenduak ikusi eta gero, tentsio egoera baten aurrean erantzuteko lau erak azalduko ditugu labur-labur:

#### **1. Blokeoa:**

Kasu honetan ez dago portaerarik, pertsona paralizatuta gelditzen da. Pentsamenduaren arloan batzuetan ez da pentsamendu argirik egoten, pertsonak gogamena zuri izaten du; beste batzuetan pertsonak bere buruari mezu antsiogeno eta errepikakorrek bidaltzen dizkio: *“zerbait esan behar dut”*, *“hau geroz eta okerragoa da”*, *“Eta orain zer egingo dut?”* etab. Normalean erantzun mota honek antsietate handia sortzen du pertsonarengan eta zerbait ikaragarria eta gaindiezina izango balitz bezala bizi izaten da.

## 2. Gainadaptazioa:

Subjektuak bestearen nahia zein izan daitekeen pentsatzen duenaren arabera erantzuten du. Bere pentsamendua beste pertsonak espero duen horretan zentratuta dago: *“irribarre egin behar diot”, “nire iritzia esaten badiot, haserretu egingo da”, “arrazoia ematea nahiko du?”*. Erantzun mota hau pertsona ez-asertiboetan ohikoenetarikoa izaten da.

## 3. Antsietatea:

Portaeran toteldura, izerdia, eskuak bihurtzea, mugimendu estereotipatuak eta abar agertzen dira. Pentsamenduaren arloan, honelakoak agertzen dira: *“harrapatu nau”, “eta orain zer esango dut?” “nire burua justifikatu beharra daukat”, eta abar*. Pertsonak bere buruari jokatzeko instrukzio azkarrak ematen dizkio, baina hauek antsietate karga handia izaten dute. Bete batzuetan, pertsonak ezin du ezertan pentsatu blokeatuta dagoelako eta, orokorrean, ez du egoerari aurre egiteko beste erantzunik emango. Portaera modu honek mailak dauzka, egoerari aurre egiten dion erantzun zuzen batetik hasita, nahiz eta barne eta kanpo urduritasuna egon, blokeo egoera arte, zeinetan pertsonak ematen duen erantzun bakarria antsietatea den.

## 4. Erasokortasuna:

Portaera arloan, ahots tonu altua, danbategoak, irainak eta abar ematen dira. Pentsamentuari dagokionez, honelakoak agertzen dira: *“Jada ezin dut gehiago jasan”, “hau jasangaitza da”, “zerbait esan behar diot halabeharrez”, “honek uste du ni leloa naizela”*. Portaera mota hau, batzuetan, antsietatearenaren ondorengoa da. Pertsona hain antsiatu sentitzen da eztanda egin behar izaten duela, gainera egoeratik onik irteteko ideiarekin.

### **c) Portaera asertiboa**

Asertibitate gabezia erakusten duten bi portaerak ikusi eta gero, ikus dezagun, orain, asertiboa den pertsonak zer pentsatu eta sentitzen duen. Noski, ezaugarri guztiak dituen pertsona bat aurkitzea oso zaila da; lehenago deskribatu ditugun ez-asertibo eta oldarkor tipoekin bezala, orain aurkeztuko ditugun ezaugarriak abstrakzioak dira. Pertsona batzuk gehiago hurbilduko dira pertsona asertibo idealera eta teknika egokien bidez eredu horretara ahalik eta gehien hurbiltzea posible da, baina ez dugu profil osoa aurkituko, inor ez baita perfektua.

Pertsona asertiboak bere eskubideak ezagutzen eta defendatzen ditu, besteak errespetatuz, hau da, bere helburua ez da irabaztera joatea baizik eta adostasun batera heltzea.

### **Kanpo portaera:**

- Hitz jario egokia / segurtasuna / blokeo edo hizkunerik ez / zuzeneko begiz-begiko harremana, baina ez desafiozkoa / gorputz-erlaxazioa / gorputz jarrera eroso
- Sentimendu positibo eta negatiboen adierazpena / oldarkortasunik gabeko defentsa / zintzotasuna / bere interes eta gustuei buruz hitz egiteko gaitasuna / iritzi desberdina izateko eta argi erakusteko gaitasuna / azalpenak eskatzeko gaitasuna / “ez” esateko gaitasuna / akatsak onartzea

### **Pentsamendu ereduak:**

- Beretzat eta besteentzat eskubide batzuk daudela jakin eta berauetan sinisten du.
- Bere usteak normalean “arrazionalak” dira

### **Sentimenduak/emozioak:**

- Autoestimu ona / ez da besteak baino ez gutxiago ez gehiago sentitzen / harreman asebetek ditu / norberekiko errespetua
- Kontrol emozionala izatearen sentsazioa.

Kasu honetan ere, portaera asertiboak ondorioak izango ditu ingurunean eta besteen portaeran: erasotzen dion pertsona gelditu eta desarmatzen du, gaizkiulertuak argitzen ditu, besteak errespetatuak eta baloratuak sentitzen dira eta pertsona ona bezala ikusten dute (baina ez lelo moduan).

Honetaz gain, komunikazio asertiboan kontuan hartu behar dira ez-hitzezko osagaiak ere, hau da, keinuak, begiradak, gorputz jarrerak. Ez-hitzezko komunikazioa ezinbestekoa da bi pertsonen arteko komunikazioan. Hitzez hitz egiten ez bada ere, aurpegi eta gorputzaren bidez mezuak helarazten dira. Honen harira, interesgarria da aipatzea Albert Mehrabianen arabera, mezu batek duen inpaktuaren %55 gorputzaren mugimenduei dagokiola, batez ere aurpegi-espresioari. %38a ahotsaren arloari dagokio (bolumena, tonua, erritmoa etab.) eta hitzezko faktoreari, hau da hitzei, bakarrik %7a dagokie (Salmurri, 2004: 125). Hortaz ez-hitzezko komunikazioak garrantzia itzela du edozein komunikaziotan.

Mezu bat modu sozialki trebe edo asertibo batean helarazteko, ez-hitzezko osagaiak hitzez esandakoarekin bat etorri behar dira. Pertsona ez-asertiboek batzutan ez dituzte portaeraren hitzezko eta ez-hitzezko osagai egokiak menperatzen eta ez dituzte modu bateratuan, hau da inkongruentziarik gabe, erabiltzen. Romano eta Bellack-ek egindako ikerketa batean portaera asertibo bat ebaluatzerako garaian, hitzez emandako mezuarekin gehien lotzen ziren ez-hitzezko portaerak gorputzaren jarrera, aurpegiaren espresioa eta doinuera ziren (Castanyer, 2002: 36).

Pertsona asertiboek mezu bat modu asertiboan komunikatzen dutenean agertzen dituzten ez-hitzezko portaeren artean hauek aurkitu ditzakegu:

- Pertsona asertiboek begietara gehiago begiratzen dute hitz egiten duten bitartean, pertsona ez-asertiboek baino.
- Bere aurpegi-espresioa transmititu nahi duen mezuarekin bat dator, hau da, esan nahi duen mezura egokitzen du.
- Orokorrean gorputz-jarrera hurbil eta zuzena izaten du, beste pertsonari aurrez aurre begiraturaz.
- Agertuko dituen keinuak desinhibituak izaten dira. Hitz egiten duenaren partetik zintzotasuna, norberekiko konfiantza eta naturaltasuna adierazten duten keinuak dira.
- Osagai paralinguistikoei erreparaturaz, bolumena transmititzen den mezuarekin bat etorriko da; tonua uniforme eta ondo modulatuak izaten da, segurtasunean oinarrituta; hitz-jario egokia izaten du, nahiz eta batzuetan etenak, errepikapenak eman, baina betiere normaltasunaren mugen barnean; argitasunez hitz egiten du eta abiadura egokian, ez azkarregi ez motelegi.

### 3.1.2. GIZA ESKUBIDE ASERTIBOAK:

Orain arte ikusi dugun bezala, asertibitateak lotura estua du norberaren eskubideak defendatzearekin. Autore desberdinek emandako definizioetan behin eta berriz errepikatzen den ideia da. Askotan eskubide horiek ez dira ezagutzen eta horrek pertsona modu ez-asertiboan jokatzera bultzatzen du. Batzuetan jasotako hezkuntza izan daiteke umeengan eredu ez-asertiboa bultzatzen duena. Era berean, komunikabide eta agente sozialek askotan eredu erasokorra transmititzen diote gizarteari, erasokorra izan eta besteen gaintetik egotearen garrantzia azpimarraturaz. Horren guztiaren ondorioz, pertsonak ikasten dutena zera da: besteen iritziaren menpe egon behar direla, edota ematen duten itxuraren menpe, autoestimua beraien lorpen eta beraiekiko errespetuan oinarritu beharrean. Mundua irabazle eta galtzaile edota goian daudenak eta behean daudenen arabera klasifikatzen dute, besteak berdintasun maila batean ikusi beharrean. Azken batean, pertsona guztiek dituzten eskubide asertiboak alboratu egiten dira (Castanyer, 2002: 46-47).

Asertibitatearen gaia jorratu duten autore askok eskubide asertibo hauen zerrendak jasotzen dituzte. Autore bakoitzaren joeren arabera desberdintasun batzuk aurkitu badaitezke ere, aurkezten diren eskubide asertibo hauen artean parekotasun handiak ikus ditzakegu. Hori dela eta guk autore batzuek egindako eskubideen zerrendetatik hainbat eskubide aukeratu ditugu eta eskubide asertiboen zerrenda bat osatu dugu. Hona hemen:



1. Nire portaera justifikatzeko arrazoiak edota aitzakiak ez emateko eskubidea
2. Errespetuz eta duintasunez tratatua izateko eskubidea
3. Sentimendu eta iritziak izan eta adierazteko eskubidea
4. Entzuna eta seriooki hartua izateko eskubidea
5. Nire beharrak juzgatu, nire lehentasunak ezarri eta neure erabakiak hartzeko eskubidea
6. "EZ" esateko eta errudun ez sentitzeko eskubidea
7. Nahi dudana eskatzeko eskubidea, nire solaskideak ere "ez" esateko eskubidea duela konturatuz
8. Aldatzeko eskubidea
9. Akatsak egiteko eskubidea
10. Informazioa eskatu eta informatua izateko eskubidea
11. Ordaindu dudana jasotzeko eskubidea
12. Asertiboa ez izateko eskubidea
13. Independentea izateko eskubidea
14. Nire lehentasun, gorputz, denbora eta abarrekin zer egin erabakitzeko eskubidea, beste pertsonen eskubideak urratzen ez diren bitartean
15. Arrakasta izateko eskubidea
16. Gozatzeko eta disfrutatzeko eskubidea
17. Atsedenerako, bakartzeko eskubidea (asertiboa izanez)
18. Nire burua hobetzeko eskubidea, besteak gaindituz bada ere
19. Edozein kritika edo gaizki sentiarazten nauen tratugatik kexatzeko eskubidea
20. Norbaiti hitza moztu eta gauzak argitzeko eskatzeko eskubidea
21. Lasaitzeko eta pentsatzeko denbora hartzeko eskubidea
22. Nire buruarekin ondo sentitzeko eskubidea
23. Nire eskubideak erreklamatzeko eskubidea
24. Naizen bezalakoa izateko eskubidea

Eskubide hauek ezagutzea garrantzitsua da portaera asertibo bat izan ahal izateko. Lehentxeago aipatu dugun moduan portaera ez-asertiboak ikasi egiten dira eta horrek jarrera eta ideia horiek zalantzan jarri behar dira modu asertiboan jokatu ahal izateko eta beste pertsonekin harreman egoki bat lortu ahal izateko. Manuel J. Smithen esanetan:

*“Gure eskubide asertiboek giza harreman guztietan norbanako bakoitzaren parte hartze osasuntsurako oinarritzko egitura osatzen dute. Eskubide asertibo individual hauek osatzen duten egituraren gainean eraikitzen ditugu pertsonen arteko konexio positiboak, hala nola, konfiantza, ulermena, afektua, intimitatea eta maitasuna”.* (Smith 2008: 51)

### 3.1.3. Asertiboa izateko teknikak

Lehenago aipatu dugun moduan, portaera asertiboa (ez asertiboak bezalaxe) ikasitako portaera bat da. Horren arabera asertiboa izaten ikasi daiteke, beraz pertsona guztien esku dago asertiboagoa izatea. Ikasketa prozesu horretan garrantzitsua kontuan izan beharko ditugu portaeraren oinarri diren hiru mailak: kognitiboa, emozionala eta motorra. Portaera asertiboa ez ematearen arrazoia hiru maila horietako zeinetan zentratzen den jakinda, teknika mota desberdinak erabil daitezke. Guk atal honetan Olga Castanyerrek (Castanyer, 2002: 69-113) aurkeztzen dituen teknika moten inguruko azalpen laburra emango dugu, baina noizean behin beste autore batzuek egindako ekarpenak ere jasoko ditugu. Geroago ikusi ahal izango dugunez, Akuilu taldeen interbentzioak orain aurkeztuko ditugun teknika batzuetatik edan izan baitu.

Genion bezala, funtzionamendu maila bakoitza kontuan hartzen duten teknika motak aurkitu ditzakegu:

- Berregituraketa kognitiborako teknikak: portaera arazoaren muina maila kognitiboan kokatzen denerako.
- Trebetasun sozialetan trebatzea: arazoa komunikazio egokia izateko trebetasun sozialen gabeziak eragindakoa da, maila motorrean zentratzen delarik batez ere
- Antsietatea murrizteko teknikak: gehiegizko antsietatea denean portaera desegokia ematearen arrazoi nagusia, hau da maila emozionalaz ari garenean hain zuzen ere.

Kasu gehienetan hiru maila hauen nahasketa baten ondorioz ematen da portaera desegokia edo ez-asertiboa, baina beti dago faktore bat pisu handiagoa duena eta horregatik arazoi aurre egiterakoan horretan indar handiagoz eragin beharra dago.

## Berregituraketa kognitiborako teknikak

Teknika hau terapia kognitiboan beste edozein prozesu terapeutikoan erabiltzen da. Bost urratsetan banatuta dago:

### **a. Usteek norberarentzat duten garrantziaz kontzientziatu:**

Hasieran azaldu dugun bezala teoria kognitiboan berebiziko garrantzia hartzen dute pentsamendu patroiek portaera azaltzerakoan. Horren arabera, pertsonaren barnean sustraituta dauden usteen eraginez ikusten du pertsonak errealitatea (baikorrago, ezkorrago,...) eta horrek eragingo du gertaeren aurrean sentimendu batzuekin edo besteekin erreakzionatzea.

Lehenengo pauso honen xedea ideia irrazionalak norberarengan duten eraginaz ohartaraztea da. Asertibitate arazoei aplikatzerakoan, urrats honetan azalpen teorikoak ematen dira uste irrazional horien indarrak eta pentsamendu patroia berriak ikasteak portaeran izango duen eragin positiboaz ohartarazteko.

### **b. Norberaren pentsamenduak kontziente egin autoerregistroen bidez:**

Teknikaren fase honetan pertsonak auto-behaketa bidez bere bizitzan dituen pentsamenduetaz kontziente egiten da. Aste batzuetako lana izaten da eta denborarekin pertsona gero eta kontzientzia handiagoa hartzen du gaizki sentitzen denean zer pentsatzen duen. Autoerregistro sistema honetan jaso beharrekoa egoera zehatza, pertsonak izandako portaeran, pentsatu duena eta sintoma fisikoak izaten dira.

### **c. Pentsamenduak aztertu, horien atzean ezkututzen diren ideia irrazionalak detektatzeko:**

Pertsona asertibo, ez-asertibo eta erasokorraren ezaugarriak azaldu ditugunean, bakoitzak dituen uste eta eskema mentalen berri eman dugu. Aipatu beharrekoa da eskema mental hauekin lotura duela Albert Ellis psikologo estatubatuarrak sortutako Ideia Irrazionalen zerrenda. Labur esanda, ideia hauek pertsona guztietan sustraituta dauden ideiak dira eta horregatik ez da beharrezkoa egoera bakoitzaren aurrean nola jokatu ala pentsatu planteatzea, baizik eta pentsamendu automatikoen moduan irteten dira azkar-azkar, eta pertsonak ez badu ahalegin kontziente bat egiten ez da konturatuko ideia horiek dituenik. Ellisen esanetan denok ditugu ideia hauek neurri handiago ala txikiago batean. Irrazionalak deitu zituen ez diotelako logika bati erantzuten eta ez direlako objektiboak. Hona hemen Ellisen ideia irrazionalen zerrenda Isabel Caroren (2007: 99-100) liburutik hartuta:

1. Gizaki heldu batentzat behar-beharrezkoa da bere komunitateko pertsona adierazgarri ia guztiengatik maitatua eta onartua izatea.

2. Baliagarria izateko, norbera oso konpetentea izan behar da eta eta edozer gauza egiteko gai.
3. Jende mota bat txarra eta arbuiagarria da eta erruduntzat jo behar dira eta beraien maltzurkeriagatik zigorra jaso behar du.
4. Oso gauza txarra eta katastrofikoa da gauzak norberak nahi duen moduan ez irtetea.
5. Gizakiaren zoritxarra kanpo arrazoen ondorio da eta jendeak bere disgustu eta trastornoak kontrolatzeko ez dauka aukerarik, edo aukera oso gutxi du.
6. Zerbait arriskutsua edota beldurgarria izan badaiteke, kezka handia izan behar da horri buruz eta gertatzeko dauden aukerei buruz etengabe pentsatu behar da.
7. Errazagoa da zailtasun edo erantzukizun pertsonal batzuk saihestea beraiei aurre egitea baino.
8. Beti behar dugu gu baino indartsuagoa den norbait berarengan konfiantza izan ahal izateko.
9. Iraganean norberari gertatutakoa gaur eguneko portaera zehaztu dezake neurri handi batean eta zerbaitek eragin handia izan badu guregan, etengabe eragiten egongo da.
10. Norberak besteen arazoetaz etengabe kezkatuta egon behar du.
11. Beti dago konponbide egoki, zuzen eta bikaina gizakien arazo guztientzat eta konponbide hau lortzen ez bada katastrofea etorriko da.
12. Norberaren existentziarako garrantzi handia dauka beste pertsonak egiten dutena, eta ahalegin handiak egin behar dira besteek guk nahi dugun norabidean joan daitezen.

Berregituraketa kognitiboaren hirugarren pauso honetan pentsamendu automatikoak aztertzen dira eta ondoren horien atzean dauden ideia irrazionalak aurkitu nahi izaten da. Ideia horiek duten logikari (edo logika faltari) buruz eztabaidatzen da. Ideia automatiko eta ideia irrazional horiek detektatu ahal izateko baliagarriak izaten dira autoerregistorako fitxak.

#### **d. Pentsamendu irrazionalen alternatiboak diren pentsamenduak aukeratu.**

Fase hau pertsonarentzat egokiak izan daitezkeen pentsamenduen bilaketa fase bat da, ez ikasketa eta ohitura hartzeko fasea. Pertsonari kalte egiten dioten ideia irrazional horien ordeko izango diren ideia arrazional eta logikoak bilatu behar dira. Funtsezkoa da ideia berri horiek errealistak izatea. Fase honetan ere erregistroak betetzen dira, ezinegona sortzen duten pentsamenduak aztertzeko eta pentsamendu alternatiboak sortzen dira. Ondoren efikazak eta inefikazetan banatzen dira eta poliki-poliki pertsona ohartuko da zeintzuk diren baliagarrien suertatzen zaizkionak.

**e. Aukeratutako pentsamendu alternatiboak eguneroko bizitzan aplikatu.**

Honakoa azken fasea da eta aukeratutako pentsamenduak praktikara eramatean datza. Horretarako jarraikortasuna behar da, pertsona oso ohitua egoten baita modu ilogikoan pentsatzera eta argumentu irrazionalak modu automatikoan agertzen baitira. Behin eta berriz insistitu beharra dago argumentu arrazaionaletan hasieran egoera mingarria gertatu eta gero (errepasso moduan) eta ondoren, ideia arrazionalak finkatuago daudenean, egoera mingarriak gertatzen diren momentu berean. Fase honetan laguntza moduan irudimen eta bisualizazio ariketak erabiltzen dira.

<b>Trebetasun sozialetan trebatzea</b>
--

Trebatze mota hau subjektuaren portaeran bakarrik eragitera begira dago, hau da asertibitate arazoak dituen pertsonaren kanpo portaera garatzera. Gehienetan (beti ez esateagatik) lehenengo eremu kognitiboan interbentzio bat egin behar da eta ondoren portaerako trebetasun hauetan trebatu. (Castanyer, 2002: 95).

Trebetasun asertiboetan trebatu nahi duen pertsonak, lehendabizi jakin behar duena da ze portaera mota diren egokiak, asertiboak, eta ondoren portaera mota horiek entseatu behar izaten dira rol-playing bitartez. Rol-playing teknikarekin egoera batzuen aurrean ikasitako portaera asertiboak antzetzen dira, ez-hitzezko portaeran ere erreparatuz. Hurrengo lerroetan portaera asertiboaren oinarritzko moldeak ikusiko ditugu:

**1. Erantzun asertibo motak.**

**ASERTIBITATE POSITIBOA:**

- **Beste pertsonetan ikusten diren gauza on eta baliotsuen adierazpen egokia:** portaera mota hau errazenetarikoa da, pertsonak ez baita ezeren aurrean defendatu behar eta ez da beste batek esandako zerbaiti eman beharreko erantzun bat, ez da inprobisatu behar beraz. Asertibitate positiboa beste pertsonaren ezaugarri positiboren bat modu egokian adieraztea baino ez da, adibidez: *“aurreko egunean esan zenuena asko gustatu zitzaidan”*.

**OINARRIZKO ERANTZUN ASERTIBOA:**

- **Norberaren interes eta eskubideen adierazpen argi eta garbia:** erantzun asertibo mota hau hitz egiterakoan norbaitek hitza kentzen digunean edota beheratu egiten gaitzuztenean erabili behar da. Pertsona bakoitzak bere estiloa aurkitu behar badu ere, garrantzitsuena ahots tonu tinko eta argiz, baina ez erasokorraz, egitea da. Adibide

batzuk: *“Ez dut hitz egiten bukatu eta bukatu nahi nuke”, “Ez niri oihukatu, nik ez dizut oihukatu”.*

#### ERANTZUN ASERTIBO ENPATIKOA:

- **Hasieran beste pertsonarekiko errekonozimendua transmititu eta gero gure eskubide eta interesak adierazi:** Erantzun mota hau erabiltzen da beste pertsona minduta sentitu barik geure burua defendatu nahi dugunean. Atake erasokor bat gelditzeko modu ona da lehenengo beste pertsonaren tokian jartzean baitatza eta gero bakoitzaren eskubideak defendatzean. Adibidez: *“ulertzen dut denboraz estu zabiltzala eta nire apunteak ezin dizkidazula itzuli, baina biharko behar ditut nahi eta nahiez”;* *“ulertzen ditut zure arrazoiak, eta zure ikuspuntutik arrazoia duzu, baina jarri zaitez nire tokian eta saiatu ni ulertzen”.*

#### GORANZKO ERANTZUN ASERTIBOA:

- **Erantzun asertiboaren tinkotasuna modu gradualean handitu:** beste pertsonak ez dienean kasu egiten gure asertibitate saiakerei eta gure eskubideak behin eta berriz kontuan hartzen ez dituenen, beharrezkoa da modu gradual batean hasierako erantzun asertiboaren tinkotasuna handitzea. Adibidez: *“mesedez, ez niri hitza kendu”... “Lehen hitza ez kentzeko eskatu dizut”... “Begira, hitza kentzen didazu eta ezin dut hitz egin!”... “Hitz egiten buka dezaket ala ez didazu utziko?”* etab.

#### ASERTIBITATE SUBJEKTIBOA:

- **Bestearen portaera deskribatu, gaitzetsi barik**
- **Bestearen portaerak duen eraginaren deskripzio objektiboa**
- **Norberaren sentimenduak deskribatu**
- **Bestearengatik nahi dena deskribatu**

Erantzun mota hau besteak gu mintzeko asmo kontzienterik izan ez duenean erabiltzen da. Erantzun egokia da ondo aplikatuz gero beste pertsonak ezingo duelako esan eraso egin diogula. Erantzunaren eskema honakoa izango litzateke:

- a) *“Zuk hau egiten duzunean...”*
- b) *“Ondorioz nik...”*
- c) *“Orduan ni honela sentitzen naiz...”*
- d) *“Nahiago nuke...”*

ERANTZUN ASERTIBOA EZ-ASERTIBITATE EDO ERASOKORTASUNAREN AURREAN:

- **Beste pertsonari ikusarazi nola portatzen ari den**
- **Modu asertibo batean nola portatu daitekeen erakutsi**

Erantzun mota hau batez ere atake erasokorren aurrean defendatzeko erabiltzen da, baina asertiboa ez den pertsona baten aurrean zalantzak argitzeko ere balio dezake. Beste pertsonari nola portatzen ari den erakustean eta bere portaera horrek komunikazio asertiboa oztopatzen duela ikusaraztean datza. Adibidez: *“Ikusten dut haserre zaudela eta ez didazula entzuten. Zergatik ez zara une batez gelditzen eta esan nahi dudana entzuten?”*; *“Horrela ez gabiltza inora heltzen. Nik uste dut hitz egiteko txandak egin behar ditugula baina eraso egin gabe”*; *“Ez didazunez ezer esaten nahastuta sentitzen naiz. Argituko didazu zer esan nahi duzun?”*.

## **2. Eztabaidetarako asertibitate teknikak.**

Erantzun asertibo egokiak daude egoera desberdin askotarako: kritikei erantzuteko, erasoetatik defendatzeko, modu eraikitzaile batean eztabaidatzeko, kritikak modu egokian egiteko, egin dizkiguten kalteen ordaina eskatzeko, eskaerak egiteko eta baita sentimenduak modu egokian adierazteko ere. Jarraian eztabaidak modu asertibo baterantz bideratzeko teknika batzuen azalpen laburra eta adibide labur batzuk emango ditugu. Horretarako nagusiki bi autoreen lanetatik edango dugu: Manuel J. Smith (Smith, 2008) eta Olga Castanyer (Castanyer, 2002). Bestalde, aipatu behar da jarraian ikusiko ditugun teknika hauek ez direla zertan modu isolatuan erabili behar, elkarrizketa berean hainbat teknika erabili baitaitezke eta gainera horrela egitea izaten da eraginkorrena.

### **DISKO AKASTUNA:**

Estrategia honek norbanakoari berean etengabe eustea eskatzen dio behin eta berriz berak nahi duena adierazi behar baitu beste pertsonaren aurrean, haserretu gabe eta ahots tonua altxatu beharrik izan gabe. Teknika honekin beraz, egoera gatazkatsu baten aurrean norbarakoak behin eta berriz bere iritzia adieraziko du, lasaitasunez baina manipulazio saiakerei amore eman gabe. Teknika hau ikasteko baliagarria da norbanakoak nahi duenari buruzko azalpen edota aitzakiarik ez ematea, erruduntasun sentimenduak sor dakioken edozerri kasu egin gabe. Besterik gabe nahi duena adieraziko du eztabaida batean ahots lasai eta errepikakorrarekin beste pertsonak hark nahi duena onartu arte edo adostasun batera heldu arte.

Disko akastuna teknikaren helburua mezu bat behin eta berriz igortzea da, hau da, gertatzen dena gertatuta ere norbanakoak bereari eutsiko diola eta ez dela nekatuko horri eusteaz. Horrela lortu nahi den emaitza zera da: kanpo manipulazioa bertan behera gelditzea, gauza material bat lortzea, konpromiso bideragarria bat lortzea, eta abar. Ikus dezagun teknika hau erabiltzeko adibide bat:

NAGUSIA: *Gaur arratsaldean presazko lan baterako behar zaitut.*

SUBJEKTU ASERTIBOA: *Sentitzen dut baina zita bat dut eta ezin dut bertan behera utzi.*

NAGUSIA: *Lana biharko bukatu behar da, bestela arazoak egongo dira.*

SUBJEKTU ASERTIBOA: *Ulertzen dut lehenbailehen egin behar dela baina zita bat dut eta ezin dut bertan behera utzi.*

NAGUSIA: *Lana egiteko ordu batzuk baino ez dituzu beharko.*

SUBJEKTU ASERTIBOA: *Sentitzen dut, baina kasualitatez gaur zita bat dut eta ezin dut bertan behera utzi.*

NAGUSIA: *Beno, bihar goizean ordu batzuk eskaini ahalko diozula espero dut.*

## **KONPROMISO BIDERAGARRIA**

Teknika hau eztabaida batean bi aldeek onartu dezaketen konpromiso bat adostean datza. Eztabaidaren bi aldeek portaera asertiboa izaten dutenean, gatazka arazoaren datu errealetan oinarritzen da eta ez parte hartzen duten nortasunen indarrean. Era horretan irtenbidea ez da manipulatzailerik onenaren menpe egongo baizik eta bi aldeek adostasunez hartu dezaketen konpromiso batean. Konpromiso hau betiere norbanakoaren sentimendu eta bere buruarekiko errespetuaren kalterako ez izateko modukoa izan behar du, bestela ez dago konpromisorik hartzerik. Konpromiso bideragarrien adibideak izan daitezke produktu bat aldatu edo konpontzeko denbora tarte bat itxoiteko prest agertzea, beste pertsonaren nahiei kasu egitea hurrengoaldi batean, etab.

## **LAINO GUNEA**

Teknika hau, eta ikusiko ditugun hurrengo biak ere, oso egokia izaten da kritikei modu asertiboan erantzun ahal izateko, kritiken aurrean erantzun emozional negatiboa minimora gutxitzea ahalbidetzen baitute.

Teknika hau honako modu hauetan erabil daiteke:

### **1) Beste pertsonak adierazitako edozein egi onartu daiteke:**

AMA: *Bart oso berandu joan zinen zure etxera, Nerea. Hamabi eta erdietan deitu nizun eta ez zeunden.*

NEREA: *Egia da ama, bart berandu joan nintzen etxera.*



## 2) Egiaren posibilitatea onartu daiteke:

AMA: *Nerea, hain gutxi lo egiten baduzu berriz ere gaixo jarriko zara.*

NEREA: *Baliteke, ama.*

## 3) Besteak adierazitakoa egi orokor moduan onartu daiteke:

AMA: *Nerea, oso ondo dakizu itxura ona edukitzea garrantzitsua dela mutil bat ezagutu eta berarekin ezkondu ahal izateko. Hain berandura arte irteten jarraitzen baduzu, oso itxura txarra izango duzu. Ez duzu hori nahiko ezta?*

NEREA: *Arrazoia duzu ama, esaten duzuna ez da inolako tontokeria, beraz zer komeni zaidan ulertzen dudanean, goiz joango naiz lo egitera.*

Teknika honen bidez kritika jaso daiteke gaizki sentitu gabe eta antsietatezko edo defentsazko jarrerak hartu gabe. Horrela kritika manipulazilea erabiltzen duen pertsonaren aurrean ez da amorerik emango. Hona hemen teknika honen erabileraren beste adibide bat:

LEIRE: *Ze lodi zauden!*

ELENA: *Bai, egia da argalago egon nintekeela.*

LEIRE: *Dietan jarri beharko zinateke.*

ELENA: *Bai, agian pixka bat gutxiago janez argalago egongo nintzateke.*

LEIRE: *Eta ez ahaztu kirola egitea.*

ELENA: *Bai, agian baten bat aukeratuko dut.*

LEIRE: *Bada nik lehenbailehen erabakitzea gomendatzen dizut, benetan lodi zaude eta.*

ELENA: *Badakit argalago egon nintekeela.*

## ASERTZIO NEGATIBOA

Teknika hau norbanakoak akats edo erroreren bat egin duenean erabil daiteke. Norbanakoa ez badu modu asertibo batean jokatzeko bere erroreen aurrean, beste pertsona ez asertiboen manipulazioan eror daiteke erruduntasun edo antsietate sentimenduen bidez. Teknika honen bidez norbanakoak bere ezaugarri negatiboen inguruan, modu erasotzaile edo eraikitzailean egiten zaizkion kritikak onartu eta ulertzen ditu aitzakien bila ibili gabe. Era horretan norbanakoak bere portaera edo nortasunaren arlo negatiboak onartu ditzake, jarrera defentsiboak hartu gabe eta benetako errore bat ezeztatu beharra izan gabe, kritika egiten duenaren haserre edo areriotasuna murriztuz. Hona hemen adibide batzuk:

KRITIKA: *Ez zenuen oso emaitza ona lortu egin zenuen itzulpenean.*

ASERTZIO NEGATIBOA: *Bai, egia da. Ez nuen asmatu, ezta?*

\*\*\*\*\*

KRITIKA: *Neska liraina izateko, ibiltzerakoa ahate bat dirudizu.*

ASERTZIO NEGATIBOA: *Konturatu naiz, bai. Ibiltzeko era komikoa dut ezta?*

\*\*\*\*\*

KRITIKA: *Nerea, ez zenuen ilea moztu behar. Ez zaizu batere ondo gelditzen.*

ASERTZIO NEGATIBOA: *Tontokeri bat egin dut, ama. Egia esan, niri ere ez zait gustatzen.*

### **GALDEKATZE NEGATIBOA**

Laino gunea erabiltzen denean bezala, galdekatze negatiboa erabiltzerakoan norbanakoak ez dio erantzuten kritikari errorea ezeztatuz, modu defentsiboan edo kritika berri batekin. Teknika honen bidez gupil manipulazalea apurtzeko norbanakoak berari buruzko kritikak egin daitezela eskatzen du. Horrela kritika horietatik eratorritako informazioari probetxua atera dakiok (erabilgarriak baldin badira) edo kritika bera agortuko da (manipulazaleak direnean). Aldi berean pertsona kritikoa asertibitate handiagoz jokatzera bideratzen dugu eta metodo manipulazaleak ez erabiltzera bideratuko dugu.

Galdekatze negatiboak norbanakoaren aurkako kritikak lasaitasunez probokatzea ahalbidetzen du, harreman estuen barruan. Gainera beste pertsonak bere sentimendu negatiboak adieraztea ahalbidetzen du, komunikazioa hobetuz. Hurrengo adibidean galdekatze negatiboaren erabileraren hasiberrientzako ariketa praktikoa ikus dezakegu:

ANTTON: *Ane, gaur ez duzu itxura onik.*

ANE: *Zer esan nahi duzu, Antton?*

ANTTON: *Ezer ez, zure itxurak atentzioa eman dit. Egia esan ez zaude oso itxuroso*

ANE: *Nire aurpegiari buruz ari zara ala nire janzkerari buruz? (ASERTZIO NEGATIBOA)*

ANTTON: *Beno, alkandora hori ez da oso polita, egia esan.*

ANE: *Zer dauka txarra alkandora honek? (ASERTZIO NEGATIBOA)*

ANTTON: *Ba... ez zaizula batere ondo gelditzen, nik uste.*

ANE: *Oso nasai daukadala esan nahi duzu?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Hori izan daiteke, bai.*

ANE: *Eta koloreari buruz, zer diozu? Gaizki gelditzen zaidala uste duzu?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Egia esan kolorea ez zaizu batere ondo gelditzen.*

ANE: *Koloreaz gain, beste akatsen bat?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Ez, ez. Hori da dena.*

ANE: *Eta prakei buruz zer diozu? Gustatzen zaizkizu?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Ez asko.*

ANE: *Ze akats dute?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Ez dakit, ez zaizkizu ondo gelditzen.*

ANE: *Kolorea da?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Ez, ez da kolorea.*

ANE: *Moldea orduan?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Agian hori da, bai.*

ANE: *Beste zerbait txarra ikusten didazu?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Beno, uste dut gehiegi hitz egiten duzula*

ANE: *Ea ulertzen dizudan, gehiegi hitz egiten dut?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Elkarrizketak luzatzeko joera duzu, hitz eta pitz, beti gauza beraren inguruan.*

ANE: *Esan nahi duzu inoiz ez naizela isiltzen?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Hori da, ez zara isiltzen eta ez duzu onartzen nik esaten dizudana.*

ANE: *Beno, itzulingururik gabe, esan nahi duzuna da ez dizudala inolako kasurik egiten?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Badirudi berdin dizula nik zerbait esan ala ez.*

ANE: *Edonork esango luke bihozgabea naizela esaten ari zarela. Horrela da?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Hori da. Bihozgabea zara.*

ANE: *Eta bihozgabea izateaz gain, beste akatsen bat dut zure ustez?*  
(ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Bada... nolabait.... Desberdina dirudizula.*

ANE: *Zertan ageri naiz desberdin?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Oraintxe bertan, adibidez, zerbait guztiz desberdina egiten ari zara.*

ANE: *Hobeto azalduko didazu?* (ASERTZIO NEGATIBOA)

ANTTON: *Ez, uste dut ezetz.*

ANE: *Ondo da, ikusten garen hurrengo aldian agian nitaz hitz egiten jarraitzeko gogoia izango duzu, ados?*

ANTTON: *Ados*

### **GERORAPEN ASERTIBOA**

Erantzun mota hau oso baliagarria da pertsonak erantzun azkar bat eskura ez duenean edota egoerak gainezka egiten dion uneetarako eta argitasunez erantzuteko bere burua gai ikusten ez duenerako. Norbaiten kritika jasotzerakoan erantzuna geroratzean datza, lasaiago egon arte eta erantzun egoki bat emateko gai izan arte. Hona hemen adibide bat:

KRITIKA: *Zure erruz heldu gara berandu, beti bezala.*

GERORAPEN ASERTIBOA: *Begira, hau oso gai polemikoa da gure artean. Ondo iruditzen bazaizu, oraingoz utzi egingo dugu, lana daukat eta. Bihar lasaiago hitz egingo dugu horretaz, ados?*

Beste pertsonak kritikarekin jarraituko balu, pertsonak bereari eutsi beharko lioke disko akastunaren teknika erabiliz.

### **ALDAKETA PROZESATZEKO TEKNIKA**

Teknika honen bidez eztabaidaren muina bi pertsonen artean gertatzen ari den horretara bideratzen da. Teknikak ez du erasokortasunik sortzen beste pertsonarengan eta ez du inor defendatzera behartzen. Gainera teknika erabiltzen duen pertsonari eta jasotzen duenari laguntzen die. Ikus dezagun adibide bat:

AITOR: *Zure erruz heldu gara berandu, beti bezala.*

NAROA: *Bada, ez dakit zergatik diozun. Berandu heldu gara zuri futbol partidua grabatzea bururatu zaizulako.*

AITOR: *Ah ze larru sendoa duzun! Nik partidua grabatzen hasi naiz ikusten nuelako zu makillatzen ari zinela eta ez zenuela inoiz bukatzen. Gainera ondotxo dakizu nor den beti atean zain egoten dena eta nor azken unean hamaika gauza garrantzitsu egiteko dituen.*

NAROA: *Begira, gaitik irteten ari gara. Haria galdu eta trapu zikinak ateratzen hasiko gara. (ALDAKETA PROZESATZEA)*

### **ENTZUNGOR EGITEA**

Teknika hau aplikagarria da beste pertsona haserre eta bere onetik aterata ikusten dugunean eta bere kritikak azkenean defendatzeko aukerarik gabeko irain pila batean bukatzeko arriskua ikusten dugunean. Teknika honetan oso garrantzitsua da ahots tonua kontrolatzea. Mespretxuzko tonua edo tonu zakar batek beste pertsonan erasokortasuna handiagotuko luke, probokazio gisa interpretatuko bailuke. Egokiena tonu bereziki atsegina eta ulerkorra erabiltzea da, beste pertsonaren haserrea errespetuko duena. Jarraian ikus dezagun teknika honen adibide bat:

AITOR: *Zure erruz heldu gara berandu! Beti bezala!*

NAROA: *Oso haserre zaudela iruditzen zait, beraz horretaz geroago hitz egitea iruditzen zait egokiena. (ENTZUNGOR EGITEA)*

### **ADOSTASUN ASERTIBOA**

Teknika hau laino gunearen antza du baina haratago joaten da, kasu honetan egindako akatsa onartu baitaiteke baina argi utziz horrek ez duela esan nahi pertsona ona edo txarra denik horregatik. Teknika hau erabilgarria da beste pertsona haserre egoteko arrazoiak dituela onartzen dugunean baina adierazteko moduarekin bat ez gatozenez.

Teknika honen bidez beste pertsona *lasaitzea* lortzen da egindako akatsa onartuz baina argi bereiztuz *egitea* eta *izatea*, ez baitira gauza bera. Orokortzeko joera duten pertsonekin teknika hau aplikatuz gero etorkizunean etiketatuta izatea saihestu daiteke. Teknika honen funtsa hori da neurri handi batean. Hona hemen adibidea:

AITOR: *Zure erruz heldu gara berandu! Beti bezala!*

NAROA: *Zuzen zaude, nire erruz heldu gara berandu. Baina badakizu normalean ez naizela ez puntuala izaten. (ADOSTASUN ASERTIBOA)*

## Antsietatea murrizteko teknikak.

Literatura zientifikoak argi erakusten du pertsonen tentsio mailak murrizten ikas dezaketela erlaxazio eta arnasketa tekniken bidez. Teknika hauetan trebatzea auto-kontrolerako eta estresari aurre egiteko estrategiak garatzea ahalbidetzen du (Salmurri, 2004: 59).

Egoera batzuek pertsona ez asertiboetan maila handiko antsietatea sortzen dute. Horren ondorioz pertsona ez da gai portaera egoki bat emateko, nahiz eta lehen ikusi ditugun teknikak ikasita eduki eta pentsamendu alternatibo arrazionalak barneratuta. Asertibitate arazoak gutxitan izaten dira antsietate hutsaren ondorio, antsietatea oso maila altukoa izaten denean (pertsona blokeatuta gelditzen da eta ezin du erantzunik eman) beste trebetasunak praktikan jarri baino lehenago komenigarria da antsietate hau lantzea modu isolatu batean.

Beraien artean osagarri diren bi teknika daude antsietatea modu fisikoan murrizteko: erlaxazioa eta arnasketa.

Erlaxazio teknikei dagokionez, bi dira ezagunenak: Schultz-en Entrenamendu Autogenoa eta Jacobsonen Erlaxazio Progresiboa. Hemen bi teknika hauek sakonki azalduko ez baditugu ere, azalpen labur batzuk emango ditugu, informazio sakonagoa lortzeko erlaxazio manualetara jo daiteke.

Lehenengoari dagokionez, Schultz-ek sortutako Entrenamendu Autogenua gorputzaren atal ezberdinetan bero eta astuntasun sentrazioak sortzen duten hitzezko auto-instrukzioak ematean datza. Ariketak estres fisiko edota emozionalaren aurrean ematen den alarma erantzunari indarra kentzera begira daude, odolaren oxigenazio egokira eta estres egoeratan ematen den bihotz aktibitatea normalizatzen begira. Teknika honek estres inguruabarren aurrean berehalako aplikazioa ahalbidetzen du.

Jacobsonen Erlaxazio Progresiboa gorputzaren atal ezberdinetan kontzentratuz, berauek estutu eta erlaxatzen datza. Horrela estutze eta erlaxazio sentrazioen arteko kontrastea erreparatzen zaie. Teknika honek garrantzi berezia lortu du estresarekin lotutako erantzun emozional negatibo edo bortitzen kontrolean.

Bi teknika hauek praktika eta jarraikortasun handia eskatzen dute, baina menperatzen direnean oso erlaxazio metodo egokiak dira eta pertsonaren auto-kontrol emozionala hobetzen laguntzen dute. Erlaxatua egotean pertsona ez dago sentimendu eta emozio negatiboen eraginaren menpe. Gainera, praktikarekin pertsona emozionalki hain ezegonkor eta negoziatiboa ez *egotetik*, ez *izatera* pasatu ahalko da (Salmurri, 2004: 80).

Arnasketari dagokionez, teknika hau erlaxazioarekin oso lotuta dago. Arnasketa ariketa baten emaitzak berehala ikusten badira ere, ondorio sakonak hilabeteetako praktika eta gero ikusten dira. Arnasketa ariketa ugari dago. Erabilienetako bat arnasketa abdominala da. Gorputzetik sartu eta irteten den airea mugitzeko toraxeko giharrak erabili beharrean diafragma erabiltzean datza.

Arnasketa eta erlaxazio ariketak elkarrekin aplikatu daitezke, erlaxazio ariketaren erdian arnasketa sartuz, edo bakarka. Normalean ez da arnasketarik gabeko erlaxazioa egiten, baina erabilgarri eta efektiboa da arnasketa aplikatzea erlaxazio barik. Dena den osoena biak modu konbinatuan erabiltzea izaten da.

Garrantzitsua da arnasketa eta erlaxazio ariketak giro eta gorputz-jarrera desberdinetan entseatzea. Beti etzanda, zaratarik gabeko giro lasai batean egotean praktikatzen badira, zaila izango da estutasuneko egoeretan aplikatzea. Bi teknika hauen onurez estutasuneko unean aplikatzen jakiterakoan ohartuko gara, hau da, elkarrizketa batean, bilera batean, etab. Horregatik entseatu behar dira gorputz-jarrera eta leku desberdinetan (eserita, zutik, oinez, autobusean, bakarka, beste batzuekin gaudenean...).

## **3.2. HIZKUNTZA ASERTIBITATEA**

---

*Ez da ezergatik, baina  
isiltzen duzun euskara  
hiltzen duzun euskara da  
Bitoriano Gandiaga*

Orain arte asertibitateari buruzko azalpena ikusi dugu. Orain asertibitatea hizkuntzaren kasuan nola aplikatu daitekeen eta aplikazio horrek minorizatutako hizkuntza baten normalizazioari egin diezaiokeen ekarpenari buruz arituko gara, hori baita hizkuntza asertibitatea izenarekin kontzeptualizatu nahi izan duguna. Horretarako lehen erabili dugun eskemaren antzerakoa erabiliko dugu gure azalpenean: lehenengo kontzeptua definituko dugu, ondoren portaera mota ezberdinak aztertuko ditugu, hizkuntza baten normalizazioan izan dezaketen eraginean ere erreparatuz, ondoren eskubide asertiboak hizkuntza portaerari nola aplikatu daitezkeen aztertuko dugu eta azkenik hizkuntza asertibitatea erabiltzeko teknikak adibideekin aberastuko ditugu.

### **3.2.1. Hizkuntza asertibitatearen definizioa**

Hizkuntza asertibitateari buruz ari garenean komeni da argitzea zertaz ari garen. Asertibitatea definitu dugunean, muturreko bi portaeren artean arteko puntu batean kokatzen den komunikazio portaera dela esan dugu. Bi mutur horiek erasokortasuna eta ez-asertibitatea zirela esan dugu eta asertibitatea bi horien erdian kokatu dugu. Horrela, asertibitatea komunikazio portaera gisa definitu

dugu eta portaera horretan norberak iritziak eta sentimenduak adierazten dituela esan dugu, bere eskubide pertsonalak egikaritzuz, betiere beste pertsonen eskubideak errespetatuz. Azkenik aipatu dugu pertsona asertiboak bere portaera manipulatzeko beste pertsona batek egin ditzakeen saiakeren aurrean ez duela men egingo eta, era berean, bera ere ez dela saiatuko beste pertsonak manipulatzeko.

Horrek guztiak hizkuntza normalizazioaren kasua aplikatzeak zer esan nahi du? Pertsonen portaerari buruz ari garela ezin dugu ahaztu. Beraz, hizkuntza baten normalizazioaren ikuspegitik hizkuntza asertibitatea maila indibidualean kokatzen da. Minorizatutako hizkuntza baten hiztun komunitate bat osatzen duten pertsona bakoitzak izan dezakeen komunikazio portaerak eragin dezake hizkuntza horren normalizazioan (edo galbidean). Noski, beste mailek (hizkuntzarena bere osotasunean eta taldekoa) ere paper garrantzitsua izango dute hizkuntzaren normalizazioan, baina hizkuntza asertibitatearen eremutik at gelditzen zaizkigu.

Era honetan, hizkuntza asertibitea honela definituko dugu: komunikazio portaera bat da zeinetan pertsonak bere egiten duen hizkuntzan komunikatzen den, beste pertsonen eskubideak errespetatuz. Pertsona asertiboak ez du men egingo hizkuntzaz aldatzeko beste pertsona batek egin ditzakeen manipulazio saiakeren aurrean, eta berak ere uko egingo dio manipulazio saiakera mota horiek bere mesedetan erabiltzera.

Asertibitatearen kasuan bezala, hizkuntza asertibitatea bi muturreko portaeren arteko bitarteko puntu batean koka dezakegu, ez-asertibitea den hizkuntza mendekotasun eta erasokorra den hizkuntza erasokortasuna. Portaera mota hauen inguruan hurrengo atalean zehatzago jardungo dugu.

Hizkuntza asertibitatearen definizioa ematerakoan, pertsonak bere egiten duen hizkuntzan komunikatzeari buruz aritu gara. Pertsonak bere egiten duen hizkuntza aipatzen dugunean, esan nahi duguna da erabaki libre batean oinarriturik pertsonak komunikazio hizkuntza jakin bat bere lehenengo hizkuntzatzat hartzen duela eta hizkuntza horretan komunikatu nahi du ahal den guztietan. Pertsonak bere egiten duen hizkuntza normalean bere ama hizkuntza izango da, baina pertsona batek bere egin dezake ama hizkuntza ez duen baina ikasi duen bigarren hizkuntza bat. Era horretan pertsonak hizkuntza horretan bizitzea erabaki dezake eta bere lehen hizkuntza izango balitz moduan erabili. Bi kasuak eman daitezkeenez erabaki dugu kontzeptualizazio gisa *“bere egiten duen hizkuntza”* erabiltzea.

Pertsonak hizkuntza bat bere egiteko erabakiaren atzetik egon daitekeen motibazioa mota askotakoa izan daiteke eta hizkuntza asertibitatearen ikuspegitik ez du garrantzia berezirik zer motibazio dagoen pertsonaren aukeraketa horren atzean, garrantzitsua dena da pertsonak bere borondatez aukeratzen duela, erabaki libre baten emaitza dela hain zuzen ere.



Hizkuntza minorizatuen hiztunek sarritan jasan izan behar dute beraien hizkuntza aukera ideologia politiko jakin batekin lotzea. Era horretan beraien erabakiaren motibazioa ideologikoa dela ondorioztatzen da, horren ondorioz, logika maltzur bati jarraituz, hizkuntza minorizatu horretan hitz egiten duen pertsona oro ideologia horren jarraitzaile gisa agertzen da edonoren aurrean bere hizkuntza aukera egiten duenean. Horrek sarri norberak aukeratu nahiko lukeen hizkuntza ez aukeratzera eramaten ditu hiztun asko, deserosotasun sentimenduak sortuz pertsonarengan eta hizkuntza minorizatu horren kaltetan.

Ez da gauza bera gertatzen minorizatu ez dagoen hizkuntzaren kasuan. Euskal Herrian euskara eta gaztelaniaren kasua aztertuta, erraz ikus dezakegu euskaraz hitz egitea jarrera ideologiko jakin batekin lotzen dela (abertzaletasuna), aldiz, gaztelaniaz hitz egitea ez da interpretatzen espainiar nazionalismoaren jarraitzaile izatearekin, ez du konnotazio ideologikorik. Era honetan gaztelaniaz hitz egitea jarrera neutro moduan ikusten da. Fenomeno hau katalanarekin ere gertatzen da (Sanginés eta Suay, 2008: 208), eta suposatu dezakegu minorizatuta dauden beste hizkuntza batzuekin ere antzeko fenomenoak aurki dezakegula.

Hizkuntza asertibitateak tranpa maltzur hori gainditu egiten du. Ez baitu axola zein den hizkuntza jakin bat aukeratzeko arrazoi edo motibazioa. Asertibitatearen eskubideei jarraiki, ez dago azalpen berezirik eman beharrik pertsona batek egin nahi duena egiteko, betiere besteen eskubideak ere errespetatzen direnean. Beraz pertsonak berak aukeratu dezake zein hizkuntzatan hitz egin nahi duen edozein egoeretan, betiere beste pertsonen eskubide asertiboak errespetatuz.

Pertsonaren ikuspegitik, hizkuntza asertibitatea erabiltzean, bere erosotasun sentimenduak indartuko dira eta auto-estimua maila altuan mantentzen lagunduko dio. Azken batean hizkuntza asertibitatea praktikatu, pertsonak bere erabakiak hartu eta gauzatzen dituela ikusi ahalko du, kasu honetan berak aukeratzeko duen hizkuntzan hitz egitea, eta horrek onura psikologikoak dakarzkio. Bere auto-errespetua eta bere buruarekiko konfiantza eta segurtasuna handituko direla ondoriozta dezakegu eta bere kokapen soziala ere hobetzen lagunduko du, beste pertsonen errekonozitu egingo baitute pertsona horrek duen gaitasuna bere eskubideak defendatzeko besteenak ere errespetatuz.

Azkenik, minorizatu dagoen hizkuntza komunitate batek hizkuntza asertibitatea praktikan jartzen duenean, bere hizkuntzaren normalizaziorako pauso garrantzitsu bat ematen ariko da. Bere hizkuntza ahalik eta egoera gehienetan erabiltzen duenez, komunitateak hizkuntza egoerak bere hizkuntzaren mesedetan ustiatuko ditu. Horrela hainbat hizkuntza egoeretan eragitea lortu ahalko da modu eraginkor batean: hizkuntza hori ondo ezagutzen ez dutenengan hobeto ezagutzeko beharra sortuz, hizkuntza hori existitzen dela erakutsiz (hizkuntza menperatzailearen erabileraren ondorioz menperatutako hizkuntza existituko ez balitz bezala ematen diren egoeretan), hiztunon ezagutza hobetuz hizkuntza funtzio guztietan erabiltzen den neurrian,... Laburbilduz, minorizatu dagoen hizkuntza baten komunitatearentzat bere hizkuntzaren berreskurapenerako tresna erabilgarria da hizkuntza asertibitatea.

### 3.2.2. Portaera mota ezberdinen ezaugarriak

Asertibitatea maila orokorrean ikusi dugunean pertsonen hiru portaera mota bereiztu ditugu: ez-asertiboa, erasokorra eta asertiboa. Oraingoan ere hiru mota horiek hartuko ditugu oinarri gisa baina hizkuntzarekin lotura duten giza portaeretan oinarrituko dugu azalpena.

#### **a) Portaera ez-asertiboa edo hizkuntza mendekotasuna**

*“Oso gertaera behagarria da katalan hiztunak diren pertsonak ohikoa dutela hizkuntza mendekotasuna praktikatzea. Hau da, gaztelaniara aldatzen dute (edo frantsesera ipar Katalunian) hizketakidea ez denean katalan hiztuna, edo baita ere, ez dela suposatzen dutenean. Gaztelaniarekin bateratzeko arau hori sistematikoki aplikatzeak gure hizkuntzaren biziari kaltea dakarkiola esateak ez du argumenturik behar.” (Sanginés eta Suay, 2008: 204)*

Aurreko testuan katalan eta Katalunia hitzak euskara eta Euskal Herria hitzengatik ordezkatzeko bagenitu, gainontzeko testua aldatetarik gabe utzita, euskal hiztunen diagnostiko egoki baten aurrean aurkituko ginatke. Eta ziurrenik minorizatua dagoen beste hizkuntza batzuetako hiztunei ere aplika diezaiekegu diagnostiko hori hitz berberak erabiliz.

Hizkuntza mendekotasuna minorizatua dagoen hizkuntza baten hiztun komunitateko indibiduoak duten portaera mota bat da. Portaera horretan, pertsonak modu sistematikoan bere egiten duten hizkuntza baztertu eta hizkuntzaz aldatzen dute beste hizkuntzaren presentziaren aurrean. Hizkuntza komunitateko pertsona guztiek ez dute partekatzen portaera hori, baina bai pertsona kopuru handi batek.

Hizkuntza mendekotasuneko portaera ikasitako portaera bat da. Arrazoi historiko eta politikoei erantzuten die, baina guk ez ditugu lan honetan aztertuko, gure helburua portaera bera deskribatzea baita eta hizkuntza baten normalizazio prozesuarentzat zein kalte egiten dion azaltzea.

Hizkuntza mendekotasuna portaera ez-asertiboarekin lotu dugu. Beraz, hizkuntza mendekotasuna praktikatzeko duen pertsonak sistematikoki bere egiten duen hizkuntzan hitz egiteari utziko dio eta beste hizkuntza batera aldatuko da aurrean duen pertsonak beste hizkuntzan hitz egiten dionean edota beste pertsonak ez dakiela uste duenean.

Asertibitatea aztertu dugunean portaeraren hiru maileri (kanpo portaera, pentsamendu ereduak eta sentimendu/emozioak, kontuan hartu ditugun moduan, hizkuntzarekiko portaerak aztertzerakoan ere hiru maila horiek kontuan hartuko ditugu. Nahiz eta ezaugarri batzuk antzerakoak izango diren bi kasuetan, guk ez ditugu aurretik esan ditugunak errepikatuko eta hizkuntza egoerari erreferentzia egiten dietenak bakarrik aipatuko ditugu. Dena den, gure ustez berdina diren ezaugarriak hizkuntza egoera gertatzen den unean suerta daitezke eta beraien iraupena egoerari mugatuko litzateke eta intentsitate mailan ere desberdintasunak egongo liriateke.

Hizkuntza mendekotasuna edo hizkuntza kontuetan ez asertibo gisa jokatzeko duen pertsonak honako ezaugarriak ditu:

**Kanpo portaera:**

- Bere egiten duen hizkuntzan hitz egiteari utzi eta beste hizkuntzara aldatu
- Beste pertsonen aurrean zalantzak hizkuntza aukeratzekoan

**Pentsamendu ereduak:**

- Uste dute kortesia edo errespetuzko kontu bat dela hizkuntzaz aldatzea besteak bere egiten duen hizkuntzan hitz egiten ez dienean
- *“Ez dit ulertzen beraz hizkuntzaz aldatu behar dut bestela errespetu falta bat izango da”*
- *“Nire hizkuntzan hitz egiteak ez du garrantzirik baizik eta beste pertsona gustura sentitzea”*
- *“Ez du nire hizkuntza ezagutzen duen itxurarik beraz ez diot nire hizkuntzan hitz egingo”*
- *“Nire hizkuntzan hitz egiten badiot haserretu egingo da”*
- *“Nire hizkuntzan hitz egiten badiot ez dit ulertuko”*
- *“Niretzat hizkuntzaz aldatzea esfortzu txikia da, baina beste pertsonarentzat nire hizkuntzan hitz egitea esfortzu handia suposatzen du”*
- *“Beste pertsonaren hizkuntza eskubideak errespetatu behar ditut, nireak alde batera utzi behar baditut ere”*

**Sentimenduak/emozioak:**

- Deserosotasuna / ezintasuna / erruduntasun sentimenduak / auto-estimu baxua / antsietatea / frustrazioa.

Hizkuntza mendekotasuna definitzerakoan esan dugun moduan, portaera hau ez da bakarrik beste hizkuntzaren aurrean ematen, baizik eta baita hitz egin baino lehenago beste pertsonak

hizkuntza hori ulertuko ez duela pentsatzen denean. Kasu honetan aurreiritziek garrantzia handia hartzen dute, minorizatua dagoen hizkuntzan hitz egiten dutenen itxura fisikoarekin lotzen diren aurreiritziak funtzionatzen baitute. Adibidez beste arraza batzuetako pertsonen kasuan, bere itxura fisikoa dela eta euskaraz ulertuko ez dutela pentsatzen du sarri hizkuntza mendekotasunez jokatzeko pertsonak. Baina hori aurreiritzia baino ez da, gaur egun beste arrazetako gero eta jende gehiagok daki edo gutxienez ulertzen du euskara maila handiago edo txikiago batean.

Zalantzarik gabe, hizkuntza komunitate bateko hiztunek hizkuntza mendekotasuna praktikatzeko badute, portaera horrek hizkuntzaren bizirautea arriskuan jartzen du. Portaera sistematikoki ematen den heinean hizkuntza horren espazio eta funtzioak murriztu egiten dira eta horrek eragina du hiztunengan, uste dutelako beraien egiten duten hizkuntza bakarrik egoera jakin batzuetan erabili daitekeela eta ez beste batzuetan. Baina espazio eta funtzio murrizketa horrek gorpil zoroaren gisa funtzionatzen du, hizkuntza horren espazio linguistikoa gero eta txikiagoa izango baita eta funtzioetan gero eta murriztapen handiagoak jasango baititu, hizkuntzaren normalizazioa galaraziz eta hizkuntzaren iraupena bera ere zalantzan jarriz.

## **b) Hizkuntza erasokortasuna**

Hizkuntza erasokortasuna honela definitu dezakegu: pertsona batek bere egiten duen hizkuntzan hitz egitea modu erasokor batez eta beste pertsonaren eskubide asertiboak errespetatu gabe. Solaskideak ezertxo ere ulertzen ez duela ohartzen bada, hizkuntzaz aldatu dezake, baina portaera erasokorra erakusten jarraituko du.

Hizkuntza erasokortasuna praktikatzeko duten pertsonak bere egiten duten hizkuntzaren aldeko jarrera izan nahi dute, baina ez dituztenez beste pertsonaren eskubideak errespetatzen eta modu erasokor batean jokatzeko dutenez, beste pertsonen gaitzespena jasan dezakete.

### **Kanpo portaera:**

- *Bere egiten duen hizkuntzan hitz egin eta mantendu ala besteak ulertzen ez duenean bakarrik aldatzen du hizkuntzaz*
- *Ahotsaren tonu altua / oihuak / batzuetan: irain eta mehatxuen erabilera*

### **Pentsamendu ereduak:**

- *“Nire hizkuntzak bakarrik du garrantzia. Zuk pentsatu eta sentitzen duzunak ez du garrantzirik niretzat”*
- *Uste du modu horretan jokatzeko ez badu bere egiten duen hizkuntzaren kaltetan izango dela*

## Sentimenduak/emozioak

- Bere egiten duen hizkuntzaren egoerari buruzko haserrea
- Bere egiten duen hizkuntzarekiko babesgabetasuna.

Asertibitatea ikusi dugunean, portaera erasokorraren estilo pasibo-erasokorra aipatu dugu. Kasu honetan ere hizkuntzarekin zerikusia duten egoeratan antzeko estiloa aurkitu dezakegu hizkuntza erasokortasunean. Kasu honetan, portaera pasibo-erasokorra daukan pertsonak manipulazioaren bidez saiatuko litzateke eragiten beste pertsonan berak bere helburua betetzeko.

Hizkuntza erasokortasunez jokatzeko duten pertsonen artean, batzuetan bere egiten duen hizkuntzaren egoerarekin “erreta” dauden pertsonak aurkitu daitezke. Horrenbeste aldiz jasan behar izan duenean bere eskubideak urratzea eta hizkuntzaz aldatzea, pertsonak eztanda egiten du eta modu erasokor batean ateratzen du horrenbestetan gordetako haserrea. Zoritxarrez portaera inefikaza suertatzen da hizkuntzaren normalizazioari begira, beste pertsonak ez baitute begi onez ikusten bere portaera. Horrenbestez, bere eskubideak errespetatzeko pertsonak egindako eskaerak, modu inefikaz batean egin denez, legitimazio soziala galtzen du testuinguru horretan, beste pertsonak portaera erasokorra baino ikusten ez dutelako.

Hizkuntza mendekotasunezko portaera hizkuntza minorizatu baten normalizazio prozesuarentzat kaltegarria den moduan, hizkuntza erasokortasunak ere ez dio mesederik egiten normalizazio prozesu bati. Eskubide batzuen defentsa legitimoak dira, baina testuinguru sozial batean defentsa hori modu erasokor batean egiten bada, testuinguru horretako aktoreen artean portaera erasokorrera mugatu daiteke, eskubideen defentsa bigarren plano batean geldituz. Gainera, egoera ikusten dutenek hizkuntza eskubide batzuen defentsa tentsio egoerekin lotuko dute eta lehen ikusi dugun hizkuntza mendekotasuneko portaera indartu daiteke beraiengan.

### **c) Hizkuntza asertibitatea**

Hizkuntza asertibitatezko portaera duen pertsonak bere egiten duen hizkuntzan komunikatuko da ahal duen guztietan, bere eskubideak egikaritzuz eta urratuak izan ez daitezkeen eskatuz, baina solaskidearen eskubideak urratu gabe. Ez du men egingo solaskidean hizkuntzaz aldatzeko izan ditzakeen manipulazio saiakeren aurrean eta berak ere ez du manipulazioa erabiliko bere mesedetan. Azkenik, hau guztia eroso sentituz egingo du.

Ikus dezakegunez, hizkuntza asertibitatezko portaera praktikatzeko norbera bere hizkuntzan ahalik eta egoera gehienetan hitz egitea suposatzen du, eta solaskideak beste hizkuntza batean hitz egiten badiu, berak bere egiten duen hizkuntzan hitz egiten jarraituko du. Solaskidearekin

komunikazioa lortzen duen heinean, bere egiten duen hizkuntzan hitz egiten jarraituko du. Hizkuntza horretan hitz egiten jarraitzea komunikazioa ezinezkoa dela egiaztatu duenean, bakarrik orduan pentsatuko du hizkuntza aldatzean, eta hala erabakitzen badu, hizkuntzaz aldatuko du.

Ikus ditzagun hizkuntza asertibitatearen portaeraren ezaugarriak hiru mailatan antolatuta:

#### **Kanpo portaera:**

- Bere egiten duen hizkuntzan hitz egiten du; solaskidearekin komunikazioa guztiz ezinezkoa dela egiaztatzean bakarrik aldatzen du hizkuntzaz horrela egitea erabakitzen badu.
- Ahots tonu tinkoa eta segurtasunez

#### **Pentsamendu ereduak:**

- *“Nire hizkuntza garrantzitsua da niretzat, beste hizkuntzak beraien hiztunentzat garrantzitsuak diren bezalaxe”*
- *“Nire hizkuntzan hitz egiterakoan eroso sentitzen naiz”*


#### **Sentimenduak/emozioak**

- Erosotasun eta konfiantza sentimenduak
- Auto-estimua ona

Komunikazio asertiboan bezala, hizkuntza asertibitatezko portaeran ere ez-hitzezko osagaiak garrantzitsuak izango dira, ematen den mezuekin bat etorri behar baitira, mezua sinesgarria izango bada. Hori dela eta, hizkuntza asertibitatezko portaeran ere lehen aipatu ditugun ez-hitzezko portaerak eman behar dira: begietara begiratzea, gorputz jarrera hurbil eta zuzena, eta abar.

Hizkuntza egoera batez ari garenez, eta ulermena ezinbesteko aldagaia izan daitekeenez, gerta daiteke solaskideak arazoak izatea hizkuntza guztiz ulertzeko. Ulermena errazteko, egokia izan daiteke hitzez esandakoa gorputzarekin egindako keinuen bidez azpimarratzea. Gorputz keinuen erabilera, betiere, egoeraren arabera izango da, kasu batzuetan gehiago erabili ahalko dira eta beste batzuetan gutxiago.

Guk hemen batez ere hizkuntza asertibitatezko portaera tipoa azaldu badugu ere, Hizkuntza asertibitatezko portaera graduala izan daitekeela kontuan hartu behar da. Pertsonak ez du zertan bere egiten duen hizkuntzan dena edo ezer ez hitz egin behar. Egoeraren arabera portaera mailakatuak aurkitu ditzakegu. Azpian dagoen irudian hizkuntza asertibitatezko portaera mailakatu baten adibidea dugu. Bertan pertsonak bere buruari jarri dakiokeen egoeren arabera erantzunen helburuak zehazten dira:



4. irudia: Hizkuntza asertibitatezko portaerak maila progresiboan aurkeztuta (Sangines eta Suay, 2008)

Irudiaren arabera, pertsonak lehenengo pauso moduan euskaraz hitz egiten hasiko da, eta solaskideak ez badu hizkuntza berean erantzuten, hizkuntza aldatuko du. Ondorengo pausoa euskaraz hasi eta solaskideak euskaraz jarraitzen ez badu ere euskaraz jarraitzea da. Eta solaskideak euskaraz hitz egin gabe jarraituz gero, orduan hizkuntza aldatuko du. Hirugarren mailan aurreko mailetan bezala euskaraz hasi eta jarraituko du eta solaskideari ea euskaraz ulertzen duen galdetuko dio pertsonak. Erantzuna ezezkoa bada hizkuntzaz aldatuko du. Hurrengo mailan solaskideak euskara ulertzen ez badu, nahiz eta hizkuntzaz aldatu noizean behin euskarazko esamoldeak tartekatuko ditu. Azkeneko mailan euskaraz normaltasunez aritzea egongo litzateke euskara ulertzen duen guztiekin.

Ikus daitekeenez hizkuntza asertibitatezko portaera lortzeko garrantzitsua da progresibitatearen kontzeptua, helburuak markatzen eta lortzen lagundu baitezake. Azken batean ez da dena-ezer ez binomioaren menpe dagoen portaera, baizik eta hizkuntza asertibitatezko bidean mailakatu daitezkeen portaera motak.

Bestalde, atala amaitu baino lehenago hizkuntza asertibitatezko portaerak izan dezakeen efektu biderkatzailearen inguruko hitz batzuk esan nahi genituzke. Horretarako Albert Bandura psikologo ukrainiar-kanadiarraren behaketa bidezko ikastearen teoria ekarri nahi dugu lerro hauetara. Banduraren arabera ikasteko modu bat modelaketa da. Modelaketan pertsona batek ikasten du eredu

izango den beste pertsona baten portaera eta portaera horrek duen errefortsua behatuz. Bandura eta bere laguntzaileek egindako esperimentu batzuetan (Bandura, Ross eta Ross, 1961: 397; Myers, 2001: 398-399), umeez panpin baten kontrako portaera erasokorra ikusi eta gero beraien ere portaera erasokorra izateko aukerak handitzen zirela ikusi zuten. Era horretan behaketa bidezko ikastearen teoria garatu zuen Bandurak.

Hizkuntza asertibitatezko portaera duten pertsonak ere beste pertsonentzat eredu izan daitezkeela uste dugu. Horrela, behaketa bidezko ikasketaren ondorioz, hizkuntza asertibitatezko portaerak, efikaza eta sozialki ondo ikusita dagoen heinean, eragin biderkatzailea izan dezake ematen den guneetan, hizkuntza asertibitatezko portaerak ez dituztenek ere ikas ditzaketelako.

### 3.2.3. Giza eskubide asertiboak eta hizkuntza asertibitatea

Giza eskubide asertiboak hizkuntza asertibitatearein duen lotura nahiko argia suerta daiteke irakurlearentzat honezkero. Azken batean hizkuntza asertibitatea aplikatzeak esan nahi du norberak bere egiten duen hizkuntzan hitz egiteko eskubidea ezagutu eta betetzea. Kasu batzuetan era natural batez egin daiteke eta beste batzuetan solaskideak hizkuntzaz aldatzeko nolabaiteko manipulazioa egiten badu, hizkuntza asertibitatea aplikatzen duen pertsonak garbi izan behar du bere eskubidea dela bere egiten duen hizkuntzan hitz egitea eta eskubide hori defendatzea dagokiola bere solaskidearengatik manipulatu izan nahi ez badu.

Aurreko atal batean giza eskubide asertiboen zerrenda bat aurkeztu dugu hainbat autorek egindako zerrendetan oinarrituz. Zerrenda horretan aipatutakoak hizkuntza asertibitatearekin lotzea ez da ariketa zaila; hala ere kasu batzuetan hizkuntza egoera batean jaso daitekeenak hizkuntza egoera bera gainditu egiten du, adibidez norbaitek iraindu egiten gaituenean gure egiten dugun hizkuntzan hitz egiten dugulako. Kasu horretan arazoa ez litzateke hizkuntza arazo bat, baizik eta solaskidearen errespetu falta bat eta horren arabera erantzuna eman beharko litzaioke egoerari. Dena den, guk hemen ez ditugu zerrendako guztiak aipatuko, bakarrik adibide moduan zerrendan aipatutako eskubide batzuk hizkuntza asertibitatearekin nola lotu daitezkeen azalduko dugu eta irakurleari utziko diogu ariketa bera beste eskubideekin egitea.

Zerrendako lehenengo eskubideari erreparatzen badiogu, *“nire portaera justifikatzeko arrazoiak edota aitzakiak ez emateko eskubidea”*, hizkuntza egoera batean erraz imajinatu dezakegu norbaitek hizkuntza minorizatu batean hitz egiten duenean, solaskideren batek galdetzea ea zergatik hitz egiten duen hizkuntza horretan denok ulertzen ez duten hizkuntza bat denean eta denok ulertu dezaketen beste hizkuntza bat erabili dezakeenean. Eskubide asertiboan ideia aplikatuz, pertsonak erantzun dezake berak besterik gabe erosoago sentitzen dela eta ez duela zertan horregatik azalpenak eman beharrik. Beste aukera bat ere izan daiteke galderari beste galdera batekin erantzutea: *“Eta zuk,*



zergatik hitz egiten duzu hitz egiten duzun hizkuntzan?”. Modu gehiagotan ere erantzun daiteke, baina azken batean helburua norberaren portaera justifikatzeko erantzunak saihestea da, kasu honetan norberaren hizkuntza portaera hain zuzen ere.

Hartu dezagun zerrendako beste eskubide bat: *”EZ esateko eskubidea eta errudun ez sentitzeko eskubidea”*. Oraingoan pertsona batek bere egiten duen hizkuntzan hitz egiterakoan gerta daiteke solaskideak eskaera argia egitea hizkuntzaz aldatzeko. Horren aurrean ezezko erantzuna emateko eskubidea du pertsona horrek eta erruduntasun sentimendurik ez du izan behar. Noski erantzuna egoeraren arabera izan daiteke, pertsonak solaskidearengatik zerbait lortu nahi baldin badu eta horretarako hizkuntzaz aldatzea baino beste irtenbiderik ez badu aukeratu egin beharko du bere egiten duen hizkuntzan hitz egiten jarraitu baina lortu nahi duena lortu gabe ala solaskidearengatik lortu nahi duena lortu baina hizkuntza aldatuz. Dena den, egoera mota ezberdin asko eman daitezke eta pertsonak bere egiten duen hizkuntzan jarraitzeko aukera eduki dezake bere nahien kaltetan izan gabe.

Azken adibide gisa *“aldatzeko eskubidea”* aipatuko dugu. Pertsona batek ohiko solaskide batekin (laguna, lankidea,...) dituen harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzeko eskubidea du. Norbaitek pentsa dezake beti hizkuntza jakin batean izan badituzte nolatan aldatu behar duten. Baina Giza eskubide asertiboari jarraituz, pertsona batek edozein momentutan aldatzeko eskubidea du, iritziz, ohituraz eta abarrez aldatzeko eskubidea, eta baita solaskide batekin izan duen ohiko hizkuntzaz aldatzeko eskubidea. Eskubide honetaz jabetzea baliagarria izan daiteke hizkuntza plangintzatan pertsonen arteko ohiko harremanetan eragin nahi izaterakoan. Pertsona batzuek hainbat urteetako harremanetan izandako hizkuntza ohitura aldatzea ezinezkotzat jotzen dute. Baina hori ideia irrazional bat baino ez da. Aldatzeko eskubidea beste edozein arlotan aplikatu ahal den moduan, hizkuntza egoeretan ere aplikagarria da.

Ez dugu adibideekin jarraituko. Uste dugu nahikoak direla emandako adibideak giza eskubide asertiboak hizkuntza egoeretan aplikagarriak ere direla ikusteko. Irakurlea animatzen dugu beste eskubideekin guk egin dugun ariketa egin dezan eta giza eskubide asertiboak aplikagarriak diren beste egoera batzuk zerrendatu ditzan. Era berean, eskubide hauek ezagutzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu berriz ere.

### 3.2.4. Hizkuntza asertibitatea erabiltzeko teknikak

Lehenago aipatu dugun moduan portaera asertiboa ikasitako portaera bat da, beraz erraz ulertu daiteke hizkuntza asertibitatezko portaera ere ikasi daitekeen portaera bat dela. Asertiboa izateko teknikak ikusterakoan hiru motakoak ikusi ditugu: berregitura kognitiborako teknikak, trebetasun sozialetan trebatzeko teknikak eta antsietatea murrizteko teknikak. Hizkuntza asertibitatearen kasuan

lehenengo bi teknikei buruz arituko gara, berregituraketa kognitiborako teknikak eta trebetasun sozialetan trebatzeko teknikak, antsietatea murrizteko teknikek ez baitute berezitasunik asertibitate aplikatzerakoan ala hizkuntza asertibitateari aplikatzerakoan.

### **Berregituraketa kognitiborako teknikak hizkuntza asertibitatean.**

Gogoratu behar dugu teknika hauek maila kognitiboan kokatzen direla, hau da lehenengo pertsonak egoera jakin batean zer nolako pentsamenduak dituen (bere buruari zer esaten dion) aztertu egiten da eta ondoren pentsamendu horiek aldatzea da teknikaren muina. Asertibitatearen kasuan teknika hau terapia batean erabiltzen dela aipatzen zen. Hizkuntza asertibitateari dagokionez ez guke teknika terapia moduan aplikatuko, baizik eta pertsona talde batekin ariketa sozio-hezitzaile moduan. Noski maila indibidualean ere aplikatu daiteke, baina era horretako interbentzio batek baliabide handiak eskatuko lituzke interbentzioaren arduradunak pertsona askorekin banaka egon beharko lukeelako. Kasu honetarako egokiagoa ikusten dugu taldekako lana, bai baliabide aldetik bai lehenago aipatu dugun taldeak izan dezakeen eraginari begira.

Aipatu behar dugu ere berregituraketa kognitibo bat gertatzeko ez duela zertan planifikatutako prozesu bat izan behar. Azken batean pertsonak bizi dituzten egoerek eragina dute beraien pentsatzeko moduetan eta berregituraketa kognitiboak suertatzen dira. Den den, guk hemen xede bat duen prozesu planifikatu baten moduan aurkeztuko dugu, horixe iruditzen baitzaigu hizkuntza asertibitatea aplikatzen ikasteko modurik eraginkorrena.

Ikus ditzagun teknikaren bost pausoetan nola aplikatu daitekeen hizkuntza asertibitatearen kasuan.

#### **a. Usteek norberarentzat duten garrantziaz kontzientziatu:**

Lehenengo pauso honetan hizkuntza minorizatuak duen egoerari buruzko azalpen teorikoa ematen da, batez ere hizkuntza mendekotasunean zentratuz. Era honetan hizkuntza mendekotasunaren arrazoia sozial eta historikoak azalduz, gaur eguneko portaeretan duten eraginaren garrantziak jabetzen dira partaideak.

Maila honetan ezinbestekoa iruditzen zaigu psikologiako nozio txiki batzuk ematea, pentsamenduek norberarengan duten eragina azalduz, hizkuntzaren testuingurura aplikatuta, hizkuntzari buruzko pentsamenduek pertsonen portaeran duten garrantziaz jabetzen laguntzeko.

#### **b. Norberaren pentsamenduak kontziente egin autoerregistroen bidez:**

Teknikaren fase honetan auto-erregistroak erabiltzen dira, behaketa bidez hizkuntza egoera batzuetan pertsonak dituzten pentsamenduetaz kontziente egiteko. Lehenengo pertsona bakoitzak

berak bizi dituen hizkuntza egoeren eta bere pentsamenduen behaketa egiten du eta ondoren auto-erregistro horiek taldean komentatu egiten dira. Gogoratu dezakegun auto-erregistro hauetan jaso beharrekoa dela egoera zehatza, pertsonak izandako portaera, pentsatu duena eta maila fisikoko sintomak.

**c. Pentsamenduak aztertu, hizkuntza asertibitatearekin bat ez datozen ideiak detektatzeko:**

Hemen pertsonen auto-erregistroak aztertu egiten dira eta bizi izan dituzten hizkuntza egoeretan izan dituzten pentsamenduak aztertzen dira, hizkuntza asertibitatearekin bat ez datozen ideiak detektatzeko. Ondoren ideia horiei buruz eztabaidatzen da, hizkuntza asertibitatearen ikuspegitik izan dezaketen logika edo logika faltan erreparatuz.

**d. Hizkuntza asertibitatearekin bat datozen pentsamendu alternatiboak aukeratu:**

Hizkuntza asertibitatearekin bat ez datozen pentsamenduak aztertu eta gero, pentsamendu alternatiboak bilatzeko unea da. Horretarako Baliagarria izango da hizkuntza minorizatu baten egoerarekin zerikusia izan dituzten gaiak, lehenengo pausoa ikusitakoak, berreskuratzea, hizkuntza asertibitatearekin bat etor daitezkeen pentsamendu motak aukeratzeko lagundu baitezakete. Bereziki interesgarria izan daiteke hizkuntza ekologiaren ikuspegiaren berri ematea, hizkuntzen arteko elkarbizitza orekatua sortzea bilatzen duen 1990. hamarkadan sortutako paradigma berria.

Beraz, fase honen pertsonak hizkuntza asertibitatearekin bat etorriko diren pentsamenduak sortzen dituzte, beraiantzat baliagarriak suertatuko zaizkienak aukeratu eta barneratzen joango direlarik.


**e. Aukeratutako pentsamendu alternatiboak eguneroko bizitzan aplikatu**

Azken pausoa aukeratutako pentsamenduak praktikara eramatea da. Honela, pertsonak egoera jakin batzuen aurrean portaera aldatu eta hizkuntza asertibitatea praktikan jartzen dute. Horretarako orain arte hizkuntza asertibitatea erabili ez duten egoera jakin batzuen zerrenda egitea eskatzen zaie eta egoera horietan portaera aldatzeko konpromisoa hartzen dute. Ondoren noizean behin hartutako konpromiso horien betetze mailaren jarraipena egiten da.

**Hizkuntza asertibitatezko trebetasun sozialetan trebatzea**

Eztabaidatarako teknikak ikusi baino lehenago, elkarrekintzetan solaskide asertiboak hartu beharreko erabakien inguruko aipamen bat egin nahiko genuke. Azken batean hizkuntza asertibitatezko portaera eduki nahi duen pertsonak hainbat egoeren aurrean nola jokatu behar den jakin behar du, egoera horietan beste pertsonaren portaera kontuan hartuta.

Ondoko irudian elkarrekintza baten aurrean hartu beharreko erabakiak ikus ditzakegu:



5. irudia: Elkarrekintza baten aurreko erabakiak (Sangines eta Suay, 2008)

Irudian ikus daitekeenez, bi motatako elkarrekintzak aurreikus ditzakegu: eskari zuzenak eta erasoak edota kritikak. Galderak modu asertibo batean planteatutakoak izango dira, erasoak, aldiz, modu erasokorrean gehienetan.

Eskari zuzenen aurrean bi mota aurkitu daitezke: bata mintzakideak egindakoak, bestea beste norbaitek egindakoak (elkarrizketan sartu nahi duen hirugarren bat). Mintzakideak hizkuntza aldatzeko egin dezakeen eskaera zuzenaren aurrean komunikazio-baliabideak erabiliko ditugu. Egoerak ezberdinak izan daitezkeenez, TELP saioretan aurkezten diren egoera ezberdinen aurrean erabili daitezkeen baliabideak (kognitiboak eta komunikatiboak) aurkeztuko ditugu ondorengo taulan:

Pertsonen hizkuntza aldatzeko dauden maila ezberdinak eta hauei aurre egiteko baliabideak (Sangines eta Suay, 2008)		
MAILA	BALIABIDE KOGNITIBOAK	KOMUNIKAZIO BALIABIDEAK
1. Begi kolpean euskaldun itxura ez dutenak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gure aurreiritziak desmuntatu:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ze itxura du euskaldun batek?</li> <li>– Nola “dakit” ez duela euskaraz egiten?</li> </ul> </li> <li>Auto-elkarrizketa: <i>euskaraz probatuko dut</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argi hitz egin</li> <li>Keinuez lagunduta hitz egin</li> </ul>
2. Ez ulertzearen seinaleak egiten dituztenekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gure aurreiritziak desmuntatu:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Ni ez ulertzeak ez du esan nahi euskara ulertzen ez duenik</li> </ul> </li> <li>Auto-elkarrizketa: <i>ni ulertzen saiatuko naiz</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errepikatu</li> <li>Poliki-poliki errepikatu</li> <li>Altuago edo argiago hitz egin</li> <li>Keinuez lagunduta hitz egin</li> <li>Esplizituak izan: <i>ulertu al didazu?</i></li> </ul>
3. Mintzakideak euskara lehen hizkuntza gisa ez duelako “ebidentzia”	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gure aurreiritziak desmuntatu:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Pertsona batzuk euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzte / ikastea gustatuko litzaioke / ikasten ari da, baina oraindik ez du hitz egiten / ondo ulertzen du/...</li> </ul> </li> <li>Auto-elkarrizketa: <i>Agian mesede bat egingo diot. Euskaraz jarraituko dut, eta ikusiko dugu nola doan</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Esplizituak izan: <i>nahi al duzu poliki-poliki hitz egitea?</i></li> <li>Erantzunaren prebentzioa: <i>zerbait ulertzen ez baduzu esan iezadazu</i></li> <li>+ Errepikatu + Argiago hitz egin + Keinuez lagunduta hitz egin</li> </ul>
4. Mintzakideak euskaraz ez duela hitz egiten esaten digu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auto-elkarrizketa: ez du hitz egiten, baina ez du esan ulertzen ez duenik</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erantzunaren prebentzioa: <i>hitzen bat ez baduzu ulertzen, esan iezadazu</i></li> <li>Argi hitz egin</li> <li>Keinuez lagunduta hitz egin</li> <li>Esplizituak izan: <i>ulertu al didazu?</i></li> </ul>
5. Mintzakideak ez duela ulertzen esaten digu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreiritziak desmuntatu: euskara ulertu ez ≠ gaztelaniaduna izan</li> <li>Auto-elkarrizketa: <i>ea nola konpontzen dudan</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azaldu: euskaraz erosoago sentitzen naiz</li> <li>Esplizituak izan: zein hizkuntza hitz egiten duzu?                             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzak praktikatu</li> </ul> </li> <li>Keinuekin azaldu</li> <li>Gaztelanian egin</li> </ul>
6. Mintzakideak gaztelaniaz hitz egiteko eskatu edo exijitzen digu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Auto-elkarrizketa: <i>Gaztelaniaz hitz egitea nahi du. Nik zer nahi dut?</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Esplizitu egin:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Beste hizkuntzaren bat hitz egiten duzu?</li> <li>– Galdera bihurtu: <i>Esango al didazu zer nahi duzun zehazki?</i></li> </ul> </li> <li>Gaztelaniaz egin</li> </ul>

Elkarekintzan protagonista ez den hirugarren batek egindako eskaeren aurrean, eman beharreko erantzuna portaera hori desagerrarazi edota birbideratzea lortzekoa izan behar da. Adibidez honelako esaldiak erabiliz: *“Mila esker, beste honekin ari naiz hizketan”, “Barkatu, egongo naiz gero zurekin”, eta abar.*

Erasoen kasuan, hauek ez dute inor konbentzitu nahi, iraindu edota deskalifikazio moduan bakarrik ulertu daitezke. Portaera hori erakusten duen solaskide edota elkarrizketan sartu nahi duen hirugarren baten aurrean portaera hori desagertzera bideratuko duten portaerak izan behar dira erantzuna. Horretarako aurrerago ikusiko ditugun teknika batzuk baliagarriak izango dira.

Ondoren eztabaidetarako baliagarriak diren hizkuntza asertibitate adibideak emango ditugu. Teknika hauek entseatu beharra azpimarratu nahi dugu, horretarako rol-playing metodoak erabiliz. Bestalde, teknika hauek asertibitate orokorraren atalean ikusi ditugunez orain ez dugu berriz tekniken azalpena osoa emango, baizik eta gogoratzeko azalpen laburra, adibidearen egoeraren azalpen laburra (behar denean) eta elkarrizketa eredia bakarrik. Ez ditugu teknika guztien adibideak emango, baina bai hizkuntza gatazketara aplikatzeko egokiak direnen adibideak. Azkenik esan emango ditugun adibideak euskarari dagozkionak izango direla, baina hizkuntza ukipen egoeran dauden gutxitutako beste hizkuntza batera moldatzeko modukoak izan daitezkeela.

Era berean gogoratu behar da elkarrizketa berean teknika bat baino gehiago erabiltzea izaten dela ohikoena.

### **DISKO AKASTUNA<sup>1</sup>:**

EGOERA: Patxi bere herriko udalera joan da zergen okerreko kobrantza bati buruzko erreklamazioa egitera. Udaleko leihatilara hurbildu da.

PATXI: *Eguerdi on.*

UDALEKO LANGILEA: *Buenos días.*

PATXI: *Begira, duela hiru hilabete etxez aldatu nintzen eta udaleko zerga ez kobratzeko eskatu nuen, baina oraindik etxe zaharreko zerga kobratzen didazue udaletik.*

UDALEKO LANGILEA: *¿Cómo dice?*

PATXI: *Esan dizut duela hiru hilabete etxez aldatu nintzela eta oraindik etxe hartako zergak kobratzen dizkidazue...*

UDALEKO LANGILEA: *Lo siento pero no hablo euskara*

---

<sup>1</sup> Adibide batzuetan elkarrizketen egoera ahalik eta hobekien islatu nahian gaztelaniaz mantendu dugu testua. Beste batzuetan aldiz euskaraz zein gaztelaniaz eman daitezkeen elkarrizketak direnez eta egoera ulertzeko ezinbestekoa ez denez, euskaraz bakarrik jarri ditugu.

PATXI: *Baina ulertzen duzu esaten dizudana?*

UDALEKO LANGILEA: *¿Qué?*

PATXI: *Ez didazu ezer ulertzen?*

UDALEKO LANGILEA: *... lo siento pero no sé qué es lo que quiere.*

PATXI: *¿No me entiende absolutamente nada?*

UDALEKO LANGILEA: *No, no entiendo euskara.*

PATXI: *Está bien, por favor, puede llamar alguien que me pueda atender en euskara?*

UDALEKO LANGILEA: *Pues en este momento sólo estoy yo.*

PATXI: *Pero yo deseo ser atendido en euskara. Por favor llame a alguien que me atienda en euskara. (DISKO AKASTUNA)*

UDALEKO LANGILEA: *eh... es que los demás están ocupados en este momento.*

PATXI: *Alguien más habrá que pueda atenderme en euskara. Llámeme por favor. (DISKO AKASTUNA)*

UDALEKO LANGILEA: *Bueno, si llamo a alguien va a tener que esperar, por qué no me dice lo que quiere y se lo arreglo yo?*

PATXI: *Yo simplemente deseo ser atendido en euskara. Por ello le pido que llame a alguien que pueda hacerlo. (DISKO AKASTUNA)*

UDALEKO LANGILEA: *Pero es que va a tardar más tiempo!*

PATXI: *Usted simplemente llame a alguien que me atienda en euskara. (DISKO AKASTUNA)*

UDALEKO LANGILEA: *Está bien, está bien. (Barrura sartu da eta beste langile bat irten da)*

UDALEKO LANGILEA 2: *Zer nahi duzu?*

PATXI: *Begira, duela hilabete batzuk etxez aldatu nintzen eta oraindik...*

## **KONPROMISO BIDERAGARRIA**

Mikel eta Davidek enpresa berean lan egiten dute. Orain arte ez dute harremanik eduki baina gaur elkarrekin lan bat egin behar dute.

MIKEL: *Egun on David.*

DAVID: *Egun on. ¿Qué tal?*

MIKEL: *Ondo eta zu?*

DAVID: *Yo bien también. No había venido a esta parte de la empresa. Tenéis una oficina amplia, más que nosotros.*

MIKEL: *Bai, nahiko handia da, baina ez pentsa, denak batera gaudenean estu xamar egoten gara.*

DAVID: *Bueno ¿dónde nos sentamos?*

MIKEL: *Eskuinean dagoen bilera gelara joango gara eta han lasaiago egongo gara.*

DAVID: *Bueno, mira, el proyecto que vamos a desarrollar va a tener tres fases. A nosotros nos toca desarrollar la primera fase conjuntamente.*

MIKEL: *Bai hori esan zidan arduradunak. Baina zalantza bat daukat. Lehenengo fasean biok bakarrik egongo gara?*

DAVID: *eehh, bueno oye, una cosa. Es que yo no sé euskara y las reuniones vamos a tener que hacerlas en castellano.*

MIKEL: *Ez dakizula euskaraz? Baina orain arte dena euskaraz egin dizut eta ulertu duzu ezta?*

DAVID: *Bueno, aprendí algo en el euskaltegi. Entender ya entiendo algo. Pero hablarlo ya no.*

MIKEL: *Ukertzen badidazu ez dago arazorik. Nik euskaraz egingo dut.*

DAVID: *Oye, no quiero molestarte pero yo no me siento a gusto hablando en euskara, es que no se.*

MIKEL: *Bada, ni erosoago sentitzen naiz euskaraz hitz eginez. Aizu, zergatik ez dugu gauza bat egiten: Nik euskaraz egingo dut eta zuk gaztelaniaz egin. Biok ulertzen diogu elkarri. (KONPROMISO BIDERAGARRIA)*

DAVID: *¿Pero y si no te entiendo algo?*

MIKEL: *Ez dago arazorik berriz azaltzeko eskatu eta nik azalduko dizut. (KONPROMISO BIDERAGARRIA) Zer iruditzen zaizu?*

DAVID: *Bueno, nunca he mantenido una reunión en dos idiomas pero... en fin mientras podamos entendernos adelante.*

MIKEL: *Ziur nago arazorik ez dugula izango, dena ulertzen duzu eta! Noiz ikasi zenuen, duela denbora asko?*



DAVID: *Hace algunos años, cuando vine a vivir aquí empecé aprender un poco. Bueno volviendo al tema, en el proyecto estaremos los dos solos.*

MIKEL: *Ados, zalantza nuen ea beste pertsona bat etorri behar zen edo ez....*

## **LAINO GUNEA**

Gogoratuko denez, teknika hau egokia izan daiteke kritikei modu asertibo batean erantzuteko, kritiken aurrean erantzun emozional negatiboa gutxitzea ahalbidetzen du.

Teknika hau honako modu hauetan erabil daiteke:

### **1) Beste pertsonak adierazitako edozein egi onartu:**

JUAN: *Zu beti zabilta euskara egiten besteek ulertuko zaituzten edo ez pentsatu gabe!*

PEDRO: *Posible da nik beti euskaraz egitea. (LAINO GUNEA)*

### **2) Egiaren posibilitatea onartu:**

JUAN: *Beti egiten baduzu euskaraz batzuk ez dizute ulertuko!.*

PEDRO: *Baliteke nik beti euskaraz hitz egitea. (LAINO GUNEA)*

### **3) Besteak adierazitakoa egi orokor moduan onartu:**

JUAN: *Aizu Pedro, badakizu garrantzitsua dela bileretan esaten duzuna denok ulertzea, denok lana ondo egiteko. Beti euskaraz aritzen bazara batzuek ez dute ulertuko zer egin behar duten lanean. Ez duzu hori nahi ezta?*

PEDRO: *Baliteke denek ulertzen ez dutela uste dudanean ohitura aldatzea (LAINO GUNEA)*

## **GERORAPEN ASERTIBOA**

Kritika baten aurrean erantzuna atzeratzeko baliagarria da teknika hau; erantzun lasaiago bat ematea ahalbidetzen du.

ERDALDUNA: *Ohar taulan jarri duzun afarirako gonbidapena euskara hutsez zegoen eta nik ez dut ulertzen! Beti egiten duzu gauza bera!*

GERORAPEN ASERTIBOA: *Begira, hau oso gai interesgarria da eztabaidatzeko. Ondo iruditzen bazaizu, oraingoz utzi egingo dugu, lana daukat eta. Bihar lasaiago hitz egingo dugu horretaz, ados?*

## ENTZUNGOR EGITEA

Teknika hau norbaitek bere onetik aterata egiten duen kritikaren aurrean erabiltzekoa da. Ahots tonua zaintzea beharrezkoa da, tonu bereziki atsegina eta ulerkorra erabiliz, beste pertsonaren haserrea errespetatuz.

EGOERA: Lukas taberna batean sartu da eta euskaraz eskatu dio iparamerikar itxura duen zerbitzariari. Tabernan dagoen hirugarren pertsona bat (erdalduna) kargu hartu dio Lukasi zerbitzariak euskara ulertuko ez duelako.

LUKAS: *Kaixo egun on, atera bi garagardo, ardo beltz bat eta patata tortilla hiru pintxo.*

ERDALDUNA: *Hara! Falta zena! Hauei ere euskaraz egin behar diozue? Baina ez duzu ikusten ez dela euskalduna? Zuek beti berdin! Bost axola zaizue dena! Zuek zuenarekin jo eta ke eta hor konpon beste guztiak!*

LUKAS: *Barkatu, baina orain nire txanda da eta zerbitzariarekin ari naiz. (Zerbitzariari zuzenduz) Aterako didazu...*

Ondoren, lehenago aipatu ez ditugun beste teknika batzuen berri eman nahiko genuke, hizkuntza gatazka egoeretan baliagarriak direlakoan. Kasu honetan teknikak Ferran Suay eta Gemma Sanginés-en artikulua batetik atera ditugu (Sanginés eta Suay, 2008: 236-240).

## OPERAZIONALIZAZIOA

Teknika hau kritika edo eskaera behar bezala zehaztu edo definitu gabe dagoenean erabili daiteke. Helburua beste pertsonak gaitzetsitakoa operazionalizatzea da. Modu asko badaude ere hemen bi aipatuko ditugu:

a. Leporatzen dena nolakotasunei egiten dionean erreferentzia. Adibidez:

MIKEL: *Zu ergela zara!*

LOREA: *Zer esan nahi duzu ergela diozunean?.* (OPERAZIONALIZAZIOA)

b. Kopururari dagozkioneak. Egoerei, lekuei, pertsoneri edo jarrereri buruzko irain orokorren aurrean, zehaztasun handiagoa eskatzean datza. Erasoan honelako hitzak agertu ohi dira: beti, dena, inoiz ez, ezer,.. Horren aurrean erantzuna honelakoa izan daiteke:

EGOERA: Naroak ohar taulan ohar bat jarri du euskara hutsez.

AITOR: *Ohar taulako mezua euskara hutsez jarri duzu! Eta guztiok jakin beharreko informazioa dela iruditzen zait! Beti berdin egiten duzu!*

NAROA: *Zer esan nahi duzu "beti" esaterakoan? Zenbat aldiz egin dut? Zenbat aldiz zehazki? (OPERAZIONALIZAZIOA).*

### **GALDERA POSITIBOA**

Teknika honen helburua irtenbideak bilatzea eta beste pertsonari erakustea kritika egitea errazagoa dela irtenbideak bilatzea baino, batez ere egoera zailak direnean. Teknika solaskideari berak nola egingo lukeen galdetzean datza:

*Nola egingo zenuke zuk? Zure ustez, nola egin beharko litzateke?*

Hortik aurrera solaskideak irtenbideren bat emango digu edo balizko iradokizunen bat. Orduan aurrera eramateko prozedura nabarmenduko litzateke, solaskidea akitu arte:

*Bai, baina nola egingo zenuke? Bale, baina, nola egingo zenuke zehazki?*

*Bai, baina, non? Noiz? Nola? Norekin? Nondik?*

Azkenean, ohikoena da solaskideak honen antzeko zerbait esatea: *ez dakit, zure lana da, ezta?* Orduan honela erantzun daiteke: *Bai, noski, eta horrexegatik egin dut horrela. Ikusten dut puntu honetan ados gaudela. Horregatik jokatu nuen horrela.* Edo bestela: *Zure ustez, nola jokatu beharko nuke? Zure ustez, nola egin beharko nuke?*

### **EZEZKO GALDERA**

Pertsona batek kritika edo eskaera bat jasotzen duenean, solaskideak egindako eskaera edo kritikari horri buruz hausnarrarazteko erabiltzen da. Solaskideak bere ikuspegia ulertzen den inpresioa jasoko du eta irtenbide zehatzak bilatzen direla. Erabili daitezkeen formulak honakoak:

*Ez al duzu uste...? Zure ustez, ez...? Ez al diozu irizten...? Ez al zaizu iruditzen...?*

## ARGUDIO SOKRATIKOA

Teknika hau kritika baten aurrean, neurritz kanpoko eskaera baten aurrean edota solaskideak arrazoia izateko inolako aukerarik ez duenean erabili daiteke. Solaskideari esaten ari denari buruz hausnarraraziko dio eta, ziur asko, arrazoia ez duela ohartuko da. Erabiltzen diren formulak:

*Zertan oinarritzen zara hori baieztatzeko?*

*Zer froga dituzu esaten ari zarena esateko? Nola dakizu?*

Solaskidearen erantzunaren aurrean, formula bera erabiliko litzateke berriz, edo ematen dituen datu berriak eta hasierako baieztapena lotu egingo lituzke teknika erabiltzen duen pertsonak:

*Zer lotura du...? Horregatik..., orduan...?*

*Horrela bada beti..., orduan...? ...-(e)lako, orduan...?*

Azkenik gogora ekarri nahi dugu berriz ere azaldu ditugun teknika hauek konbinatu egin daitezkeela egoera batean. Hona hemen teknika batzuen konbinazioen bi adibide:

EGOERA: Naroak ohar taulan ohar bat jarri du euskara hutsez.

AITOR: *Ohar taulako mezua euskara hutsez jarri duzu! Eta guztiok jakin beharreko informazioa dela iruditzen zait! Beti berdin egiten duzu!*

NAROA: *Zer esan nahi duzu "berdin" esaterakoan?*  
(OPERAZIONALIZAZIOA).

AITOR: *Zer esan nahi dudan? Ba, berdin, modu berean!*

NAROA: *Beraz, gai berbera esan nahi duzu? Ala letra berberaz ari zara?*

AITOR: *Beti euskaraz jartzen duzula demontre!*

NAROA: *Eta zuk nola egingo zenuke? (GALDERA POSITIBOA).*

AITOR: *Ba gaztelaniaz, jende guztiak ulertzeko.*

NAROA: *Ondo, beraz zuk ohar bat jartzen duzunean gaztelaniaz jarriko duzu, ados? (KONPROMISO BIDERAGARRIA).*

\*\*\*\*\*

EGOERA: Aitorrek kafe makinan giltza batzuk aurkitu ditu. Horren berri emateko lankide guztiei e-mail bat bidali die euskara hutsez. Giltzen jabea

erdalduna da eta beste norbaitek esan dio bere giltzak Aitorrek aurkitu dituela. Erdalduna Aitorrengana joan da horregatik kargu hartzera.

ERDALDUNA: *Antza denez giltza batzuk aurkitu dituzu.*

AITOR: *Bai, zureak dira? Hementxe dituzu.*

ERDALDUNA: *Aizu, e-mailez bidali duzun mezua euskara hutsez zegoen!*

AITOR: *Bai hala da.*

ERDALDUNA: *Ondo irudituko zaizu gainera!*

AITOR: *Bada, bai. Zergatik ez zait ondo irudituko?*

ERDALDUNA: *Zergatik? Nik giltzen bila nenbilen eta zuk zenituela jakin gabe bidali duzun mezua gaztelaniaz ez zegoelako! Azkenean lankide batek esan behar izan dit zuk zenituela nire giltzak!*

AITOR: *Eta nola egingo zenuke zuk? (GALDERA POSITIBOA).*

ERDALDUNA: *Nola, ba mundu guztiak ulertzeko moduan! Gaztelaniaz noski! Beti gauza bera egiten duzu! Laneko kontuekin ere gauza bera egiten duzu! Ez zaizu axola bestei zer gertatuko zaigun! Zuk zurera bakarrik joaten zara!*

AITOR: *Zertan oinarritzen zara esateko ez zidala axola bestei gertatzen zaiena? (ARGUDIO SOKRATIKOA)*

ERDALDUNA: *Nik egunero ikusten dudalako!*

AITOR: *Ez al duzu uste norbaiten giltzak aurkitu ditudala abisatzea bestei buruz kezkatzea dela ? (EZEZKO GALDERA)*

ERDALDUNA: *Bai, baina nik beste norbaitek abisatu didalako jakin dut.*

AITOR: *Zuk zure giltzak berreskuratu dituzu beraz arazoa konponduta dago. Nahi baduzu bihar lasaiago hitz egingo dugu gai horretaz. (GERORAPEN ASERTIBOA).*

## 4. FAGOR ARRASATEKO EUSKARA PLANA

Akuilu taldeen interbentzioa bere testuinguru historiko sozialean kokatu nahiean, ondorengo orrialdeetan Fagor Arrasate enpresak euskararen normalizazioarekin izan duen harremanaren berri emango dugu.

Lehenik eta behin Fagor Arrasateri buruzko datu batzuk eman nahi genituzte, Fagor Arrasate Kooperatiba Elkartea 50 urteko ibilbide luzea duen kooperatiba da. Arrasaten jaio zen mugimendu kooperatibistaren aitzindarietako bat da. Gaur egun Euskal Herritik mundu zabalera begira ari den 500 langileko Kooperatiba da. Lantegiak ditu Arrasaten (2), Markinan, Donostian eta orain dela gutxi Txinako hego ekialdean kokatuta dagoen Kunshan-hirian beste lantegi bat martxan jarri dute. Txinan lantegiak kokatu dituzten euskal enpresen artean lehenengoetarikoa izan da Fagor Arrasate.

Makina-erremintako sektorean kokatzen du bere jarduna: automozio eta etxetresna ekoizleentzako makinak egiten ditu. Beraien jarduera dela eta kualifikazio handiko langileak ditu (ingeniariak, muntatzaileak,...).

Esan bezala, munduari begiratzen dio Fagor Arrasatek. Ez da harrizkoa, bezero gehienak Euskal Herritik kanpo baititu.

Euskara ezagutzari dagokionez, %80 inguruk euskaraz daki. Ohikoa denez jende helduagoaren multzoan euskaraz alfabetatu gabeko langile asko dago. Gazteen artean aldiz, euskaldun alfabetatuak dira gehienak.

Geroago zehaztasun handiagoz ikusiko dugunez, euskararen normalizazioaren aldeko kezka Fagor Arrasaten ez da azken urteetakoa, aspaldi datorren kezka baizik. Atal honetan Fagor Arrasate Koop. E.n azken hamarkadan garatu den euskara planari buruz jardun badugu ere, lehenengo Fagor Taldeko kooperatibek euskararen berreskurapen eta normalizazioan izan duten papera azalduko dugu. Azken batean Fagor Arrasateko euskara plana ez da ekintza isolatu bat, baizik eta testuinguru historiko sozial batean kokatzen den esperientzia bat. Horregatik iruditzen zaigu interesgarria azaltzea gaur egungo euskara planaren aurrekariak zeintzuk izan ziren, egungo esperientzia hobeto ulertzen lagunduko dutelakoan. Beraz hurrengo puntuan Fagor taldearen eta euskararen arteko harreman historikoa azalduko dugu eta ondorengoetan Fagor Arrasaten azken hamarkadan inplementatu den euskara planaren berri emango dugu, izan dituen hiru faseak azalduz.

## 4.1 FAGOR TALDEA ETA EUSKARA

---

*“Gure filosofiaren oinarria langileen parte hartzea da eta euskaraz hitz egitea kooperatiban benetan parte hartzea da”*

Juan Jose Ansoategi Fagor Taldeko lehendakaria

1955. urteko urriaren 20an bost gizonek Gazteizen enpresa bat erosi zuten. Garai hartako 400.000 pezeta (2.400 euro inguru) ordaindu zituzten. Beraien asmoa enpresa berri bat sortzea zen, bazkideez osatutako sozietate bat. Sozietate berriari sortzaileen abizenek osatzen zuten ULGOR<sup>2</sup> akronimoa izena eman zioten. Une hartan *Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa* izenez ezagutu izan dena lehenengo pausoak ematen hasi zen (Molina, 2005: 351; 2006:37).

Denbora gutxira, Arrasate eta bere inguruan industria kooperatiben hedapen bizkorra eman zen. 1957an Talleres Arrasate Kooperatibak<sup>3</sup> Lan Ministerioan erregistratu zen, Arrasateko lehenengo kooperatiba bihurtuz (Irizar eta Kareaga, 2003: 22). Urte haietan ere Ulgorrek Arrasaten bertan pabilioi bat eraiki zuen eta Fagor Elektronika kooperatiba sortu zen. Urte gutxitan langile kopuruan hazkunde nabarmena izan zuten hasierako kooperatiba hauek. Esperientzia Kooperatiboaren hastapena izan zen honetan, langileak oro har euskaldunak baziren ere, Kooperatiben sorrera bera, hizkuntzaren ikuspuntutik, erdalduna izan zen. 1950eko hamarkada hartan euskarak bizi zuen egoera ez zen batere pozgarria: prestigio falta, langileak euskal hiztunak baziren ere ez zeuden alfabetatuak eta horrek lana euskaraz egitea eragotzi egiten zuen, hizkuntzaren transmisio arazoak eta errepresio frankistak ezinezko egiten zuen euskararen aldeko aurrerapausoak ematea. Faktore horiek asko baldintzatu zuten langileen eguneroko dinamika hizkuntzaren aldetik. Hala ere, badirudi tailerretako hartu eman informalak euskarazkoak zirela. Aldiz, bulegoetako lanetan gaztelania zen nagusi (Intxausti eta Unanue, 2002: 40).

Hasierako urte haietan euskararen alde egin ziren ekintzen artean, hainbat langilek euskararen alde egindako eskaerak aipatu ditzakegu. Honela, Ulgor Kooperatiban 1963an euskara zabaldu, indartu eta laguntzeko eskaria egin zen lehen aldiz. Horretarako bazkide batek proposatu zuen obra sozialetara bideratutako fondoak horretarako erabiltzea. Eskaera ez bazen onartu ere, argi erakusten du hizkuntzarekiko kezka bazegoela pertsona batzuen artean. Horren erakusgarri dira baita ere ondorengo bi adibideak: 1973an memorian euskarak izandako tokia gutxi iruditu zitzaion bazkide bati eta hartutako akordioak euskaraz ere irakurtzea eskatu zuen. 1975ean hiru bazkideek hainbat eskaera egin zituzten euskara bultzatzera begira: batzarretan euskaraz egitea, postu batzuetarako

---

<sup>2</sup> Gaur egun Fagor Etxetresna Elektrikoak.

<sup>3</sup> Gaur egungo Fagor Arrasate

euskara beharrezkoa izatea, kooperatibako estatutuak eta erregelamenduak bi hizkuntzetan egotea eta kooperatiban sartzeko bazkide berriek euskara jakitea.

Fagor Arrasatera etorrira, bertan ere euskararen inguruko kezka azaltzen zuten langileak zeuden. 1976ko Kontseilu Errektoreko aktetan enpresako harremanetan euskara erabiltzeko proposamena agertzen da eta neurri batzuk ere proposatzen dira: bozgorailuetako deiak, ohar-paneletako deialdiak, barne-komunikaziorako idazkiak eta Kontseilu Sozialeko bilerak euskaraz izatea eta baita enpresako lanpostu klabeak euskara zekitenak betetzea (Irizar eta Kareaga, 2003: 187).

Fagor Arrasateko Batzar Nagusian<sup>4</sup> ere euskarari buruzko kezka agertu zen. Hona hemen Nikanor Mujika bazkideak aurkeztutako idatzia 1976ko martxoaren 16an egindako Batzar Orokorrean. Idatzia garai hartako euskararekiko kezken adibide garbia da:

*“Gutun hau bidaltzen dizut, ia biharko Batzar Nagusiko ‘Galdera-eskabideetan’ sartzeko biderik duzun.*

*Historia pixka bat:*

*Orain 60 urte edo, iritxi zen trenbidea, gure herrira. Eta berekin batera lehenengo etorkinak. Kastillakoak gehientsuanak. Aldi hartan, herri hau guztiz euskaldune zen, askoz era ez zekiten erdararik. Kanpotar honen beren seme-alabak, etxetik irten bestierik, euskara entzuten zuten alde guztietan. Aste gutxi barru farra-farra euskeraz egiteko gai ziren.*

*Baina urteak emanaz, jendea etorritz, eta hemengoak erdara ikasiz. Gure arteko norbaitek ez zekiela-ta bere aurrean euskara egitea ez zegoela ondo-ta, erdaraz hasi ginen.*

*Gaur denok dakigu, sail hontan, azkeneko urteetan izan dugun atzerakada. Makinabat euskalzalek ikusi du beherakada hau samintasunez.*

*Hau zuzentzeko asmoz, ikastola eta beste zenbait euskal kultur mugimento sortu da.*

*Denok dakizue, ikastolaren aldeko, gure artean egin den kanpaina. Pozez ikusi dugu erantzuna. Ehunetik gora izenpetu dute konprometituz hogeita mila pezeta ematen. Eskatu diegunetatik %60 edo baietza. Denok hilaren 5 ari zai egon arren, borondatez bi miloetatik gora eman da gure lantegian.*

*Bainan hau ez da neiko, euskal ekintza honi behar diogu lagundu. Gure ordezkariak Junta Social eta Rectora mailan, behar dute euskara ulertu, erreztasunik ez duenak euskaraz*

<sup>4</sup> Kooperatibako aginte organo gorenak, kooperatibista guztiek boto eskubidea dute bertan.



egin arren. Ez dezala inork euskara egiteko bildurrik izan bat-edo-on batek ez duelako ulertuko.

*Badakit baten egarriak asetzea ez dela erraza, sarritan. Bainan idazti honen ezpirituari begiratu, atzarakada izan dela gure arteko zenbait gora-behera; hots: Joxe Manueln irtetzea, Gabon-zorionak euskaraz ez bidalia, Bilboko Azokan Irratiz euskaraz ez egin beharra eta beste zenbait bider gure artean, euskaraz jakin eta ez ari.*

*Hau da dena. Barka zaidazue hainbat luzatu.”* (Irizar eta Kareaga, 2003: 318-319)

Aipatu ditugun langileen ekimen horiek Arrasaten 1960ko hamarkadan sortu eta hurrengo urteetan indartuko zen euskararen aldeko giroaren fruitu ziren. Garai haietan herritarrek hainbat ekimen antolatu zituzten euskara bultzatzeko eta mugimendu hau bertako lantegietan ere islatu zen. Mugimendu honen barruan kokatu ditzakegu lantegietako euskara planen sorburua izango ziren gau-eskolak. Garai haietan Arrasate herrian klandestinitatean euskara eskolak ematen ziren. 1976-77. ikasturtean 1.090 ikasle joan ziren Leintz bailarako gau-eskoletara eta 78 irakasle zeuden. Bertan sortu zen euskara eskolak kooperatibetara eramateko ideia. Gau eskoletako irakasle baten esanetan:

*“Gau-eskoletako ikasle gehienak langileak zirela ikusten genuen. Jende hori goizean lanera joaten zen arratsaldera arte, eta ondoren, hiru ordu izaten zituzten libre gau-eskoletara sartu aurretik. Aisialdi ordu horietan jendea entretenitu egiten zen eta askotan gau-eskoletako asistentzia nahiko baxua izaten zen. Ordutegi horiek ez zeuden beharbada langileentzako oso egokituak eta eskolak kooperatibetara eramatea pentsatu genuen. Gainera, klaseak kooperatibetan emanez gero, gau-eskoletara etortzen ausartzen ez zen talde zabalago bat eskuratuko genuela ikusten genuen, nolabait, erosotasun, ordutegi eta diru aldetik abantaila batzuk eskaintzen baitzituen.”* (Intxausti eta Unanue, 2002: 45).

Era honetan ezagutzen oinarritutako lehenengo euskara planak martxan jarri ziren kooperatibetan. Ularko<sup>5</sup> taldeak hartu zuen protagonismo handia euskara plan aitzindari hauetan. Ulgorrek prozesua abian jarri zuen 1976. urtean langile talde batek Kontseilu Sozialean (kooperatibako aholkularitza organoa) euskara plangintza bat egitea proposatu zuenean. Honen ondorioz kooperatiban lehenengo euskara komitea sortu zen. Euskararen aldeko ekintzaile

<sup>5</sup> 1975ean sortu zen taldea. Ularco industria-gunean zuen jatorria. Ondoren 1986. urtean Fagor Taldea izena hartuko zuen. Taldea hainbat kooperatibaz osatuta zegoen: Ulgor (Fagor Etxetresna Elektrikoak), Arrasate (Fagor Arrasate), Copreci, Fagor Elektronika, Fagor Ederlan, Fagor Industrial, Fagor Klima, Fagor Automation,...

hautentzat, lotura zuzena zuten kooperatibismoaren printzipioak eta euskararen aldeko konpromisoak. Euskara komite horrek euskara plangintzaren barnean sortutako *Euskalan* aldizkarian honela laburbiltzen zuten:

*“Egia da enpresen zeregina ez dela esanez erantzun daitekeela, baizik eta beste erakunde publikoen eragina dela, baina egia da baita ere enpresa bera ere erakunde gisa herriaren helburuen lorpenarekin modu aktiboan konprometitu behar dela, eta zer esanik ez erakunde kooperatiboan, zeinen doktrinan ez diren bakarrik interes ekonomikoak defendatzen, baizik eta baita ere interes sozial eta kulturalak.”* (Intxausti eta Unanue, 2002: 46).

Euskara komiteak inkesta bat pasa zuen eta emaitzen arabera langile asko euskara ikasteko prest zeuden eta langile kopuru handia prest zegoen irakasle lanak egiteko prestakuntza egoki bat jaso ondoren. Ulgorren sortutako planteamendu hau Ularcora bideratu zen eta 1977ko otsailean Ularcoko kontseilu Nagusiak hainbat ekintza bultzatzea onartu zuen: euskara eskolak emango zituzten langile-irakasleen formazioa, euskara batzordeak sortzea, arduradunak izendatzea eta neurri instituzionalak finkatzea.

Honela bada, prest zeuden langileen artean batzuk aukeratu eta euskara irakasle lanetarako prestakuntza jasotzea izan zen lehenengo urratsa. Ondoren, Ularco talde osoan eskolak ematen hasi ziren eta 40 taldetan banatutako 605 lagunek jaso zituzten euskara eskolak. Ikastaroak bi urtetan antolatu ziren. 8 hilabeteko ikastaroak ziren eta astean 4 egunetan ematen ziren, egunean ordu betez. Eskolak lan orduz kanpo ematen ziren, lanean hasi aurretik eta bukatu eta gero.

Ikastaro trinkoek ere izan zuten tokia lehenengo plangintza honetan. 1980. urtean udako ikastaro trinkoak antolatu ziren urtean zehar klaseetara joan ezin zen jendearen interesari erantzuteko. Uda hartan 20 ikasle joan ziren Copreci kooperatibak zuen txaletera ikastaro trinkoetara. Hurrengo urtean 41 izango ziren ikastaro trinkoetara joandakoak.

Aipatzekoa da ikastaro trinko haietara joandakoen artean kooperatibetako zuzendaritzako partaideak zeudela. Kooperatibetan zegoen euskararen aldeko mugimenduak lortu zuen zuzendaritza organoak ohartzea gaiaren garrantziaz eta organoetako kide batzuek ere konpromisoak hartu zituzten.

Euskara eskolak antolatzeko eta garapen egokia izateko sortu ziren euskara komiteak kooperatiba ezberdinetan (Arrasate, Copreci, Fagor Ederlan, Fagor Elektronika, Fagor Industrial). Beste eginkizun batzuk ere hartu zituzten euskara komite hauek, hala nola hitzaldiak antolatu, film emanaldiak, *Euskalan* aldizkaria,... Euskara komite hauetako partaideak kooperatiban funtzio

ezberdinak betetzen zituzten langileak ziren: euskara eskoletako irakasleak, Kontseilu Sozialeko eta pertsonal departamentuko ordezkariak eta kasu batzuetan kooperatibako euskara teknikaria.

Euskara komite hauen ordezkariekin Talde osoko ikuspegia izango zuen Ularcoko komite zentrala eratu zen. Komite zentral honek Kontseilu Orokorrari ekimenen berri ematen zion eta beste erakunde eta instituzioekin harremanak izaten zituen. Koordinazio orokorrerako arduradun bat zuen komite zentral honek eta bere eginkizunen artean honakoak zeuden: irakasleei klaseak ematea, ikastaro trinkoak antolatzea, koordinatzaileen bilerak deitu eta zuzendu, txostenak idatzi, enpresa hiztegiaren ardura,...

1979an ordura arte egindako lanaren balorazioa ez zen oso baikorra izan. Hainbat hutsune detektatu ziren, hala nola ikastaroen jarraipen eskasa, komiteetako bilerak lan orduz kanpo zirela eta asistentzia urria, lanpostu batzuetan euskara jakitea beharrezkoa bazen ere, ez zen errealitatean gauzatzen, langileen kontzientzia hartzearekin lotutako hutsuneak (bilerak oraindik gaztelaniaz, lantegiko arazoetaz hitz egiterakoan euskararik ez zen erabiltzen) eta abar.

Balorazioa egin ostean, indarrak berriz hartuta, plangintzarekin jarraitu zen. Lanpostuetarako euskara ezagutzari buruzko irizpide berriak jartzea erabaki zuen Ularcoko Kontseilu Nagusiak eta hurrengo urteetarako helburuak finkatu ziren.

Euskararen aldeko mugimendu hau martxan zegoenean, hainbat faktorek eragin zuten plangintzen beherakada nabarmena. Alde batetik, mundu mailako krisi ekonomikoa etorri zen. Kooperatibek krisiak eragindako egoera berriari moldatu behar izan zuten, eta euskararen plangintza barruan antolatutako gauza asko bertan behera utzi behar izan ziren krisiak eragindako ondorioengatik: liberatuta zeuden teknikarien lanpostuak desagertu ziren, aldaketak gertatu ziren lanpostuetan eta zeharkako lanpostuetan ari zirenak zuzeneko lanpostuetara pasatu behar izan zuten, erreleboak sortu ziren euskara eskolak asko baldintzatuz,...

Egoera ekonomikoaz gain, egoera soziopolitikoa ere faktore erabakigarria izan zen. Franko hil ondorengo hasierako urteetako ilusioa agortzen joan zen eta pentsamolde aldaketa bat ere eman zen gizartean, egoera idealizatua alde batera utzi eta errealitatean kokatu baitzen jendea. Era berean, eskoletan ikasten ari zen jendearen nekea azaleratu zen, eskolen metodologia ez baitzegoen oso landua eta aurrerapausoak nekez ikusten baitziren. Plangintza aitzindari hauek ezagutzara begira egindakoak ziren heinean, aipatutako azken arazo horiek eragin nabarmena izan zuten plangintzen beherakadan.

Arrazoi hauek guztiak honela azaltzen zituen Fagor Etxetresna Elektriako enpresako Kontseilu Sozialeko iraunkorrek garai hartan:

*“Erabakiak ez betetzeko arrazoiak aztertzerakoan, erabili den arrazoirik garrantzitsuena ‘euskal gizarteak oro har bizi izan duen aldaketa’ izan da. 1975-80 urteetan izan zen askatasun eta autogobernu leherketa ideologikoaren ondoren, 80ko hamarkadan beste faktore batzuk agertu ziren: krisi ekonomikoa, langabezia eta nazionalismoaren ‘berotasuna’ jaistea, eta ondorioz, euskara ikasteko eta erabiltzeko kontzientzia gutxitzea. Euskal gizartearen aldaketa hori kooperatibetan ere islatu zen. Arrazoi nagusi horrekin batera badira beste batzuk: euskara irakasteko erabilitako sistema eta, bestalde, krisiaren ondorioz, Ulgor eta Fagor mailan euskara teknikari postuak galtzea. Euskarak eta euskara ikasten ari ziren bazkideak bultzatzeko indarrak eta kontzientziatze-kanpainak behera egitea eragin zuen horrek.” (Intxausti eta Unanue, 2002: 53-54).*

Honen guztiaren ondorioz, euskara irakasle gisa ibili ziren langileek irakasle lanak utzi zituzten eta hurrengo urteetan euskara eskolak HABE eta AEK bezalako erakundeen esku geratu ziren. Ikasle kopurua dezente jaitsi zen arren, kooperatibek jarraitu zuten laguntza ekonomikoak ematen eta gelak erabiltzeko aukera ematen.

Euskara plan hauen beheraka eman bazen ere, horrek ez du esan nahi Fagor Taldeko kooperatibek guztiz baztertu zutenik. Egoera berrian Ularcok euskara planei buruzko helburua berriz definitu zuen, garai hartan hartutako erabaki batzuk praktikara eramanez ez ziren arren. Hona hemen Ularcok definitutakoa:

*“ULARCOK enpresako harremanak euskalduntzeko erabakia mantendu eta berresten du, horrela bere funtzio soziala garatuz eta Euskal Herriaren sakontasuneko helburuarekin identifikatuz. Era honetan, ULARCOK onartu egiten ditu helburu honek bere baitan sortzen joango den sormenari buruzko etengabeko erronka eta tentsioak, gaur eguneko gure gizartearen ezaugarri diren diglosi egoeraren eta borroka linguistiko isla gisa.” (Intxausti eta Unanue, 2002: 55).*

Urte batzuetako nolabaiteko hutsunearen ondoren, 1980. hamardaka erdialdera, Arrasate herrian sortutako AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) elkarteak bultzatuta, berriz ere enpresetan euskararen aldeko ekimenak sortu ziren. AEDtik sortutako *Euskalan* taldea sortu zen eta euskara batzordeak eratzeko proposamena bidali zuten herriko hainbat enpresetara. Mugimendua berriz ere gorpuztuz joan zen eta 1990. hamarkada hasieran hainbat ekimen garatu ziren Fagor Taldeko kooperatibetan (Euskara batzordeak sortzea, *Geurean* aldizkaria, euskararen aldeko ekimenak antolatzeke diru laguntzak).

Urte horietan egindako lana da gaur egun martxan dauden euskara planen hazia. Aurreko euskara plangintzen beherakadaren ondorioetatik ikasi eta berriz ere hutsune berberak eman ez zitezten oinarri batzuk jarri ziren. Horretarako planak bakarrik ezagutzara begira egon beharrean, erabilerara begira egon behar zutela ondorioztatu zen, honela euskaldunen hizkuntza-ohiturak kontuan hartzen ziren eta berauek aldatzea helburu garrantzitsua zen. Horrek ez du esan nahi beste faktoreak alde batera utzi behar zirenik. Ezagutza nahikoa lortzeko eta motibazioa etengabe lantzeko ekintzak egingo ziren. Era berean ideia berri bat sortu zen: instituzionalizazioa ideia honekin adierazi nahi zen hizkuntza aniztasuna enpresak berak kudeatu beharreko arlo bat gehiago dela, errentagarritasuna, kalitatea eta segurtasuna bezala. Baina plangintzaren iparra betiere erabilera bultzatzea izango zen. Ideia hau euskara plangintza berrien izenean ere islatu zen: euskara erabilera planak.

Bestalde, krisi egoerak ziklikoak izan ohi direnez, etor zitezkeen krisi berrien ondorioz euskara plan berriak bertan behera ez gelditzeko, kooperatiben irabazien zati batetik elikatuko zen fondo bat osatu zen. Fondo hau sortzerakoan Fagor Taldeak bere kooperatibetan euskararen normalizazioaren izaera estrategikoa berresten zuten, prozesu luzea izango zela onartuz eta proiektuaren etorkizuna ziurtatzeko neurriak hartuz.

Era honetan, 1998. urtean Fagor Taldeak euskara planak egiteko hitzarmena sinatu zuen Emun kooperatibarekin. Hitzarmenaren helburua Fagor Taldea osatzen zuten kooperatibetan euskararen erabilera eguneroko komunikazio hizkuntza izateko planifikazioa egin eta ezartzea. Hitzarmena sinatzerakoan Fagorreko lehendakaria zen Juan Jose Ansoategik lau arrazoi aipatu zituen Fagorrek konpromiso hau hartzeko: kooperatibek Euskal Herriarekiko duten konpromiso eta filosofiarekin bat zetorrela hitzarmena, kooperatibetan sartzten diren bazkide berriek euskaraz aritzeko gaitasuna dutela, euskara batzordeetatik bideratutako eskaera sozial zabala zegoela eta bailaran euskararen normalizazioa lortzeko egiten ari ziren beste ekimen batzuekin lotzen zela (Euskalan, euskarazko hedabideak, euskara elkarteak,..).

Urte haietan hasi eta gaur egunera arte Fagor Taldeko kooperatibetan garatzen ari diren euskara planek, desberdintasunak desberdintasun, ezaugarri orokor batzuk dituzte eta berauek aipatuko ditugu modu laburrean bada ere.

Alde batetik helburuak erabilerara begira ezartzen dira. Norabide orokorra honela azaldu dezakegu: euskaraz lan egin nahi duen langileak aukera guztiak bermatuta edukitzeaz gain, aukera horiek aprobetxatzeko sustatze lana egitea. Beraz, euskara planeko gainerako arloak, ezagutza, motibazioa eta instituzionalizazioa edo erakundetzea, erabileraren mesedetan antolatzen dira.

Ezagutzaren kasuan euskara eskoletaz gain, langilearen zereginetan garrantzia berezia duten lanpostuak identifikatu eta euskara ezagutza mailak ezarri dira berauetarako eta laneko terminologia ezagutu eta erabiltzera begirako ekintzak antolatzen dira.

Motibazioari dagokionez, gero eta garrantzia handiagoa hartu du urteen joan etorrian. Langileek gaztelania erabiltzera bultzatzen duten barne eta kanpo faktoreak indartsuak dira eta euskararen erabileran eragina dute. Horregatik langileen motibazioan eragitea ezinbestekoa da, hiztun mota bakoitzaren ezaugarrietara moldatuko diren motibazio ekintzak gauzatuz. Honela ekimen batzuk euskaldun osoentzako bideratzen dira, hizkuntza koherentzia lantzerantz begira (lan honetan azaltzen ari garen Akuilu taldeen interbentzioa arlo honetan kokatu dezakegu); beste ekimen batzuk erabilerara eta neurri apalago batean hizkuntza koherentziara; azkenik, euskara ez dakitenei begirako ekintzak ere antolatzen dira.

Instituzionalizazioaren arloari begira jarrita, lehen aipatu dugu zein den hitz honen atzean dagoen ideia nagusia: euskara plana enpresak berak kudeatzea, enpresarentzat garrantzitsuak diren beste arlo batzuk bezala. Azken batean, euskara plana ezin da enpresaren periferian kokatutako arlo bat izan, atzera ala aurrera egingo duena langile kopuru baten nahiaren menpe. Arlo honetan kokatu ditzakegu azken urteetan prozeduren edota arauen bidez araututako hainbat alderdi: komunikazioa, irudia, lan tresnak, lan formazioa eta kontratazioa.

Horiek dira 1990eko hamarkada bukaeran Fagor Taldeko kooperatibetan martxan jarritako euskara planen ezaugarri nagusienak. Enpresa desberdinetaz ari garen neurrian, beraien arteko desberdintasunak egon badaude, euskara planak enpresa bakoitzaren egoerara egokitu behar baitira. Baina desberdintasun horiek hein handi batean erritmoari dagozkionak dira. Kooperatiba batzuek aurrerapausoak lehenago egin izan dituzte eta beste batzuek geroago. Akuilu taldeen interbentzioa kooperatiba horietako batean gauzatu zenez, Fagor Arrasaten alegia, ondorengo orrialdeetan kooperatiba horretan azken hamarkadan martxan egon den euskara planari begira jarriko dugu gure begirada. Horretarako E. Apaolazak eta J. Alustiziak idatzitako *“Ez da eremurik haizea sartzen ez denik”* (2005) artikuluan zehaztutako hiru faseetan banatuko dugu gure azalpena.

## 4.2 HEGO HAIZEA FAGOR ARRASATEN (1999-2002)

---

*“Ez dago haizeak astindu ez duen zuhaitzik”*

Esaera hinduarra

Fagor Arrasateko euskara planaren abiatze fasea 1999an martxan hasitako euskara planarekin hasten bada ere, fase hau ez zen hutsetik abiatu, aurreko urteetan Fagor Arrasaten bertan hainbat

ekimen egin baitziren. Nolabait adierazteko gaur eguneko euskara planaren *aurre-historiari* buruz ari garela esan genezake.

Lehenago aipatu dugun moduan, 1990eko hamarkadan *Euskalan* elkarteak Arrasateko enpresetan egindako sustapen lanen ondorioz, hainbat enpresetan euskara batzordeak sortu ziren. Fagor Arrasate horietako bat izan zen. Hainbat euskaltzale elkartu eta sortu zuten Fagor Arrasateko euskara batzordea. Kide batzuk Kontseilu Sozialeko kide ere bazirenez, hainbat gauza euskaraz egiten hasi ziren: aktak euskaraz jaso, gehien erabiltzen ziren inprimakiak (lan-bonoak, akats-orriak,...) euskaratu. Belaunaldi berri honek egindako ahaleginak aurreko atalean aipatu ditugun aurreko belaunaldien ahaleginekin lotu ditzakegu, Fagor Arrasaten beti egon baita euskararen lekukoa eramateko prest zegoen langilerik.

1997 urte hasieran euskara batzordeak hainbat ekintza planteatu zituen urtean zehar egiteko. Beste batzuen artean langileek zuten euskara maila jakiteko galdetegi bat egin, lanpostu bakoitzak behar zuen euskara maila zehaztu (*Euskalan*-en esku), euskaltegian izena emango zuten 5 bazkide bilatu, dokumentu erabilienak euskaratu, euskarazko software lizentziak eta hiztegiak erostea, eta abar.

Honenbestez gaur egun martxan dagoen euskara planaren abiatze fasera heldu garela esan dezakegu. Euskararen aldeko ekimenak gero eta ekintza gehiago zituen eta dedikazio handiagoa eskatzen zuen. 1998ko hasieran Fagor Taldeko Lehendakarien Batzordean sortutako euskararen erabilera normalizatzeko planak egiteko proposamena etorri zen eta EMUN Koop. E.rekin sinatutako hitzarmena. Maiatzean Fagor Arrasaterentzat euskara plan zehatz bat diseinatzea eta martxan jartzea onartu zen. Era honetan, diagnostiko bat egin zen eta diagnostiko horretan oinarritutako euskara plana 1999ko martxoan Kontseilu Errektoreari aurkeztu zitzaion. Ondoren, Kontseilu Sozialari eta Zuzendaritzari aurkeztu eta gero, 1999ko maiatzean euskara planari ekin zitzaion.

Lehenengo plan hau proiektu pilotu moduan planteatu zen eta estanpazioko negozioa eta zerbitzu orokorretako departamentuak hartu ziren eragin esparru moduan, baina ez enpresa guztia. Gauzak horrela, abiatze fase honetan helburuak departamentuka jarri ziren. Ardatz nagusia erabilera izanda, ahozko eta idatzizko helburuak landu ziren. Enpresako departamentu bakoitzean zegoen ezagutza aztertu eta beharrak identifikatuta formazio ekintza batzuk ere planteatu ziren. Horretaz gain, departamentu guztietan, prestutasuna agertu zuten pertsonekin erabilera taldeak sortu ziren. Erabilera talde hauen bidez erabilera helburuak landu ziren eta baita motibazioa bultzatu ere. Era berean talde hauetan oinarritzko formazioa ere jaso zuten langile euskaltzaleek, beraien lana euskaraz egiteko lagungarria izan zena (Apaolaza, eta Alustiza, 2005).

Honela, mugimendu nahiko handia sortu zen enpresan euskara planaren inguruan. Erabilera taldeetako bileretara 130 pertsonatik gora joaten zen eta langile hauek euskara gehiago erabiltzeko

konpromiso pertsonalak hartu zituzten, bai ahozkoan eta baita idatziz sortzen zituzten dokumentuetan (oharrak, e-mailak, dokumentu laburrak, irudia,...).

E. Apaolaza eta J. Alustizaren artikuluan esaten denez, euskara planaren lehenengo pauso hauek behetik gorako bide bat jarraitzen zuten, hau da, langileen erabaki eta jardunaren bidez euskararen erabilera handitu egin zen enpresan. Lorpen hau euskaltzaleei zegokien, enpresak ez baitzuen gestio erabakirik edota hizkuntza politikarik hartu. Beraz, gaur egungo euskara plana sortzea enpresako langileen eskaria izan zen eta ez kanpotik edota goi organoetatik eratorritako erabaki bat. Era berean, euskara planaren abiatze fase honetan ere langile horien ekimenak izan zuen garrantzia handia. Are gehiago enpresaren aldetik ez zegoenean inolako erabakirik euskararen erabilera handituko zuten neurrien inguruan. Horrek eragozpen eta oztopoak sortzen zituen, noski, batez ere norberaren eragin esparrutik departamentu guztikora, departamentu artekora edota enpresa guztikora pasatzerakoan. Ideia hau hobeto ulertzeko ikus dezagun artikuluan aipatutako adibide bat:

*“norberaren esku dago euskara gehiago erabiltzea kafe orduan inguruko langileekin, baina ez dago norberaren esku programa informatiko bat euskaraz jartzea, zenbait departamentuk erabiltzen dutelako, inbertsio bat egin behar delako eta honek guztiak departamentuen arteko koordinazioaz gain, langile baten erabakia baino zerbait gehiago behar duelako.”* (Apaolaza eta Alustiza, 2005: 79)

Beraz hasierako fase honetan euskara planaren eragina eremu pertsonalean oinarritu zen, Euskara planak eragina izan zuen bertan parte hartzea erabaki zuten langileengan. Beraien eskariz sortu eta lehenengo pausoak eta lorpenak euren ekimenez lortu ziren. Euskaldunen artean euskararen aldeko giroa onerako berotu zen. Horregatik guztiagatik garai honi “hego haizearen garaia” deitu izan zitzaion. Jakina den moduan hego haizea behetik gora dator eta beroagoa izan ohi da.

Garai honetako lorpen nagusien artean aipatzekoa da ahozko erabilerak lortutako igoera handia. Egindako neurketen arabera %21etik %31ra pasa zen erabilera. Horretaz gain ezagutzen ere igoera eman zen %68tik %73ra pasatuz. Azkenik, motibazioari dagokionez, fase honetan euskaldun askok euskararen aldeko kontzientzia hartzeko balio izan zuen.

Lehen aipatutako arrazoiengatik, euskara planaren gabeziak euskara enpresaren ohiko gestioaren barnean ez egoteak sortutakoak ziren. Langileek hartutako helburu pertsonaletan bakarrik lortzen zen eragitea. Enpresaren gestio sisteman euskararen erabileraren alde egingo zuten neurriak hartzeko nahiko indar ote zegoen eta zeregin batzuk euskaraz egitera derrigortzea zer neurritaraino



egin zitekeen ez zegoen argi. Azken kezka honek garamatza gaur egun euskara planaren ibilbidearen hurrengo fasera.

### 4.3 IPAR HAIZEA FAGOR ARRASATEN (2002-2004)

---

*“Euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da kooperatiban. Erabiltzeko eta poliki-poliki ezartzeko, beharrezko neurriak hartuko dira”*

Fagor Arrasate Koop. E., Estatutu Sozialak, 2. xedapen gehigarria.

Euskara planaren lehenengo hiru urteak amaitu eta gero, beste hiru urterako plana martxan jarri zen eta oraingoan aurreko fasean euskara planetik kanpo gelditutako negozioetan ere ezarri zen. Honela, 2002tik aurrera siderurgiako eta transferentziako negozioak ere barne hartu zituen euskara planak eta baita ere Donostian kokatutako lantegia ere.

Fase honetan erabilera helburu batzuk erabilera taldeekin lantzen jarraitu bazen ere, beste batzuk enpresako arduradunekin adostu ziren eta arduradunen helburuen artean kokatu ziren. Era honetan euskara planak lehenengo pausoak egin zituen enpresaren gestio sisteman txertatzeko. Honela, pertsonal departamentuaren esku gelditu ziren kontratazioari eta formazioaren inguruko helburuak, informatika departamentuak programetan hizkuntza aukera sartzekoari buruzkoen ardurak hartu zuen eta gerentzia komunikazio, gestio eta arduradunen euskalduntzearekin lotutako helburuetaz arduratu zen.

Aurreko fasean ikusi dugun behetik gorako bideak zituen gabeziak aztertu eta gero, bigarren fase honetan euskara batzordea jabetu zen euskara plana instituzionalizatu egin beharra zegoela. Ezin zuela langile talde baten eragin eta bultzadaren esku bakarrik gelditu. Euskara plana enpresan txertatu egin behar zen enpresaren periferian kokatutako zerbait ez izateko. Horretarako kooperatibaren ohiko gestioa erabili behar zen eta horrek enpresako gestio erremintak erabiltzea (gestio plana, plan estrategikoa,..) zekarren.

Horrela, 2002an Euskara Batzordeak Zuzendaritza Batzordeari proposatu zion euskararen normalizaziorako planaren helburu batzuk departamentu bakoitzeko gestio planean sartzea. Proposamena onartu egin zen eta euskara planaren helburuak enpresako arduradun naturalen zeregina ere izatera pasatu zen. Honela, helburuen inguruko azalpenak Kontseilu Errektoreak zein gerentziak eskatzen ditu, euskaren normalizazio helburuak enpresako beste edozein helbururen mailan zeuden (Irizar eta Kareaga, 2003: 322).


Instituzionalizazio prozesu honek hainbat abantaila zituen. Honela, euskara planean ezarritako helburuak enpresako beste helburuek (produkziokoak, komertzialak,..) zituzten tratamendu bera izan

zuten. Babes eta ziurtasun handiagoa lortu zuen euskara planak, borondatearen menpe erabilera taldeetan hartutako helburuak bakarrik gelditzen zirelako, baina gestio sisteman jarritako helburuak bete egin behar ziren. Azkenik, koordinaziorako erraztasun handiagoa lortu zen, enpresako erabaki eta koordinazio organoak euskara planaren mesedetan erabiltzea ahalbidetu baitzen.

Horretaz gain, euskararen erabilera eta ezagutza arautzeko lanak ere egin ziren. Horretarako lehenik eta behin euskara planaren norabidea zehaztu beharra zegoen. Horren emaitza izan zen langile bakoitzak nahi zuen hizkuntza ofizialean (euskara ala gaztelania) lan egiteko aukera bermatu behar zela. Helburua finkatu ondoren, enpresaren gestio sistema barruan kokatutako prozeduren baitan euskararen erabilerarako funtsezkoak ziren arloak arautu ziren. Helburua, betiere, euskaraz lan egin nahi zuen langile orok euskaraz lan egiteko aukera hori bermatze aldera joatea zen. Horretarako hainbat arlo arautu ziren fase honetan: formazio eta sentsibilizazioa, lan formazioa euskaraz jasotzeko aukera zabaltzeko; inbertsioak, erositako hornigaietan hizkuntza aukera bermatzeko; lan tresna informatikoak, aplikazioak euskaraz ere erabili ahal izateko; komunikazioa, enpresako jakinarazpen orokorrak euskaldunek euskaraz irakurtzeko aukera izateko; eta produktuari dagokionez, kontuan hartu behar da bezero gehienak Euskal Herritik kanpokoak direla, baina hala ere Euskal Herrirako eskaintzan euskarazko makinak erosteko aukera eskaini izan da eta bezero batzuek eskaintza hori aprobetxatu izan dute, hala nola Fagor Etxetresnak, Estampaciones Bizkaiak eta Durangoko tailer txiki batek.

Poliki-poliki euskaraz lan egiteko aukerak handitu egin ziren. Kasu honetan, aurreko ipar haizearen kontrako norabidea hartu zuen euskara planak neurri batean. Goitik beherako bidea egiten zuenez eta giro hotzago baten barnean kokatzen zenez, "ipar haizearen garaia" deitu izan zaio. Giroa hotzagoa zen erabilera taldeetan hasieratik ibilitako jendearen zeregin asko enpresaren egituren baitan sartu zirelako eta neurri batean langileen parte hartzea euskara planean urritu egin zelako. (Apaolaza eta Alustiza 2005: 80).

Garai honetako instituzionalizazio prozesuaren barruan kokatu dezakegu Batzar Nagusia euskaraz egiteko Kontseilu Errektoreak hartutako erabakia. Aurreko urteetan Batzar Nagusian atal batzuk euskaraz jorratzen ziren, baina Batzar Nagusia batez ere gaztelaniaz egiten zen. Euskara planean enpresako organoen inplikazioaren erakusgarri, 2002tik aurrera Fagor Arrasateko Batzar Nagusia euskaraz egiten da eta euskara ulertzen ez duten langileentzako aldi bereko itzulpen zerbitzua jartzen da. Fagor Arrasateko Batzar Nagusietan euskararen ahozko erabileraren ibilbidea ikus daiteke 4. irudian



6. irudia: Fagor Arrasateko Batzar Nagusietako euskararen ahozko erabilera

Fase honetan lortutakoen artean aipatu behar dugu, garrantzia berezia duelako, euskara planaren misio edo norabide garbi bat zehaztu zela. Misio horrek eragina izango zuen hartutako erabaki askotan eta urtez urte jarritako helburuetan. Era berean fase honetan hartutako erabilera helburuek pisu berezia hartu zuten, hala nola, programa informatikoak euskaraz ere erabiltzeko lanak egitea, hizkuntzen arteko aukera egin ahal izatea bermatu behar zuten lanpostuetako pertsonak euskaldunak izateko euskalduntze selektiboak bideratzea. Fase honetan ere ahozko erabilerak gora egin zuen, %35etik %45era pasa zen.

#### 4.4 BADATOR TRAGANARRUA! (2005ETIK AURRERA)

*Traganarru: Traganarrua edo tragarroia haize-zurrumbilo gehienetan indartsua da, hodei-zutabe edo kumuloninbo baten azpitik irteten den hodei-kono alderantzikatu eta inbutu-formako gisa azaltzen dena, azpian itsasotik jasotako ur-tantaz edo lurretik jasotako hauts, harea edo zaborrez osaturiko anabasa bat eduki ohi duena"*

Wikipedia.

Ikusi dugun moduan, aurreko fasean euskara planaren instituzionalizazio lanak berarekin ekarri zuen langileen parte hartzearen maila txikiago bat. Joera hori zuzendu nahian, aurreko bi faseetako gauzarik onenak integratu nahi izan dira azken urte hauetan Fagor Arrasateko euskara planean.,

Horregatik goranzko eta beheranzko ibilbideak kontuan hartu izan dira, helburuak eta egitasmoak planteatzerakoan. Hori dela eta, fase honi traganarrua deitu izan zaio (Apaolaza eta Alustiza 2005: 81). Traganarruak itsasoan sortzen diren haize korronteak dira, tragarroi eta tornadoak ere deitzen dira. Traganarru hauen ezaugarri bat da kanpotik haize hotza dakartela goitik behera eta barrutik haize beroa igotzen dute behetik gora. Traganarruaren metafora honek argi erakusten du azken urteetan Fagor Arrasateko euskara planaren baitan iparra izan den norabidea, instituzionalizazio lanak egin baina langileen parte hartzearen indarra albo batera utzi gabe. Neurri batean aurreko bi faseetako bakoitzak zituen gabeziak beste fasean garatutakoekin estali zitezkeela oharturik, fase berri honetan praktika, gestio eta abarrei eutsi zitzaaien eta langileen parte hartzea berriz ere indartuko zuten egitasmo batzuk martxan jarri ziren. Akuilu taldeak azken hauetako egitasmo bat izan ziren.

Euskara planarentzat eragile euskaldunen garrantzia berebizikoa da. Eta eragile euskaldunei buruz hitz egiterakoan motibazioaz hitz egitea ezinbestekoa bilakatzen da. Hori dela eta, fase honetan motibazioak sekulako garrantzia hartu zuen. Motibazio horren baitan kokatzen dira Fagor Arrasaten euskararen aldeko diskurtso indartsuak eta portaeran eragiteko sentsibilizazio ekintzak eta formazioak. Honekin lotu nahi izan dena zera da, euskararen eskaria bizia eta ausarta izatea, alde baterik, eta bestetik, langileek euskaraz lan egin nahi izanez gero, beraien egunerokotasunean oztopo material edo pertsonalik ez edukitzea. Bi helburu hauetan gauzatzen dira aurreko ataletan ikusitako behetik gorako eta goitik beherako ibilbideak.

Enpresa egiturari hizkuntza aukera bermatzea dagokion moduan, ezinbestekoa da langile euskaltzaleen parte hartzea. Alde batetik beraien euskaldun oso moduan funtzionatu ahal izango dutelako enpresak lana euskaraz egiteko aukera bermatzen dien heinean. Beste alde batetik, beraien eragiletzari esker, euskararen erabilera areagotzeko eskaria handitu egingo delako enpresa barruan, horrek enpresaren euskararen alde hartutako erabakiei pisu soziala emango dielako, eta neurri berriak eta sendoagoak hartzera ere bultzatu baitezake eragiletza horrek. Era honetan zirkuitu bat izango balitz moduan atzeraelikatze prozesu bat ematen da, euskararen normalizaziora daraman prozesua hain zuzen ere.

Fase honetan eragindako arlo bat komunikazioarena izan da. 2005. urtean euskara batzordeak enpresaren jakinarazpen orokorrak langile guztiei bi hizkuntzetan bidali beharrean bi komunikazio kanal sortzea proposatu zion Kontseilu Errektoreari. Helburua langile euskaldunei komunikazioak euskara hutsean bidaltzea zen. Horretarako langile guztien ezagutza jasota, e-mailak jasotzen zituzten langile taldeak berregin ziren eta euskaldunen taldeak sortu ziren. Era horretan, enpresako jakinarazpen orokorrak (Kontseilu Errektoreak bidalitakoak, Gerentziak bidalitakoak, negozioetako zuzendaritzek bidalitakoak) euskaldunei euskaraz bakarrik eta gainontzekoei euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen zaizkie.

Azken urte hauetan ere lan formazioko ikastaroak euskaraz emateko hainbat lan egin dira. Horretarako formazio ekintzak antolatzerakoan, taldeak egiteko irizpide bat hizkuntza izan da, eta euskaldunen multzokoek ikastaroak euskaraz jaso ahal izan dituzte kasu batzuetan. Emaitzak oraindik apalak izan dira, askotan oztopoak formazioa ematearen ardura duten kanpo hornitzaileek jarri izan baitituzte. Hala ere datozen urteetan lan formazioa euskaraz jasotzeko aukera handitu egingo dela uste dugu.

Pertsonal politikari dagokionez, Fagor Arrasaten lanpostuek hizkuntza eskakizun bat zehaztuta dute eta kontratazio eta promozioetan bete beharreko eskakizuna da. Arlo honek berebiziko garrantzia hartzen du, ardura postuetan dauden langileen ezagutza mailak baldintza baitezake euskaraz lan egin duten langileen eskubidea.

Fase honetan landu diren eta lantzen dihardugun beste arlo bat bileretan euskararen erabilera handitzeko lanak izan dira. Alde batetik lehen esan dugun moduan esan Batzar Nagusiak euskaraz egiten dira 2002tik aurrera, Kontseilu Errektorearen erabakiz. Baina ohiko bilera operatiboetan ere lan handia egin da azken urteetan euskararen erabilera handitzeko. Horretarako bilera horietan partaideek talde mailako konpromisoak hartu izan dituzte. Era honetan bilera batzuk euskara hutsez egitea lortu da eta beste batzuetan bileran lantzen diren gaietakoren bat gutxienez euskaraz jorratzea.

Aipatu ditugun arlo hauek guztiek Akuilu taldeen interbentzioan landu izan diren arloak dira. Esan dugun moduan traganarruaren fase honetan enpresak maila instituzionaletik euskaraz lan egiteko jartzen dituen baliabideak aprobetxatzea baitzen neurri handi batean Akuilu taldeetako parte hartzaileen egin beharrekoetako bat.

Beraz fase honetan sortu ziren Akuilu taldeen talde pilotuak. Geroago garatuko diren Akuilu taldeen aurrekarietako bat izan ziren lehenengo talde pilotu hauek. Bestea, Valentzian Katalaniera bultzatzeko sortutako Taller d'Espai Lingüístic personal izeneko egitasmoa. Datorren atalean Akuilu taldeen bi aurrekari hauen berri emango dugu.

## 5. AURREKARIAK

2008. urtean Fagor Arrasaten gauzatutako Akuilu taldeen interbentzioa deskribatu baino lehenago, egokia iruditu zaigu atal honetan interbentzioaren aurrekariak zeintzuk izan diren azaltzea modu laburrean bada ere. Egitasmoak bi iturri nagusitik edan du: alde batetik Markinan eta Arrasaten 2007an egindako Akuilu taldeen proba pilotuak; eta bestetik Valentzian sortutako Taller D’Espai Lingüístic Personal (TELP) saioak. Ikus ditzagun bi egitasmo hauen nondik norakoak banan banan.

### 5.1 AKUILU TALDEEN PROBA PILOTUAK (MARKINA, ARRASATE)

*Ba omen zen behin lokomotora bat matxuratuta bertan gelditu zena eta, ahaleginak egin arren, inondik ere martxan jarri ezin zutena. Horrela deitu omen zioten peritu bati ea konpontzen zuen. Etorri zen peritua, begiratu zion makinari luze goitik eta behetik, halako batean mailu bat atera zuen eta eman zion kolpe txiki bat makinari. Eta, berehala, martxan jarri zen lokomotora. Lana amaituta perituak faktura prestatu zuen, 1.000\$koa. Enpresaren arduradunek, diru kopuru horrengatik eskandalizatuta, faktura zehazteko eskatu zioten perituari eta, honek, horrela zehaztuta igorri zien biharamunean:*

*-Mailuarekin kolpea emateagatik: 10 \$*

*-Kolpea non eman jakiteagatik: 990 \$*

2007. urtean Akuilu taldeen interbentzio pilotuak burutu ziren Fagor Arrasaten, lehenengo Markinako lantegian eta ondoren Arrasateko lantegian. Helburuak jada ezagunak egingo zaizkio irakurleari, euskaltzaleen hizkuntzarekiko kontzientzia sendotzea eta hizkuntza koherentzia lantzea baitziren. Markinan garatu zen lehenengo Akuilu talde pilotua garai hartan EMUN Koop. E.ko langile zen Eñaut Apaolazak garatu zuen Soziolinguistika Klusterrak bultzatutako ERALAN proiektuaren barruan kokatutako interbentzio moduan. ERALAN proiektuaren helburua, lan arloan hizkuntza erabileran eragiteko hainbat interbentzio burutzea izan zen, horretarako aldagai klabeak identifikatzen laguntzen duen metodologia zehatz bat erabiliz. Proiektu honi buruz gehiago jakiteko irakurleak “*Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua*” liburura jo dezake, bertan proiektuaren nondik norakoak azaltzen baitira.

Akuilu taldeen interbentzio pilotuan honako hipotesi honekin jokatu zen:

*“Euskararen berreskurapenari buruzko sentsibilizazioa eta hizkuntza gaitasuna egoera errealetan landuz (benetan euskaraz lan egiteko gai garen edo ez ikustea), eta eztabaidaren edo sentsibilizazioaren bidez eskubideen, oztopoen eta aukeren ezagutzan sakonduz, euskararen erabilera handituko dute pertsona hauek eta euren lana egiten*

du ten lekuek (departamentuak, bilerak,...). Azkenik euskaraz lan egiteko bitarteko en eskaria handitu egingo da” (Apaolaza, 2008: 75)

ERALAN proiektuan matrize sistemiko-faktorial bat landu zen, proiektuaren barruan kokatutako euskara bultzatzeko interbentzioetan zein aldagaietan eragingo zen identifikatzera begira. ERALANen landutako matrizea hemen ikus daiteke:

<b>MAILA SISTEMIKOAK</b>	INGURUENA	E01. Gizarte presioa edo eskaera E02. Legeria, orokorra	M01. Nazioarteko errekonozimendua	K01. Globalizazioa / merkatua		
	ORGANIZAZIOA	E03. Legeria, partikularra	M02. Balio erantsiaren pertzepzioa M03. Erabiltzeko ahaleginaren gratifikazioa edo errekonozimendua	G01. Hiztunen gehitze edo gutxitzea (absolutoa)	K02. Erakundearen gizartearekiko erantzukizun sentimendua K03. Erakundearen baloreak K04. Hizkuntza hedatzeko abiadura (funtzio mailan)	I01. Erakunde tipoa I02. Lidergoa (instituzionala) I03. Aldaketarekiko konpromisoa I04. Estatusa: Hizkuntzarena, Planarena I05. Estetikoa / Dinamikoa I06. Planaren izaera: normatiboa, borondatezkoa I07. Planaren Komunikazioa I08. Erabileran eragiteko dinamikak I09. Arauak I10. Hizkuntza sistema I11. Jarrailen sistema/ Hizkuntza audiotretza
	TALDEA		M04. Klima psikologikoa M05. Planarekiko pertzepzioa M06. Langilearen lanarekiko motibazioa M07. Hautemandako kontrolagarritasuna M08. Eraginkortasun igurikapenak M09. Zenbait pertsonen erreferentzia M10. Balio erantsiaren pertzepzioa	G02. Hiztunen dentsitatea G03. Talde batetik besterako mugikortasuna	K05. Erosotasun/ deserosotasun sentimenduak, hizkuntzak praktikan K06. Pertsonak eta taldeen elkarreaginak K07. Erabilera ohiturak K08. Inguruak norberarengan duen eragina K09. Lidergo "informala"	
	NORBANAKOIA		M11. Motibazioa; Euskararekiko, Planarekiko M12. Hizkuntza abakimendua M13. Euskararekiko pertzepzioa M14. Hizkuntzarekiko jarrerak M15. Hizkuntza kontzientzia M16. Aldaketarekiko konpromisoa	G04. Hizkuntza gaitasuna	K10. Hizkuntza koherentzia K11. Pertsonen baloreak K12. Norberaren mundu sinbolikoa	
		DEMANDA	MOTIBAZIOA	GAITASUNA	KULTURA/PRAKTIKA	INSTITUZIONALIZAZIOA
<b>FAKTORE-ARDATZAK</b>						

7. irudia: Anali matriza sistemiko faktoriala (ERALAN proiektua, 2007ko maiatza)

Akuilu taldeko interbentzioarekin, kontzientzia eta kohetentzia lantzeko matrize horretako aldagai hauetan eragingo zela ondorioztatu zen:

- Euskararekiko eta planarekiko motibazioa
- Hizkuntza atxikimendua
- Hizkuntza kontzientzia
- Hizkuntzarekiko jarrerak
- Zenbait pertsonaren erreferentzia
- Hizkuntza koherentzia
- Erosotasun/deserosotasun sentimenduak
- Erabilera ohiturak
- Lidergo informala
- Inguruaren eragina

Markinako lantegiko bulegoak aukeratu ziren interbentzioa burutzeko eta Akuilu taldea osatzeko konpetentzia osoa zuten 10 pertsona aukeratu ziren. Pertsona horiekin ordu eta erdiko lau saio eman zitzaizkien. Beraien eta enpresaren lan-jarduna euskaldunagoa izateko partaideen kontzientzia eta koherentzian eragin zen saio horietan. Horretarako saioetan euskararen egoeraren berri jaso zuten, erabilerarentzat oztopo izan daitezkeenak gainditzeko diskurtsoak garatu ziren, normalizazio prozesuaren mugariak zeintzuk diren azaldu zitzaizkien, euskararen normalizaziorako estrategia adostu zen, gatazka egoeretan etekin egokia lortzera begira asertibitate hainbat teknika azaldu eta rol jokoen bidez praktikatu zituzten eta denon artean portaera kode bat sortu zuten hainbat egoeratan euskararen erabilera handitzeko zer egingo zuten adostuz.

Markinako interbentzioa burutu eta gero, jarritako hipotesiaren betetze mailari dagokionez ondorioztatu zen interbentzioak ahozko eta idatzizko erabileran eragina izan zuela. Horren erakusgarri ziren lan bileretan euskararen erabilerak izandako gorakada eta bestelako ahozko erabileraren datuetan egondako igoerak. Euskararen eskaria handitzeari dagokionez, ez zen daturik lortu eragina neurtu ahal izateko.



Lehenengo interbentzio pilotu honek emaitza interesgarriak izan zituela ikusita, Arrasateko lantegian antzerako talde bat sortzea erabaki zen. Horrela 2007ko azaro eta Abendua artean Markinan burututako esperientzia Arrasateko lantegiko bulegoetako pertsonez osatutako talde batekin gauzatu zen. Arrasateko Akuilu taldearen saioak Markinako saioetarako erabilitako materialarekin burutu ziren eta ez zen desberdintasun handirik egon 2007an gauzatutako bi talde horien artean.

Bi talde pilotu hauek bukatu eta gero balorazioaren ordua heldu zen. Bi talde horiekin asertibitatearen gaia oso azaletik jorratu genuela ondorioztatu genuen. Asertibitate teknikak hizkuntzaren normalkuntzan izan zezaketen baliagarritasunaz ohartuta, 2008an sortuko genituen talde berriekin gaia sakontasun handiagoz jorratzea erabaki genuen. Era honetan, asertibitatea eta hizkuntza asertibitatea saioetako oinarria bilakatu zen. Horretarako oso baliagarria izan zitzaigun ondoren azalduko ditugun Taller D'Espai Lingüístic Personal (TELP) saioetako materiala.

## 5.2 TALLER D'ESPAI LINGÜÍSTIC PERSONAL (TELP)

---

*2003ko apirilaren 23an, 1707ko Almansako porrotaren konmemorazioa, Valentziako manifestaziora gerturatutako jendearen artean genbiltzan. Bero egiten zuen eta, Parterretik pasatzerakoan, Jaume Erregearen zaldidun estatuaren atzean, taberna batean sartu ginen. Gure ondoan, gazte talde batek gauza bera egin zuen. Denok gure edariak eskatu genituen. Gazteetako batek ebaki bat eskatu zuen (katalanez eskatu zuen), eta zerbitzariak berarengana zuzendu zen ulertu ziola ziurtatzeko:*

*-Ebaki bat?- Galdetu zion (gaztelaniaz).*

*-Bai... kafe gutxirekin- erantzun zuen mutilak (gaztelaniaz)*

*Berarekin zihoazen beste hirurak edariak zuzenean gaztelaniaz eskatu zituzten. Tabernatik irteterakoan, laurek berriz ere pankarta hartu zuten, bertan argi eta garbi letra handietan irakur zitekeen "Ikasle Plataforma Hizkuntzaren alde", eta mutilek gure herriaren aldeko eskubideen alde manifestatzen jarraitu zuten, eta batez ere gure hizkuntzan guztiz bizitzeko eskubidearen alde.*

Ferran Suay eta Gemma Sanginés. Valentziako Psikologia Elkarte

Atal honen hasieran transkribatutako gertaerak eraman zituen Valentziako Psikologiako Fakultateko irakasle den Ferran Suay eta kirol psikologian eta klinikoan aditua den Gemma Sanguines hizkuntza mendetasunari buruzko hausnarketa egitera. Hausnarketa horren ondorioz, beraien ikuspegi akademiko eta profesionalean, hau da, psikologian oinarrituta, katalana komunikazio-hizkuntza izaten laguntzeko estrategia bat garatu nahian, 2003-2004. urteen artean Taller d'Espai Lingüístic personal (TELP) ikastaroak sortu zituzten. TELP ikastaroen helburua

HIZNET 2009

hizkuntza-gatazkei aurre egiteko norbanakoaren baliabideak garatzea eta baita norbanakoaren baliabideak perfektionatzea.

TELP ikastaroa katalan hiztunentzat prestatutako ikastaro moduan jaio zen, beste pertsona batzuentzat jokabide-eredua izan zitezkeen katalan hiztunentzat hain zuzen ere. Horren barruan agintari politikoak, eta sozialak, irakasleak, gurasoak eta abar sartzen ziren. Beraien ustez hizkuntza-fideltasunaren eredu egokiak behar dira hiztun berriek katalana (edo gutxitutako beste hizkuntza bat) komunikazio-hizkuntzat hartzeko. Horregatik, ezinbestekoa iruditu zitzairen jendeari hizkuntza-fideltasunari eusteko baliabideak eskaintzea, era horretan beste batzuentzat eredu izango zirelarik (Suay eta Sanginés, 2005: 34; 2008: 99).

TELP ikastaroen helburua hizkuntza-gatazka egoerei aurre egitea esaterakoan, horrek zera esan nahi du:

- Eman daitezkeen hizkuntza interakzio desberdinak Identifikatu eta desberdindu
- Horiei aurre egiteko estrategia pertsonalak garatu eta praktikatu
- Egoera hauei aurre egitearen ondorioz eman daitezkeen ondorio negatiboak minimizatzen ikasi.

TELP saioetan metodologia elkarreragilea erabiltzen da, hainbat arloko baliabideak erabiliz: Jokabidearen Terapiakoak, Kirol-psikologiakoak, ikuspegi paradoxikokoak edo estrategikokoak eta antzerkikoak. Helburua portaeraren hiru mailetan eragitea da: fisiologikoan, kognitiboan eta motorean. Saioak 10-15 pertsona talderako aurreikusita daude eta hainbat formatutan eta iraupenetan egituratu daiteke, baina gutxi gorabehera 10 orduko iraupena izaten du.

Edukiei dagokionez, modu orokor batean honako hauek izaten dira:

- a) Hurbilpen teorikoa egiten da, egoera jakin batean pertsonak hizkuntza nola aukeratzen duen ulertzeko ezagutza teorikoen berri emateko. Era berean hizkuntza mendetasuna nola ezarri den azaltzen da. Betiere psikologiaren ikuspegitik egiten den heinean, erantzun indibidualean oinarritzen da azalpena, nahiz eta beste maila batzuk (soziala, legala, politikoa) ere kontuan hartzekoak diren hizkuntza gatazka egoeretan.
- b) Hizkuntza interakzio egoeren sailkapen funtzionala eta gaztelania hiztunen jarreraren sailkapena aztertzen dira, biak uztartuz hizkuntza gatazkei modu desberdinetan erantzun dakioketela ikusarazteko. Era horretan hizkuntza gatazka egoera hainbat aldagaien arabera aztertzen da, hala nola, interakzioan parte hartzen duten pertsonen

arteko harremana, interakzioaren aurreikusitako ondorioak, pertsoneri eskatzen dien inplikazio pertsonal maila eta abar.

- c) Pertsonak dituzten baliabideak identifikatzen dira, berauek garatzeko eta hortik abiatuta teknika eta baliabide berriak ikasten dira. Era horretan eman daitezkeen egoerei aurre egiteko estrategia zehatzak garatzen dira. Horretarako dramatizazioak eta beste talde lanen bidezko metodoak erabiltzen dira. Praktika eta ariketa hauen asmoa saioetan parte hartzen duten pertsonen hitzezko eta ez hitzezko adierazpen gaitasuna hobetzea da, komunikazioa ezartzerakoan efikazagoak izan daitezen.

Valentzian sortutako TELP ikastaro hau, euskal herritar eta erakundeek agertutako interesa ikusita, Euskal Herriko egoerara egokitzeko lanak egin ziren 2006. urtetik. Gaur egun TELP ikastaroak Euskal Herrian zehar ematen dihardu EMUN Koop. E.k, eta jadanik 200 pertsona inguruk jaso dituzte ikastaro hauek.

## 6. AKUILU TALDEEN DESKRIBAPENA

2008an garatutako Akuilu taldeen interbentzioaren aurrekariak ikusi ditugu aurreko atalean. Alde batetik izen berarekin martxan jarritako proba pilotuak Fagor Arrasateko Markina eta Arrasateko lantegietan. Bestetik Valentziako TELP saioak, hizkuntza gatazkei erantzun efikaza emateko gaitasuna areagotzeko psikologiaren ikuspegian oinarritutako ekimena. Bi ekimen horiek txertatuz osatu genuen 2008ko Akuilu taldeen interbentzioa.

Interbentzioa, asertibitatearen atalean ikusi dugun berregituraketa kognitiboa lortzeko eta komunikazio estrategietan trebatzeko saio bat bezala ulertu behar dela uste dugu. Akuilu taldeetako saioetan garatutako edukiekin, partaideek beraien portaera aldatu ahal izateko, beraien arreta portaera horretan jarri genuen, portaeraren zergatiak ulertu zitzaten eta aldatzeko gakoak izan zitezkeen gaien inguruko hausnarketa bultzatuz: hizkuntza eskubideak, hizkuntzen ekologia, asertibitatea, hizkuntza asertibitatea, eta abar. Era honetan gai batzuekiko partaideen pentsamendu ereduak aldatzea eta euskararen aldeko portaera eragilea sakontzea lortzea espero genuen. Era berean, interbentzioan komunikaziorako efikazak diren baliabideak eman genizkien, asertibitatezko komunikaziorako estrategien berri emanez eta berauek praktikatu.

Jarraian Akuilu taldeen saioen deskribapena egingo dugu, bertan landutako gaiak, metodologia eta abarrekoak azalduz. Azkenik, saioei buruzko beste hainbat datuen inguruko informazioa ere emango dugu, interesgarriak izango direlakoan.

### 6.1 AKUILU TALDEEN SAIOAK

---

*Egiten duzuna egiten duzula, huskeria izango da.  
Baina oso garrantzitsua da egitea.*

MahatmaGandhi

2008. urtean gauzatutako Akuilu taldeen saioak apirila eta uztaila bitartean gauzatu ziren, baina interbentzioa gauzatzeko aurrelanak lehenago hasi ziren. Lehenengo Fagor Arrasateko bulegoetako langileen artean zerrenda bat osatu genuen, euskararen aldeko eragileenetakoak ziren pertsonekin. Pertsona horiei Akuilu taldeetan parte hartzeko gonbidapena luzatu genien Akuilu taldeen helburuak eta landuko genituen gaiak modu laburrean azalduta. Hasierako zerrendan 30 pertsona inguru bazeuden 22 pertsonak erantzun ziguten baiezkoarekin. 22 pertsona horiekin bi talde antolatu genituen eta beraiekin lau saio egin genituen. Saio bakoitzaren iraupena ordu eta erdi ingurukoa izan zen. Aipatu behar dugu partaideak bi taldetan banatu bagenituen ere, partaideak ez ziren beti hasieran egokitu zitzaien taldera joan. Lan arazoengatik asistentzia arriskuan egon zitekeela aurreikusten genuenez, partaideei bi taldeetako edozeinetan parte hartzeko aukera ematen genien,

talde bakoitza egun eta ordu desberdinetan izaten zenez, langileek egun batean ezin bazuten etorri beste taldera joateko esan genien.

Ikus dezagun saio bakoitzean zein eduki landu genituen:

**1. saioa: 2008-04-15/17**

Saioa hasteko, Akuilu taldeen helburuak azaldu genizkien eta saioetako metodologia azaldu, azpimarratuz saioetan beraien parte hartzea bultzatu nahi genuela eta horretarako beraien ideia, iritzi eta esperientziak adierazteko eskatuko geniela. Era horretan, lehenengo ariketan partaideei eskatu genien euskararekin izandako esperientzia on eta txar bat aipatzeko eta denon artean komentatu genituen. Partaideen beraien esperientziak aipatzerakoan portaeraren hiru maileri erreparatzeko eskatzen genien, zer egin zuten, zer pentsatu zuten eta zer sentitu zuten galdetuz.

Ondoren hizkuntza eskubideen inguruan hausnarketa bultzatzeko euskararen eskubideen inguruko hainbat baieztapen eman genien ea denak errealak ziren edo ez galdetuz. Horrela hainbat egoeren aurrean partaideen arreta hizkuntza eskubideetara zuzendu nahi genuen, maila kognitiboan eragin nahian. Gainera hizkuntza eskubideen diskurtsoak geroago azalduko genien asertibitatezko portaera bideratzen lagunduko zuela uste genuen.

Gero azalpen teorikoa eman genien. Azalpen horretan soziolinguistika, hizkuntza ekologia eta hizkuntza kompetentzia, kontzientzia eta koherentziaren inguruko hainbat ideia teoriko azaldu genien. Era horretan hizkuntza baten normalizazio prozesuan beharrezkoak diren hainbat mugarriren inguruko ezagutza eman nahi genien. Ezagutza hori eman eta gero, beraiantzat euskaraz bizitzea eta euskaraz lan egitea zer den galdetu genien. Binakako lana egin zuten eta hainbat ideia jaso genituen denon artean konpartituz. Taldeko partaideen artean adostasun batera heltzeko eskatu genien halaxe egin zuten, euskaraz bizi eta lan egiteari buruzko ideiak bateratuz.

**2. saioa: 2008-05-06/13**

Aurreko saioan aipatutakoak erreparasatu genituen, euskaraz bizitzea eta lan egiteari buruz taldean adostutakoa gogora ekarriz. Ondoren adostutako ideia horiekin koherenteak ziren edo ez aztertzeko eskatu genien; bakoitzak bere bizitzaren egoeretan beraien portaera euskaraz bizitzea eta lan egiteari buruz emandako ideiekin bat zetorren edo ez aztertzeko hain zuzen ere. Horrela, euskararen aldeko kontzientziarekin bat etortzeko beraien portaera zein egoera zehatzetan aldatu behar zuten idazteko eskatu genien *inkoherentzien fitxa* deitu genuen fitxa batean. Eman beharreko portaera aldaketa horiek zehazterakoan, beraiantzat aldaketak zuen zailtasunaren arabera zehazteko

eskatu genien, hiru maila zehaztuz: zailtasun txikia, zailtasun ertaina eta zailtasun handia zutenak. Ondoren saioetan erabili genuen Inkoherentzien fitxa eredua ikus daiteke:

<b>INKOHERENTZIEN FITXA</b>	
<b>Izena:</b>	
<b>Data:</b>	
<i>Idatzi euskaraz lan egiteko eta bizitzeko zure kontzientziaren bat ez datozen ekintzak (aldaketa lortzeko zuretzat duten zailtasunen arabera ordenatuta).</i>	
Zailtasuna txikia	
Zailtasun ertaina	
Zailtasun handia	

**8. irudia:** Inkoherentzien fitxa eredua

Parte hartzaileek zehaztutako helburuak honako helburu hauetan laburbildu daitezke nabardurak nabardura:

- Erdaldun baten aurrean euskaraz hitz egitea
- Tabernetan euskaraz eskatzea

- Telefonoz lehen hitza euskaraz
- Haserretzen naizenean euskaraz haserretu
- Pertsona ezezagunekin euskaraz egin
- Betidanik erdaldun gisa ezagutu dudanari euskaraz egin
- Euskaraz hitz egiteko zailtasuna dutenekin euskaraz egin (euskaldun berriak,...)
- Testu teknikoak euskaraz irakurri
- E-mailak euskaraz idatzi
- Dokumentu ofizialak euskaraz irakurri
- Giro erdalduneko tokietan lehen hitza euskaraz egin
- Telefonoz euskaraz egin eta eutsi nahiz eta besteak gaztelaniaz egin
- Ofimatika programak euskaraz jarri
- Laneko dokumentuak euskaraz idatzi
- Egunero euskarazko artikulu, liburu bat irakurri

Partaideek eman beharreko portaera aldaketak identifikatu eta fitxan zehaztu eta gero, proposatu genien zailtasun txikiko atalean zehaztu zituzten portaerak aldatzeko hurrengo asteetan. Partaideek adostasuna agertu zuten eta beraien portaeran aldaketak egiteko prest agertu ziren.

Planteatutako aldaketa horiek gauzatzeko baliabideak emateko unea heldu zen. Horretarako asertibitateari buruzko azalpen teorikoa eman eta azalpena hobeto ulertzeko ariketa praktiko bat egin genuen portaera ez-asertiboa, erasokorra eta asertiboa identifikatzeko.

Ondoren hizkuntza asertibitatearen inguruko azalpenarekin jarraitu genuen, hizkuntza asertibitatea zer den azalduz. Azkenik bideo batean portaera asertiboaren eredu bat ikusi genuen.

### **3. saioa: 2008-06-03/09**

Lehenengo aurreko bileran portaerak aldatzeko hartutako konpromisoen jarraipena egin genuen eta portaeratan aldaketak ematen ari zirela ebidentzien bidez egiaztatu genuen. Partaideek beraien

esperientzien berri eman zuten eta orokorrean interakzio horietan erantzuna positiboa izaten zela azalerratu zen. Ondoren, partaideek hurrengo asteetan zailtasun maila ertaina zuten portaerak aldatzea hartu zuten helburutzat.

Ondoren asertibitatearen inguruan aipatutakoa gogoratu eta gero, portaera ez-asertiboa, erasokorra eta asertiboa identifikatzeko beste ariketa bat egin genuen eta portaera bakoitzaren aurrean izango lituzketen sentimenduetan arreta jarri genuen.

Saioa bukatu baino lehen, lehenengo saioan partaideek aipatutako euskararekin lotutako esperientzia txarretan hizkuntza asertibitatearen azalpenak kontuan hartuta nola jokatuko luketen pentsatzeko eskatu genien. Ariketaren helburua esperientzia txarren aurrean erantzun egoki eta efikazak bilatzea zen.

#### **4. saioa: 2008-07-14/15**

Berriz ere portaera aldatzeko konpromisoen jarraipena egin genuen. Zailtasun txikiko helburuekin partaideek jarraitu zuten eta zailtasun ertainekoekin izandako esperientziak aipatu zituzten. Kasu honetan zailtasun handiagoa antzeman zuten partaideek, hala ere portaera batzuetan aldaketak eman zirela egiaztatu ahal izan genuen. Ondoren partaide bakoitzak bere fitxan zehaztutako portaera aldaketa guztiekin (zailtasun txikikoak, ertainekoak eta handikoak) jarraitzea adostu genuen. Azken saioa zenez jarraipena saioetatik kanpo bakoitzarekin egingo genuela erabaki genuen.

Ondoren, asertibitateari buruzko teoriarekin jarraituz, hitzezko erasoei aurre egiteko estrategiak azaldu eta rol ariketen bidez estrategia horiek praktikan jarri genituen. Hainbat estrategien berri eman genien eta rol jokoan binaka bikote bakoitzak besteen aurrean estrategia desberdin bat antzertu zuen.


Ondoren, saioetan hizkuntza asertibitateari buruz ikusitako guztia praktikan jartzeko, taldeka banatu eta rol ariketa bat egin genuen. Bertan bilera bat antzertu genuen eta bilera horretan, ordura arteko ohitura apurtuz, norbaitek euskaraz egitea eskatuko balu zer nolako portaera izango luketen bilerako partaideek ikusi genuen, arreta jarritz hizkuntza asertibitatezko portaeretan bereziki.

Azkenik saioen balorazio orokorra egin genuen denon artean komentatuz eta fitxa bat betez.

Akuilu taldeetan izandako asistentziari dagokionez, esan behar dugu lan arazoek eragin nabarmena izan dutela. Ondoko irudian ikus daitekeenez, jada lehenengo saioan asistentzia %73




inguruan egon zen. Ondorengo saioetan asistentzia portzentajea jaitsiz joan zen, azken saioan %45 inguruan kokatuz. Batez besteko asistentzia %59koa izan zen.



9. irudia: Akuilu taldeen asistentzia saio bakoitzean

Irudian ikus daitezkeen datuen arabera ez da ulertu behar lehenengo saiora etorri ez zirenak hurrengo saioetan egon ez zirenik, asistentzia datuak Akuilu taldeetako gutxienez saio atean parte hartu zuten 22 langileekin egin baititugu. Asistentzia arazoak izango genituela aurreikusiz, saio bakoitzaren hasieran aurrekoetan aipatutako gauza garrantzitsuenen laburpena egiten genuen, batez ere asertibitate kontuen inguruko errepasso moduan eta aurreko saiora etorri ez zirenek ere gai garrantzitsuen berri izan zezaten.



Jarraian ikus daitekeen taulan parte hartzaileek jaso dituzten saio kopurua. Bertan ikus daitekeenez, lau pertsonak jaso zituzten lau saioak osorik, seik hiru saio, seik bi saio eta saio bakarra beste seik jaso zuten.



10. irudia: Parte hartzaileek jasotako saio kopurua

Interbentzioa gauzatu dugun lan testuinguruan argi dago lehentasuna lanak duela eta hori asistentzian nabaritu da. Gainera Akuilu taldeetako orduak langileek beraien lan orduetatik kanpo egin behar zituzten, beraz saioetara etortzeak lantokian beranduago arte egotea behartzen zituen langileak. Halaber, lantokian lehentasunak lanak dauka, euskararen normalizazioa bultzatzen dituzten ekimenen aurretik. Horrek zailtasun handiak sortu dizkigu parte hartzaileek portaera aldatzeko jarritako helburuen jarraipen zehatz bat lortzeko. Hori dela eta ez dugu lortu helburu horien betetze maila datu zehatzak. Jarraipena saioetan egiten genuen baina bakoitzaren esperientzien kontaketa eta hausnarketarako erabiltzera mugatu behar izan ginen, helburu horien betetze mailaren datuak ezin izan genituen lortu eta.

Azkenik, parte hartzaileek egindako balorazioen berri emango dugu. Azpian dagoen taulan jaso ditugu parte hartzaileek balorazio moduan idatzitako ideiak. Kontuan hartu behar da balorazioa azken saioan egin zela eta bertan ez zeudela parte hartzaile guztiak. Dena den jasotako ideiak nahiko adierazgarriak iruditu zaizkigu. Hona hemen jasotakoak:

	
<p><b>ANTOLAKETA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondo</li> <li>• Lana dela-eta akuilu talde batetik bestera salto egiteko aukera oso ondo ikusi dut. Horrela kale gutxiagotan egiteko</li> <li>• Nahiko ondo, kontuan hartuta denok nahiko lanpetuta ibiltzen garela 2 astero egin dira batzarrak</li> <li>• Ondo, nahiz eta orduan hasteko arazoak izan ditugun (askotan gure erruz)</li> <li>• Ona</li> <li>• Ondo prestatuta</li> <li>• Bileraren antolaketa egokia. Ardatz bat jarraitu dut, koherentzia edukiz.</li> </ul>	<p><b>ANTOLAKETA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Uste dut bilera batean ere ez garela egon konbokatutako guztiak</li> <li>• Taldeak noiz nahi nahastu egingo nituzke.</li> <li>• Hainbat saio helburuak lortzeko (praktikoak)</li> </ul>
<p><b>METODOLOGIA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emandako azalpenek lagundu dute gehienbat</li> <li>• Ona. Asertibitateari buruzko errepikapena, buruan ondo sartzeko eta saioetan erabilgarriak diren tresnak ikustea</li> <li>• Ona, aproposa.</li> <li>• Parte hartzea, ez da bakarrik batek esan eta besteak entzun</li> <li>• Nahiko ona</li> <li>• Ondo</li> <li>• Gainontzean metodologia egokia izan da</li> </ul>	<p><b>METODOLOGIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zati teorikoa ahalik eta gehien laburtuko nuke nik. Niretzat klase hauetan aberasgarritasuna batek bestearen esperientziak entzutea eta era horretan ikastea da.</li> <li>• Gai gehiagoren beharra ikusten dut</li> <li>• Asertibitatearen gaia gehiago sakonduko nuke</li> </ul>
<p><b>EDUKIAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jokaerak landu dira gehien, asertibitatea batez ere</li> <li>• Ondo. Erabilgarriak eta euskara gure inguruan nola dagoen eta zer egin ahal dugun ikusteko oso baliagarria</li> <li>• Jarrera asertiboarena gustatu zait</li> <li>• Ondo</li> <li>• Oso interesgarriak</li> <li>• Asertibitatea, beste hainbat komunikazio egoerekin lotu (zeharka bada ere)</li> </ul>	<p><b>EDUKIAK:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Asertibitatea praktikan gehiago jartzea ondo legoke, antzerki gehiago eginez</li> <li>• Hitz egitean egiten ditugun akats ohikoenen zerrenda egitea, zuzentzeko.</li> <li>• Saioen denboralizazioa agian eskas xamar geratu da.</li> </ul>
<p><b>BESTELAKOAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arduradunak giro ona egoteko bideak eman ditu</li> <li>• Orokorrean lanean euskararen alde jarrera aktiboago bat izateko balio du. Positiboa</li> <li>• Jendeak seriotasunez hartu du bileran egon den bitartean Irakasleak egia esan interesa adierazi du, ikastean jarraipena egiten</li> </ul>	<p><b>BESTELAKOAK:</b></p>

Ikus daitekeenez, saioak balorazio positiboa izan zuten eta parte hartzaileek asertibitateari buruzko teoria eta praktika gehiagoren beharra azpimarratzen zuten. Ez da harritzeko, asertibitatea bezalako gai bati buruz ezertxo ere ez dakiten pertsonentzat lau saio ez baitira nahikoak gaia guztiz ezagutu eta menperatzeko. Dena den, gure ustez gaiari buruz zerbait gehiago jakin nahi izatea azpimarragarria iruditzen zaigu eta modu positiboan baloratzen dugu.

## 7. DISKUSIOA ETA ONDORIOAK

Hurrengo orrialdeetan aurkeztutako lanaren inguruko hainbat hausnarketa egin nahi genuke eta azkenik ondorio batzuk planteatu.

### 7.1 DISKUSIOA

*Ez zaitez saiatu beste batzuk aldatzen; izan zaitez zu zure bizitzaren arduradun eta saia zaitez zu zeu aldatzen.*

Mahatma Ghandi

Lanean zehar argi gelditu den moduan, Akuilu taldeen interbentzioak maila indibidualean eragitea bilatzen zuen. Horrek ez du esan nahi beste mailako interbentzioak baztertzea aurreikusten dugunik. Ezta gutxiago ere. Gure ustez gutxitutako hizkuntza baten normalizazio lanetan maila guztietan eragin beharra dago eta maila ezberdinetan egiten den eragiletza horren sinergiak normalizazioaren norabidean jarri. Beraz, lan honetan aurkeztutakoa maila indibidualean eragiteko modeloa da, baina beste maila batzuetan eragitearekin uztartu daitekeena.

Hizkuntza normalizazioari buruz ari garela, hemen aurkeztutako modeloaren eta antzekoen beharra, hizkuntzaren normalizazio ezaren adierazle garbia iruditzen zaigu. Aipatu dugun maila indibidualean eragin behar izatea Akuilu taldeetako saioen bidez, edo TELP gisako ekimenen bidez, hizkuntza baten normalizazioan dauden gabeziak bat azaleratzen du. Maila indibidualean eragin behar izateak berak erakusten digu beste arlo batzuetan normalizazioan dauden gabeziek indibiduoarengan eragina dutela eta horren ondorioz sortzen da hizkuntzaren normalizazio bidean indibiduoengan eragin beharra.

Lan honen bidez, gure ustetan gisa honetako interbentzioak gutxitutako hizkuntza baten normalizazio lanetan eraginkorrak dira. Aurreko ataletan eman ditugun datu batzuek horren zantzuak ematen dizkigute. Baina interbentzio mota honen eraginkortasuna datu kuantitatiboetara ekartzeak zailtasun handiak ditu. Izan ere pertsonekin lan egiten dugu. Pertsonekin lan egitean kontrolatu ezin ditugun aldagai askok eragina dute interbentzioaren eragina neurtzeko erabil ditzakegun aldagaietan. Hori dela eta, eragina neurtzeko datu kualitatiboek ere erreparatzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Zailtasunak zailtasun, interbentzio mota hauen eragina neurtzea egokia izango delakoan gaude, baina eragin hori neurtzeko moduan asmatu beharra dago, malgutasunez jokatzuz eta lortu ahal diren adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartuz.

Horren harira, interbentzio hauek denboran izan dezaketen eragina datorkigu burura. Zein une izan daiteke egokiena interbentzioak indibiduoetan izan duen eragina neurtzeko? Interbentzioa gauzatu eta egun batera? Aste batera? Ala hilabete bat pasatu ondoren? Interbentzioaren eragina berbera izango da une jakin batean parte hartu duten pertsona guztientzat? Desberdintasuna egongo dira pertsonen artean? Galdera hauei erantzutea ez da batere erraza eta ez diegu guk orain erantzungo, nahiz eta batzuei buruzko gure iritzia izan. Uste dugu honen inguruko ikerketa larroak zabaldu behar direla eta ematen dituzten emaitzek lagunduko digute interbentzio modelo hauen eragina ezagutu eta baita hobetzen ere.

Akuilu taldeen interbentzioak denboran izan dezakeen eraginari dagokionez, iruditzen zaigu interbentzioak iraunkortzeko formulen beharra dagoela. Interbentzioa egin eta denbora laburrera parte hartzaileengan duen eragina iraunkorra bihurtzea da lortu beharrekoa. Denok dakigu ohitura aldaketak prozesu luzea eskatzen dutela gehienetan. Aldaketa ahalbidetzen duen tentsioa denboran mantenduko duten ekintzak behar ditugu Horretarako jarraipen saioak egitea, sortutako sare sozialak mantentzeko espazioak eduki eta beste hainbat ekimen bultzatzea iruditzen zaigu egokia. Dena den oraindik gehiegi landu gabeko gaia da hau. Guk geuk saiakera batzuk egin ditugu Akuilu taldeetan parte hartu zuten pertsonekin jarraipen saio batzuk antolatzeke eta interbentzioaren eragina denboran luzatzeko. Horretarako hasierako saioetan ikusitako edukiak errepasatzeaz gain, hizkuntza asertibitate gaietan gehiago sakondu izan dugu, hizkuntza egoera erreal batzuen analisi zehatza eginez, aldagai guztiak aztertuz eta hizkuntza asertibitatezko portaerak proposatu eta indartzeko helburu pertsonalak jarriz, arrakastarako gakoak izan daitezkeen faktoreak kontuan hartuz.. Egindako ahaleginek emaitza positiboak izan dituztela esan dezakegu, baina ez da gure asmoa orain horien berri ematea. Gure ustez interbentzio mota hauen jarraipenerako modeloa zehaztu beharra dago eta iruditzen zaigu etorkizunerako ikerketa larro interesgarria izan daitekeela.

Ikusi dugunez, Akuilu taldeen interbentzioa hau lan munduan kokatu dugu. Enpresa bateko langileak izan dira partaideak eta enpresako harremanetan eta lan zereginetan eragitea bilatu dugu batez ere, lan arlotik kanpora begirako eragina ere izan badu ere ekimenak. Baina testuinguruak ere interbentziora eragina izan duela egiaztatu dugu asistentzia datuak ikusiz. Euskararen normalizazioa ez da lantokiko lehentasuna, baizik eta proiektuak, bilerak, eta laneko zereginak oro har. Horren ondorioz saioetako asistentzia ez da nahi izango genukeena izan. Horrek mugatu egin dezake interbentzioaren eragina, nahiz eta ikusi den moduan gure aldetik ahalegina egin aldagai honek ahalik eta eragin txikiena izateko bi txandako taldeak sortuz eta aurreko saioetan emandako edukien errepasoa eginez. Dena den, kontuan hartu behar da saioetan parte hartzea borondatezkoa dela eta parte hartzaileek beraiek erabakitzen zutela saioetara etorri edo ez. Eta batzuetan lan arazoek lehentasuna hartu izan dute saioetara etortzearen gainetik. Noski, gure ikuspuntutik, idealena parte hartzaile guztiek saio guztietara etortzea zen, horrela helburuak lortzeko aukera handiagoak

zeudelakoan baikaude. Baina esan bezala lan munduko errealitateak interbentzio mota hauen eragina mugatu egin dezake.

Bestalde, asertibitatearen gaia lan munduan gero eta ezagunagoa egiten ari da lidergo, *coaching* eta antzeko ikastaro eta metodoen oinarrietako bat delako. Baina badirudi ezagutza hori oraindik enpresetako goi mailako karguetan dauden pertsonetan dagoela eta ez dela beste mailetara horrenbeste zabaldu, salbuespenak salbuespen. Gure kasuan akuilu taldeetako partaideak ez ziren goi karguetako langileak eta asertibitatea ezagutzen ote zuten galdetu genienean, denek (edo ia denek) ezezkoa erantzun zuten. Gainera enpresaren jarduna kontuan hartuta, bertako langileen formazioa normalean arlo teknikokoa da. Era honetan, partaideek asertibitatearen berri lehengo aldiz Akuilu taldeko saioetan izan dute. Teoria eta praktika uztartu ditugu saioetan ezagutza teorikoarekin nahikoa ez zela uste baikenuen, baina asertibitatezko eta hizkuntza asertibitatezko portaera lantzeko denbora behar dela ezin dugu ukatu. Hori dela eta, gure ustez interbentzioaren eragina handiagoa izan daiteke asertibitate eta hizkuntza asertibitatearen inguruan denboran zehar saio gehiago jasotzen badituzte parte hartzaileek. Gaia maila teorikoan sakontasun handiagoz ezagutzeko balioko luke eta era berean, ariketa eta rol jokoaren bidez praktika gehiagotan jartzeko. Era berean, interesgarria izango litzateke beste ikasketa mota batzuk dituzten enpresekin konparazioak egitea, irakaskuntza eta antzeko beste sektore batzuetan gaiarekiko aurre ezagutza handiagoa izan daiteke eta horrek saioen eragina biderkatu dezake.

Saioen deskribapena eman dugunean ikusi dugunez, partaideei portaera aldaketa batzuk eskatu izan diegu hizkuntzarekiko koherentzia handiagoz jokatzeko. Era horretan beraiek zehazten zituzten zein portaera aldatuko zituzten eta zailtasunaren arabera sailkatzen zituzten. Ondoren portaera aldaketa errazenetatik hasi eta progresiboki zailagoei ekiteko planteatu genien. Helburuak modu progresiboan jartzea arrakastarako gakoetako bat dela iruditzen zaigu. Helburuak lortzea pertsonaren motibazioan eragin positiboa du eta horrela adierazten duten hainbat ikerketek:

*“Zeregin exigenteak baina errealistak lortzeko konpromisoa hartzea eta arrakasta lortzea kompetenteago sentitzea dakar. Eraso sexual bati aurre egiteko beharrezko trebetasun fisikoak menperatzean, emakumeak zaurkortasun txikiagoz, antsietate gutxiagoz eta kontrol sentsazio handiagoz sentitzen dira (Ozer eta Bandura, 1990). Arrakasta akademikoa izan eta gero, ikasleek beraien gaitasun akademikoari buruzko balorazio altuagoa izaten dute, eta horrek gogorrago lan egitera eta lorpen gehiago edukitzeko bultzatzen ditu (Felson, 1984; Marsh eta Young, 1997). Norberaren hoberena ematea eta helburuak lortzea konfiantza eta gaitasun handiagoa sentitzea dakar.” (Myers, 2001: 39).*

Helburu errazenetatik hasi eta berauek lortzeak, beraz, eragin positiboa izango du helburu zailagoi ekiteko orduan. Horregatik planteatu genien parte hartzaileei zailtasunaren arabera sailkapena egiteko. Era berean, sailkapen hori subjektiboa izan zitekeenez, banaka egiteko eskatu genien. Parte hartzaileek portaera aldaketetako batzuk normalean zailtasun maila berdintsuan kokatzen bazituzten ere (tabernetan zerbitzariekin euskaraz egitea,...), bazeuden beste portaera aldaketa batzuk pertsonaren arabera zailtasun maila ezberdinetan kokatzen zituztela (lagunekin, bikotekidearekin, familiarekin euskaraz hitz egitea,...).

Partaideek beraien portaera aldatzeko eta hizkuntza asertibitatez jokatzeko hartutako helburuen harira bada aipatu nahiko genukeen beste alderdi garrantzitsu bat. Interbentzioak batez ere norberak duen portaeran eragitea bilatzen du, hau da, partaideek beraien portaerari begiratu behar diote, berau aztertu eta, hala erabakitzen badute, horren gaineko aldaketak egin. Partaideen portaeran dago fokalizatuta eragina, eta ez beste pertsonen portaeran. Euskara gehiago ez erabiltzeko sarritan erabili izan diren aitzakiak beste pertsonen portaeran fokalizatu izan dira. Euskaraz ez dakitenek euskara ikasten ez duten bitartean beraiekin euskaraz egitea ezinezkoa dela eta antzerako arrazoiak izan dira askotan euskal hiztunok erabilitako aitzakiak. Era horretan euskal hiztunok arazoaren iturria eta irtenbidea kanpo faktoreetan jarri izan dugu, guk geuk euskara normalizatzeko egin dezakeguna alde batera utziz. Esan dugun moduan, neurri handi batean aitzakia izan da, gure ahalegina egiteko gogo edo nahi eskasa jutzifikatzeko modu bat. Akuilu taldeen interbentzioak eztabaidaren bihotza norberaren portaeran kokatzen du.

Era horretan euskararen normalizaziorako interbentzio honek planteatzen duen irtenbidea kanpo faktoreetatik askatu eta norberak alda ditzakeen portaeretan zentratzen da. Arazoaren irtenbidea beste pertsonen portaera aldatzea izan beharrean, guk geuk gure portaera aldatzea eta irtenbideak bilatzean datza. Zentzu honetan atal honen hasieran Mahatma Ghandiren hitzak guzti egokiak iruditzen zaizkigu paragrafo hauetan azaldu nahi duguna islatzeko: *“ez zaitez saiatu beste batzuk aldatzen; izan zaitez zu zure bizitzaren arduradun eta saia zaitez zu zeu aldatzen”*. Noski, honekin ez dugu esan nahi norberak bere portaeran izan dezakeen aldaketak ez duela beste pertsonengan eraginik izango. Ziur gaude hizkuntza asertibitatezko portaerak baduela eragina beste pertsona batzuen hizkuntza portaeran eta euskara gehiago erabiltzera bultzatuko ditu kasu batzuetan. Baina euskararen normalizaziorako ahalegin honen abiapuntua norbera da, norberak duen portaera eta norberak portaera horretan egin ditzakeen aldaketak, eta ondoren besteek egingo dute eurek askatasunez erabakitzen dutena, hori ere errespetatua izango baita. Era honetan, interbentzio modelo honek proposatzen duena da norberak bere portaeran zentratzea besteek egingo dutenaren zain egin gabe.

Gure ustez norberaren hizkuntza portaeraren erantzukizuna hartzea da modurik egokiena euskaldunok euskara era normalizatu batean erabiltzeko bizi dugun egoera ez normalizatu honetan.



Euskararen egoera ez normalizatu aldatu eta egoera normalizatu batera heldu nahi badugu, norberaren portaeratik hasia proposatzen dugu.

## **7.2 ONDORIOAK**

---

- Hizkuntza asertibitatea estrategia egokia da gutxitutako hizkuntza baten normalizazioan eragiteko maila indibidualean.
- Hizkuntza asertibitatezko portaera ikasi daiteke taldekako saioetan parte hartuz teoria eta praktika uztartuz.
- Gisa honetako interbentzioak aurrera ateratzean lan munduko arazoek (lan kargak, bilerak,...) eragin nabarmena izan dezakete.
- Mota honetako interbentzioen jarraipen ereduak sortu behar dira eragina denboran luzatu dadin eta portaeretan ohitura aldaketa iraunkorra gauzatu dadin.
- Portaeran aldaketak emateko, helburuak jartzerakoan progresibitatea kontuan hartzea baliagarria suertatzen da helburuen betetze maila hobetzeko.
- Norberaren portaerari erreparatzea da gakoa.

## 8. BIBLIOGRAFIA

- APAOLAZA, Eñaut eta ALUSTIZA, Joxean (2005). Ez da eremurik haizea sartzen ez denik (Euskararen haizek Fagor Arrasaten). *In: Bat Soziolinguistika aldizkaria 57*. 2005eko abendua. Euskararen erabilera enpresetan.
- APAOLAZA, Eñaut (2006) *Fagorrek euskara behar du*. In erabili.com
- APAOLAZA, Eñaut (2007). *TRAINAK: Hizkuntzen kudeaketarako gizarte sareen lanketa enpresetan*. Hiznet 06-07 ikasturteko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).
- APAOLAZA, Eñaut (2008). Fagor Arrasate eta EMUN koop. E.: Akuilu taldeak Fagorren. In: Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- ASCH, Solomon (1955). *Opinions and social pressure*. *In: Scientific American*. 1955eko azaroa, 31-35 orr.
- BACH, Eva eta FORÉS, Anna (2008). *La asertividad: para gente extraordinaria*. Bartzelona: Plataforma Editorial.
- BEITIA, Ruben (2008). *Euskararen arnaguneak Fagor Ederlanen*. Hiznet 06-07 ikasturteko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).
- BISHOP, Sue (2000). *Desarrolle su asertividad*. Bartzelona: Editorial Gedisa
- BLANCO, Amalio, CABALLERO, Amparo eta DE LA CORTE, Luis (2005) *Psicología de los grupos*. Madril: Pearson Prentice Hall
- CARO GABALDA, Isabel (2007). *Manual teórico-práctico de psicoterapias cognitivas*. Descleé Brouwer: Bilbo
- CASTANYER, Olga (2002). *La asertividad: expresión de una sana autoestima*. Bilbo: Descleé de Brouwer
- DYER, Wayne W. (2008). *Tus zonas erróneas*. Bartzelona: Debolsillo.
- ELORTZA, Joxerramon, GARRO, Inaxio eta APERRIBAI, Errukane (2005). Debagoieneko esperientzia. *In: Bat Soziolinguistika aldizkaria 57*. 2005eko abendua. Euskararen erabilera enpresetan.
- EMUN Koop. E. (2008) *Trinkotzea. Eskuliburua*. Arrasate
- FELSON, R. B. (1984). The effect of self-appraisals of ability on academic performance. *In: Journal of Personality and Sozial Psychology*, 47, 860-870). (39, 578 orr.)
- FENSTERHEIM, Herbert eta BAER, Jean (2003). *No diga sí cuando quiera decir no*. Bartzelona: Debolsillo.

- INTXAUSTI, Nahia eta UNANUE Amagoia (2002). *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Arrasate: EMUN-Lanki
- IRIZAR SAINZ, Amaia eta KAREAGA IRAZABALBEITIA, Arianne (2003). *Arrasate. Kooperatiba baten ibilbidea*. Arrasate: Fagor Arrasate.
- LARRAÑAGA, Iñaki (1999). Euskararen egoerari buruzko ikerketak: euforia giroa ala konfusio-zeremonia? Zenbat Gara Bizitza eta Hizkuntza Aldizkaria 3.
- LEWIN, Kurt (1973). *Decisión de grupo y cambio social*. In: Estudios básicos de psicología social. Madrid: Biblioteca Nueva.
- MARKO JUANIKORENA, Inazio J. (2008a). EraLan ikerketa proiektuaren kokapen teorikoa. In: Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MARKO JUANIKORENA, Inazio J. (2008b). EPEsA Metodologia (Euskara Planetan Eskuhartze Analitikorako Metodologia). In: Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MARSH, H. W. eta YOUNG A. S. (1997). Causal effects of academic self-concept on academic achievement: Structural equation models of longitudinal data. In: Journal of Educational Psychology, 89, 41-54. (42 orr.).
- MOLINA, Fernando (2005). *Jose Maria Arizmendiarrera (1915-1976) Biografia*. Arrasate: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa
- MOLINA, Fernando (2006). *Fagor Electrodomésticos. Historia de una experiencia cooperativa*. Arrasate: Fagor Electrodomésticos S. Coop.
- MYERS, David G. (2001). *Psicología Social*. Santa Fe de Bogota: McGraw-Hill.
- OZER, E. M eta BANDURA, A. (1990). Mechanisms governing empowerment effects: A self-efficacy analysis. In Journal of Personality and Social Psychology, 58, 472-486 (41 orr.).
- PAPALIA, Diane E. eta WENDKOS OLDS, Sally (1988). *Psicología*. Mexiko: McGraw-Hill
- RESTREPO SANCHEZ, Lillyam (2000), *Asertividad*.  
<http://www.xtec.es/~cciscart/annexos/defassertivitat.htm>
- RUIZ SANCHEZ, Juan Jose eta CANO SANCHEZ, Justo Jose (2003). Manual de psicoterapia cognitiva. <http://www.psicojack.com/blog/2008/03/libro-manual-de-terapia-cognitiva.html>
- SALMURRI, Ferran (2004). *Libertad emocional: estrategias para educar las emociones*. Barcelona Ediciones Paidós.
- SANCHEZ CARRION, José Maria "Txepetx" (1987) *Un Futuro para nuestro pasado: claves de la recuperacion del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia.
- SANGINÉS, Gemma eta SUAY, Ferran (2008a) Hizkuntza menpekotasunezko portaeran eragiteko proposamena. In: Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua. Andoain Soziolinguistika Klusterra.

- SANGINÉS, Gemma eta SUAY, Ferran (2008b) Norberaren hizkuntza-espazioari buruzko lantegia. Pertsona arteko erabileran valentzierari eusteko baliabideak. *In: Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua. Andoain Soziolinguistika Klusterra.*
- SHERIF, Muzafer (1935). *A study of Some Social Factors in Perception*. In: *Archives of Psychology*, 187, 5-60.
- SMITH, Manuel J. (2008). *Cuando digo no me siento culpable*. Bartzelona: Debolsillo.
- SUAY Y LERMA, Ferran eta SANGINÉS SAINZ, Gemma (2005) Un espai per als parlants d'una llengua. In *Llengua i ús* 34. zenb. 27-39 orr.
- SUAY Y LERMA, Ferran eta SANGINÉS SAINZ, Gemma (2008) Hizkuntza-mendetasuna aztertzeko eta egoera horretan esku hartzeko eredu bat. In *BAT aldizkaria* 69. zenbakia. 91-101 orr.
- VILA, David eta SAGARRA, Marina (Koord.) (2009) *De la consciència a la conducta. L'experiència de Tallers per la Llengua*. Països Catalans: 7dquatre.
- YÁNEZ MONTECINOS, Juan (2003). *Asertividad reformulada. Teoría Cognitiva acerca de la relaciones interpersonales*.  
[Htps://www.u-cursos.cl/medicina/2008/1/ENFINHUCO2/1/material\\_docente/objeto/168748](https://www.u-cursos.cl/medicina/2008/1/ENFINHUCO2/1/material_docente/objeto/168748)
- ZALBIDE, M eta ERIZE, X. (2007) *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET. 3.ikasgaia.

